goiena
20 URTE ZUEKIN.
2020-10-09 EGUBAKOITZA / 876. ZENBAKIA / 20. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

LEINTZ GATZAGAKO TURISMO ESKAINTZA SUSTATZEKO BESTE PAUSO BAT

Santa Columba ermita, Gatz Museoko informazio-gune berria, eta herriko turismo informazio guztia 'Gatzagaturismo.com'-en / 23

Argazki handian, Gatzagako hainbat turismo agente, ermita barruan, informazio-gune berrian; txikian, Santa Columba ermita berritua, kanpotik.

IMANOL BELOKI

Mondragon Taldeko buruekin elkartu da Espainiako Lan ministroa

"Lan kooperatibotik eta pertsona erdigunean jartzetik enpresa talde lehiakorra eraiki daiteke", dio Diazek / 4

Adrian Merino aretxabaletarra Futbol Federazioko lehendakarigai, Manu Diazekin lehian / 38

60ko hamarkadako argazkiz osatutako erakusketa Bergaran, Aroztegi aretoan, urriaren 25era arte / 24

SINADURAK

MARIA AGIRRE / 8

RAMON MARTIN / 35

IBON ARRUPE / 12

JUAN ANTONIO ITURBE LEZETA / 30

LEIRE ELEJALDE / 17

AGURNE BARRUSO / 48

Itziar Imaz arkitektoari elkarrizketa

Debagoieneko unibertsitateen bilakaera

Birusaren birsorkuntza tasak gora egin du, eta azken hilabeteko joera aldatu

Euskal Autonomia Erkidegoko datuek asteon azaleratu dutenez, birsorkuntza tasak 1eko langa gainditu du. Adineko pertsonen egoitzei dagokienez, eguaztenera arte Gipuzkoako egoiliarren artean zeuden 58 kasu positiboetatik 18 Mizpirualdekoak dira

Jone Olabarria DEBAGOIENA

COVID-19 gaitzak eragindako osasun krisiak eztanda egin zuenetik zazpi hilabete igarota, eguazteneko probek erakutsitako datuen arabera aldatu egin da azken asteetako joera. Oinarrizko birsorkuntza datuari dagokionez, hainbat astez 1 azpitik egon ostean langa hori gainditu du EAEn eguazteneko datuekin; zehazki, 1,01ean kokatzen da. Irailaren 10ean gainditu zen azkenekoz 1eko langa.

BAILARAKO EGOERA

LEINTZ GATZAGAN ETA ELGETAN IZAN EZIK, POSITIBOAK HERRI GUZTIETAN

Eusko Jaurlaritzatik asteon helarazitako datuen arabera, urriaren 1etik 7ra arte 74 COVID-19 kasu positibo hauteman dira Debagoienean. Aurreko asteko datuekin alderatuta, positibo zifra parekoak utzi dituzte aste honetako probek: 79 hauteman zituzten irailaren 24tik 30era eta bost gutxiago, 74, izan dira urriaren 1etik 7ra bitarte.

Hego Euskal Herrian 13.540 PCR proba egin ziren eguaztenean, eta horietatik 854 izan ziren emaitza positibodunak. Kutsatze tasa %4,4koa izan da EAEn eta %8,8koa Nafarroan. Lurraldeka aztertuta, 58 kasu izan ziren Araban, 195 Bizkaian, 192 Gipuzkoan eta 400 Nafarroan.

Bailarako azken datuak herrika aztertuta, Elgetan eta Leintz Gatzagan izan ezik, gainerako herri guztietan atzeman dira aste honetan positiboak. Era berean, azken astean egindako PCR probek baieztatu dituzten kasuekin, dagoeneko 1.248 dira orain arte koronabirusak kutsatutako debagoiendarrak.

MIZPIRUALDE EGOITZA

KASU BERRIRIK EZ, BAINA EGOILIAR BAT ZENDU DA ETA 18 DIRA POSITIBO

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, azken orduetan– eguazteneko datuak– egoiliar bat zendu da Gipuzkoako egoitzetan; zehazki, Bergarako Mizpirualde adinekoen egoitzan. Hala ere, beste lau adinekok gaixotasuna gainditu dute, baina oraindik hemezortzi dira bertan kutsatuta jarraitzen dutenak.

Eguaztenean ez zen kasu berririk erregistratu ez Bergarako egoitzan, ezta gainerako 64 egoitzek osatzen duten Gipuzkoako sarean ere; hala ere, datuen arabera, guztira, 58 dira birusa duten egoiliarrak; horietatik hamazortzi, Mizpirualden.

Bertako arduradun Alazne Irazabalek joan den egubakoitzean azaldu zuenez, Diputazioa egiten ari den lana "txalotzekoa" izan da: "Bikain ari dira. Izan ere, positibo bat dagoenean, asteburua izanda ere, berehala etortzen dira, egoiliarra Eibarko osasun zentrora edo ospitalera eramateko".

Irazabalek gaineratu du nola ari diren birusaren hedapena saihesteko lanean: "Sei unitate ditugu eta bitan izan dira infekzioak; gure helburua da unitate horien artean kontakturik ez izatea, ezta langileen partetik ere. Gainera, suhiltzaileak maizago datoz orain desinfektatzera".

GRIPE KANPAINA

TXERTAKETA OSASUN ZENTROETAN EGINGO DUTE; BERGARAN ETA ARETXABALETAN, EZ

Aurten COVID-19arekin batera iritsi den gripearen aurkako ohiko txertaketa-kanpaina orokorra urriaren 13an hasiko du Osakidetzak, baina astebete aurreratzea erabaki dute adinekoen egoitzetan eta osasun arloko profesionalen artean. Hain zuzen ere, aste honetan aritu dira lan horretan, baita Debagoieneko osasun zentroetan eta egoitzetan.

COVID-19a eta gripea batera ez hartzeko txertoaren garrantzia azpimarratu du Iturbide egoitzako zuzendari Olatz Etxabek: "Oso gomendagarria da txertoa jartzea. Biak batera hartzearen ondorioak gogorrak eta oso latzak izan daitezke. Era berean, bereizteko "zailak" izan daitezkeela azaldu du: "Sintomak nahiko antzerakoak dira, eta ezin dezakegu zehazki jakin".

Astelehenetik aurrera hasiko duten kanpaina orokorrari dagokionez, Debagoieneko ESIk jakinarazi duenez, 65 urte edo gehiago dituztenei eta arriskutaldeetako kideei datozen egunetan deituko diete osasun zentroetatik, txertoa jartzeko ordua eta eguna emateko. Era berean, zehaztu dute txertoa osasun zentro bakoitzean jarriko dela, Bergaran eta Aretxabaletan izan ezik; bi horietan, zaharren egoitzetan finkatuko dute txertaketa-gunea.

Bergarako txertaketa-gune horretaz gain, urriaren 26an, Osintxun eta Labegaraietan ere egingo dituzte txertaketak. Arrasateri dagokionez, osasun zentroan izango du txertaketa puntua; hala ere, auzo bakoitzeko zaharren egoitzetan ere burutuko dira txertaketak: urriaren 15ean San Andresen, 16ean Santa Marinan, 19an Musakolan eta 20an Uribarrin.

Debagoieneko ESIk herritarrei eskatu die "deiaren zain lasai egoteko, osasun-zerbitzuetara berehala jo beharrean zita jaso arte itxaron dezatela". Arrisku taldeetatik kanpo daudenek, nahi izanez gero, urriaren 31tik aurrera deitu beharko dute osasun zerbitzuetara. Era berean, adierazi dute gerta daitekeela pazienteak erizainarekin beste kontsulta baterako ordua izatea, eta, bidez batez, kontsulta hori aprobetxatzea txertoa jartzeko.

Koronabirusa Debagoienean

	Positiboak aurreko astean	Positiboak aste honetan	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	20	41	573	25,98
Bergara	33	8	258	17,20
Oñati	7	10	173	15,24
Aretxabaleta	12	4	143	20,15
Eskoriatza	5	2	47	11,56
Antzuola	1	8	27	12,27
Elgeta	1	0	15	13,17
Aramaio	0	1	11	7,30
Gatzaga	0	0	1	4,00
GUZTIRA	**79**	**74**	**1.248**	

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK ITURRIA: OSASUN SAILA

KALEAN EDATEAGATIK

OÑATIKO EZ-JAIAK ETA MARITXU KAJOI: 27 SALAKETA AZKEN ASTEAN

Jairik ospatu ez den arren, joan den asteburuan izango ziren Oñatiko San Migelen baitan Herri Eguna ospatzea eta baita Arrasateko kasuan Maritxu Kajoi. Ertzaintzak emandako datuen arabera, urriaren 2tik 3ra bitarteko gauean lau esku hartze egin zituzten Arrasaten, guztira zortzi salaketa jarrita.

Salaketon arrazoiak kalean edatearekin eta drogekin lotuta zirela azaldu du Ertzaintzak: "01:30 eta 03:30 bitarte gertatu ziren esku hartze guztiak. Gazteluondo gunean, Arrasate pasealekuan eta Erdiko kalean. Lau salaketa botila festarekin lotuta izan ziren, hiru drogen kontsumoarekin eta edukitzearekin, eta bakarra maskara ez erabiltzeagatik".

Oñatiko kasuan, hamar salaketa jarri zituzten zapatutik domekara bitarteko gauean. Kasu horretan, lau pertsona maskara ez eramateagatik salatu zituzten eta sei bide publikoan botila festa egiteagatik. Gau berean egindako beste eskuhartze batean, gazte talde bat hauteman eta identifikatu zuten, anbulatorioko aparkalekuaren inguruan, kalean edaten.

Bertan zegoen pertsona bat ihes egiten saiatu zela azaldu du Ertzaintzak, eta, atzeman zutenean, "agente bati eraso egin zion". Pertsona hori agintaritzaren agenteen aurkako atentatudelitu batengatik atxilotua izan zen, eta, gertakarien ondorioz, bi agente arin zaurituta izan zirela esan du Ertzaintzak.

Irailaren 29an, Errosarixo Bixamona eguna izan beharko zukeenean, beste bederatzi salaketa jarri zituen Ertzaintzak. 00:30 aldera, Xagu taberna inguruan bederatzi pertsona salatuak izan zirela zehaztu dute; tartean, tabernako arduraduna: "Bertako bezeroak maskararik gabe zeuden, segurtasun distantzia mantendu gabe, zutik kontsumitzen lokalaren barruan zein kanpoan".

"Hobetuz noan arren, oraindik sintoma iraunkor ugari ditut"

AINHOA ALDAI 'COVID PERSISTENTE EH' PLATAFORMAKO KIDEA

COVID-19ak martxoan kutsatu zuen bergararra; ordutik, baina, birusak utzi dion arrastoa pairatzen du. Sintoma iraunkorrak dituztenek plataforma bat sortu dute

Ainhoa Aldai, joan den asteburuan, Bergarako Usondo parkean. MIRARI ALTUBE

Jone Olabarria BERGARA

Alarma egoera ezarri eta itxialdia agindu zutenetik pare bat egunera igarri zituen Ainhoa Aldai bergararrak COVID-19aren lehen sintomak. Hilabete eman zuen bakartuta, eta, hainbat ospitaleratze eta probaren ostean, birusak utzi dizkion zenbait osasun ondorio nabari ditu oraindik ere gaur egun.

***COVID-19* terminoa entzun eta zer etortzen zaizu burura?**

Denbora guztian alerta antzean nago. Kalera irteteko beldurrez, dena orokorrean ikusten dut beldur handiz.

Martxoan pasatu zenuen koronabirusa. Zer sintoma igarri zenituen?

Martxoaren 15 goizean, eztularekin jaiki nintzen, eta nik, normalean, ez dut sekula eztulik izaten. Arraro samarra iruditu zitzaidan, eta termometroa jartzerakoan 37,3 nuen. COVID-19aren kontuarekin, medikuari deitu eta bakartzeko esan zidaten; ez zekitela izango zen ala ez, baina orduan probarik ere ez zen egiten. Logela batean bakartzeko eta bertan 14 egun egoteko esan zidaten, eta sintomak konplikatuz gero berriz deitzeko.

Eta, hain zuzen ere, konplikatzen joan ziren...

Bai; laugarren egunetik aurrera mareatzen joan nintzen. Gorputz guztia indar gabe bezala nuen, lokartu egiten zitzaidan, eta burua joaten zitzaidan. Orduan bai, larritzen hasi nintzen. Medikuari deitu nion, eta orduan eurek neurtzen zituzten parametroak sukarra, eztula eta arnasteko zailtasuna ziren. Nik ez nuenez arnasteko zailtasunik, antsietatea izango zela eta etxean geratzeko esan zidaten. Gau hartan bertan hasi zitzaizkidan, baina, sintoma horiek; mareoak oso sarri ziren, eta 112-ra deitu nuen. Bertako medikuak antsiolitikoak hartzeko esan zidan, eta probatzeko ea gau hartan antsiolitikoekin zer moduz. Goizean berdin jarraitzen nuen eta anbulatoriora joatea erabaki nuen. Handik ospitalera bidali ninduten zuzenean.

Ospitaleratua ere egon zinen?

Probak egin zizkidaten, baina oraindik ez nuen pneumoniarik. Dena ondo zegoenez, PCR proba egin, eta etxera bidali ninduten. Hurrengo egunean, martxoaren 20an, jakinarazi zidaten positibo nintzela. Sintomak ugariak eta nahiko larriak zirenez, nire familiako medikuak urgentzietara joateko esan zidan eta bertan pneumonia txiki bat nuela azaldu zidaten. Zorionez, oheak libre zeuden oraindik eta ospitaleratzeko aukera eman zidaten.

"EGONGELAN ORDUBETE ESERITA EGOTEA IA EZINEZKOA ZEN ORDUKO OSASUN EGOERAN EGONDA"

Zenbat denbora egin zenuen bertan?

Baietz esan nuen, eta bi egun egon nintzen ospitaleratuta. Dena ondo zegoen, eta etxera bidali ninduten berriz ere. Hala ere, sintomekin jarraitu nuen: mareoak, buruko minak, eztula, kalanbreak gorputzean... Apirilaren 6an, berriz joan nintzen medikuarenera; eskanerra egin zidaten eta bertan ikusi zuten tronboak izan nituela. Berriz ere ospitaleratu ninduten. Astebete egin nuen ospitalean.

Plataforma abian

Ekainean sortu zuten Euskal Herrian COVID-19 gaitzagatik ondorioak dituzten edota birusaren sintoma iraunkorrak pairatzen dituzten pertsonen elkartea. "Jende asko sintomekin geratzen da eta horri buruz ez da hitz egiten", dio Aldaik. "Taldeko gehienak gazteak gara, 40tik beherakoak, kirolariak, lehen osasuntsu zeuden pertsonak. Nik ere uste nuen aurretik patologiarik izan gabe eta gaztea izanda ez zela larria izango, eta begira zela egon naizen eta nagoen".

Ordutik, hainbat hilabete pasa dira, eta oraindik guztiz berreskuratu gabe zaude...

Poliki-poliki aurrera noa. Etxera heldu nintzenean, ezin nintzen ohetik jaiki ere egin. Nire esfortzu gehienezkoa komunera joatea zen. Egongelan ordubete eserita egotea lortzea ia ezinezkoa zen niretzat. Apurka hobetzen noan arren, sintoma iraunkorrak eta atzerapausoak ere izaten ditut, noizbehinka, oraindik ere; neke handia izaten dut, normalean, buruko mina, ile asko erortzen zait...

Oraindik ere egiten dizute jarraipena?

Positibo izan nintzenez, proba asko egin dizkidate, eta oraindik ere jarraipenarekin segitzen dut. Analitika oso bat ere egin zidaten, tumoreren bat egon zitekeelakoan, baina ezetz esan zidaten. Birusak eragindako zerbait izango zela eta denbora pixka bat beharko nuela esan zidaten, dena apur bat bere onera bueltatzeko.

Psikologikoki zer eragin izan du?

Emozionalki beldur handia izan dut. Konfinamendu arintze garaian, urduri jartzen hasi nintzen, jendea irteten hasi zen, normaltasuna apur bat berreskuratu genuen... Inork ez digu ziurtatzen antigorputzak izanda ere berriz kutsatu ezin gaitezkeenik, eta, hortaz, zaindu egin behar dugu. Orain, psikologo batekin nabil, ea beldur horri buelta ematea lortzen dudan. Kasuak gora doazela ikusten dut eta oso gogorra egiten zait.

"PSIKOLOGOAREKIN LANEAN ARI NAIZ, SENTITZEN DUDAN BELDUR HONI BUELTA EMATEKO ASMOTAN"

Etxekoek nola bizi izan dute?

Oso gogorra izan da. Hilabete egon nintzen bakartuta, martxoaren 15etik apirilaren 15era. Momentu askotan bakarrik egon naiz, baita ospitalean ere. Bi seme ditut, eta haiek ere beldurrez bizi izan dute; ospitalean nengoela bideo deiak egiten genituen, saiatzen nintzen eurak lasaitzen, baina medikuek ere ez zekiten zer gertatzen zen.

Orain hasi zara apurka kalera irteten...

Orain, hobeto ikusten naute etxean, lasaiago. Eurak ere eskolara itzuli dira, berreskuratu dute normaltasun apur bat. Hala ere, bajan jarraitzen dut, oraindik ez nago lanera joateko moduan; goizetan hobeto egoten naiz, baina arratsaldeetan nekea sartzen zait. Haur Hezkuntzako irakaslea naiz, eta emozionalki klasera itzultzeko ere ez nago ondo. Medikuak eta psikologoak esan didate orain lasai egon behar dudala, estres puntua ez handitzeko, eta ea beldurra kentzen joaten zaidan.

Iñigo Uzin eta Yolanda Diaz hizketan, ondoan ordezkariak dituztela. MIREN ARREGI

Debagoienean geldialdia egin du Lan ministroak

Yolanda Diaz Espainiako Lan ministroa bailaran izan zen atzo, Mondragon Taldearekin harremanak estutzeko egindako bisitan. Berrindustrializazioaren susperraldian kooperatibek eta Mondragon Taldeak "gako" izan behar dutela adierazi zuen

Maialen Santos ARETXABALETA

Yolanda Diaz Espainiako Lan ministroak Euskal Autonomia Erkidegora egindako bisita ofizialaren baitan, Debagoienean egin zuen geldialdia atzo, eguena. Mondragon Taldearen eta Espainiako Gobernuaren arteko "elkarlan bideetan sakontzea" izan zen bailarara egindako bisitaren helburu nagusia, Mondragon Taldeko presidente Iñigo Uzinek azaldu zuenez: "Hau guretzat beste urrats bat da, urrats garrantzitsua; Gobernuarekin harremanak mantendu eta hobetzeko".

Lehenengo, Coprecira bisita

Hasteko eta behin, Aretxabaletako Copreci enpresara egin zuen bisita Diazek, eta bertan hartu zuten Iñigo Uzinek eta enpresa horretako ordezkariek. Enpresa barrutik bisitatzeko aukera izan zuen, eta, era horretan, arlo industrialean kooperatibak egiten duen lana nolakoa den ikusteko, bertatik bertara.

Otalora eraikinera joan ziren jarraian, eta bertan bildu zen Mondragon Taldeko arduradunekin. Lan-bilera egin zuten, hasteko, eta gero, esker hitzak eskaini zizkien Mondragoneko ordezkariei. "Euskadira bisita probetxuzkoa izaten ari dela esan dezaket. Lehen eskutik ezagutu gura nuen Mondragon Taldea, eta hala egiteko aukera izan dut", aitortu zuen Diazek.

Mondragonen lanari, "balioa"

Mondragonen lanari "balioa" eman gura izan zion Diazek, "lan kooperatibotik eta pertsona erdigunean jartzetik enpresa talde lehiakorra eraiki daitekeela erakusten duelako". Haren ustez, bide hori lantzea ezinbestekoa izango da berrindustrializazioaren susperraldian.

Hain justu ere, Diazek nabarmendu zuen bere bisitaren "arrazoi nagusia" Euskal Autonomia Erkidegoa susperraldi horretan kokatzea dela eta Mondragon Taldea estrategia horretan "ezinbesteko pieza" dela. Espainiako Lan ministroaren ustez, kooperatibek eta Mondragon Taldeak gako izan behar dute, eta egun hauetan martxan jarriko den ekonomia sozialaren estrategian askorako eman dezake taldearen esperientziak. "Ezin izango da bideratu aldaketa teknologikoa, modelo produktiboaren aldaketa, ez eta digitalizazioa, elkarlan barik. Ezin izango ditugu aurrerapausoak eman iraunkortasunean, kohesio sozialean eta territorialean –ez ahaztu, horregatik gaude hemen– Euskal Autonomia Erkidego barik, eta, are gutxiago, Mondragon taldearen esperientzia barik". Gehitu zuenez, "prozesu garrantzitsua" dute aurretik, elkarlanean egin beharrekoa.

Pandemiaren "eragina"

Bestetik, pandemiak Mondragon Taldeko sektoreetan izan duen eraginaz hitz egin zuen Iñigo Uzinek. Azaldu zuenez, hasieratik "neurriak" hartu zirelako ari dira egoerari ondo eusten: "Momentu honetan, batik bat, automozioa eta osagaien aktibitatea asko hobetu direla esan dezaket. Hori horrela, batez bestekoa kontuan hartuta jarduera nahiko normala dugu une honetan".

Unibertsitatera ere bai

Bazkaltzeko etenaldia egin ostean, bisitari amaiera eman zioten. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan izan zen Diaz, Unibertsitateko errektore Bixente Atxak eta presidente Mikel Alvarezek lagunduta. Eraikina barrutik ezagutzeaz gain, unibertsitateak dituen proiektuez, egiten duen lanaz eta betetzen dituen helburuez berbetan jardun zuen bertako ordezkariekin.

"LEHEN ESKUTIK EZAGUTU GURA NUEN MONDRAGON TALDEA"

"EAE SUSPERRALDIAN KOKATZEA DA BISITA HONEN HELBURUA"

YOLANDA DIAZ, LAN MINISTROA

"HARREMANAK HOBETZEKO URRATS BAT DA HAU"

"PANDEMIAK ERAGIN DUEN EGOERARI ONDO ARI GARA EUSTEN"

IÑIGO UZIN, MONDRAGON TALDEA

Bihar emango diete hasiera jardunaldi sozialistei, Bergaran

Gazte Koordinadora Sozialistako kideek bihar eta datorren zapatuan, hilak 17, egingo dituzte Deba bailarako jardunaldiak, Bergarako kartzela zaharrean. "Egungo testuingurua azaltzea" eta "koiunturaren inguruko analisiaren garrantziaz jabetzea" izango dute helburu, besteak beste, okupazioaren gaia aztertuta. "Pandemia egoeran, krisi kapitalistaren espresioak areagotu direlarik, inoiz baino behar handiagoa dugu antolatu eta ofentsibari aurre egiteko", azaldu dute. Bihar, 17:30ean, okupazioaren aurkako kanpaina hitzaldia egingo dute, eta, jarraian, "parrilada girotua". Bestetik, urriaren 17rako egun osoko egitaraua aurkeztu dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, segurtasun neurriak bermatuko dira. Jardunaldietan parte hartzeko, *GKS_debabailara@riseup.net* helbidera idatzi behar da.

Gaur da 'Hazilan'-en edizio berrian izena emateko azken eguna

Eskualdeko pertsona kualifikatuen laneratzea erraztea helburu duen Hazilan proiektuaren bederatzigarren edizioa urriaren 17an hasiko dute. Bi fase izango ditu: prestakuntza eta praktikak eskualdeko enpresetan. Konpetentzia pertsonal eta profesionaletan trebatzeko tailerra azaroaren amaiera bitartean egingo dute, modu presentzialean. Ondoren, eskualdeko enpresetan praktikak egingo dituzte, lanmerkatura hurbildu eta lanesperientzia hartzeko helburuarekin. Parte hartzeko baldintzak dira 20-44 urte bitartean izatea, goi-mailako ikasketak amaituta izatea eta Debagoieneko herriren batean erroldatuta egotea. Gaur izango da izena emateko azken eguna. Bestetik, enpresek ere praktika-eskaerak egiteko aukera izango dute. Izen-emate bietarako, 943 79 30 90 telefono zenbakira deitu behar da.

Soziolinguistika jardunaldiak egingo dituzte Huhezin

Gazte eta nerabeen esparruan euskararen biziberritzearen ikuspegitik aurrera eramaten ari diren ikerketa, berrikuntza eta garapen proiektuak ezagutu eta lantzeko aukera izango dute urriaren 28an, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako campusean. Parte hartzeko, *www.soziolinguistika.eus/jardunaldia* webgunean eman daiteke izena.

HYUNDAI OARSO CAR ARRASATE

Zure Hyundai berria prezio onenean **Arrasaten**
Zure eskaintza hobetzen dugu etxetik atera gabe

- Unitate mugatuak prezio berezietan
- Momentuan entregatzeko
- 5 urteko garantia
- 10.000 € aurreztu zure auto berrian

GRUPO EASO MOTOR

HYUNDAI Oarso Car

San Andres kalea 6 • Arrasate • 943 79 70 06 • Mugarri Eraikina

oarsocar.com

Goienagusiko kideak, udal ordezkariekin eta Beatriz Artolazabal sailburuarekin, Seminarixoko aurkezpenean. TXOMIN MADINA

Goienagusi prest dago ikasturteari ekiteko eta hitzaldietan murgiltzeko

Pandemiaren eraginez txangoak eta irteerak alde batera utziko dituzte, baina hitzaldien programazioari eutsi diote. Hainbat gai jorratuz, hizlari adituek hartuko dute parte. Hitzaldiak Arrasateko Kulturaten eta Bergarako Seminarixoan izango dira

Karmele Uribesalgo BERGARA

Abian da jada Goienagusi Kultur Elkartearen 2020-2021 ikasturtea. Asteazkenean eman zioten hasiera, Bergarako Seminarixoa aretoan, eta abenduaren 16an izango da lehen hiruhileko azken saioa. Debagoieneko Pertsonen Elkartea da Goienagusi, eta ikasturte berrian Debagoieneko ia herri guztietako 196 bazkide izango ditu –udalerri guztietakoak, Elgetakoak izan ezik–. Euren helburua da adinean aurrera joanda ere arlo ezberdinetan ezagutza handiagotzea, baita aisialdiaz gozatzea eta beste ideia eta pentsamolde batzuetara irekitzea ere. Betiere, parte hartzea eta garapen aktiboa sustatuta.

COVID-19aren pandemiak baldintzatu egin du aurtengo Goienagusiren ikasturtea, eta osasun egoera hobetu arte ez da kutsatze arriskua ekar dezakeen jarduerarik egingo; hain zuzen, ez da irteerarik izango interes kulturaleko lekuetara edo musika ekitaldietara.

Hala ere, eutsi egingo diote jarduera nagusiari, eta mantendu egingo dute hitzaldien programazioa. Saioak astelehen eta asteazkenetan egingo dituzte, ordutegi jarraituan eta atsedenik gabe. 10:00etan hasi eta 11:30ean amaituko dituzte hitzaldi horiek. Arrasateko Kulturaten eta Bergarako Seminarixoa aretoan izango dira. Goienagusiko arduradunek azaldu dute osasun eta udal agintariek ezarritako segurtasun neurriak errespetatuko dituzte une oro. Gauzak horrela, aretoen edukiera kontrolatuko dute, parte hartzaileen artean distantzia mantenduko da, maskara nahitaez erabili beharko dute gerturatutakoek eta sarrerak zein irteerak mailakatuak izango dira.

Askotariko hitzaldiak

Gai ugari jorratuko dira aurtengo Goienagusin, eta hainbat gaitan aditu diren hizlariak gonbidatu dituzte. Besteak beste, landuko diren gaien artean daude historia eta artea, zuzenbidea eta ekonomia, musika eta kazetaritza– beheko taulan daude zerrendatuta Goienagusin izango diren hizlariak, baita hitzaldien datak eta lekuak ere–. Hizkuntzari dagokionez, euskaraz edo gaztelaniaz izango dira hitzaldiak. Ikasturte honetako erronketako bat izan da hitzaldien erdia euskaraz izatea. Horrez gain, ekitaldiak grabatu eta denentzat eskuragarri jarri nahi dituzte antolatzaileek.

Goienagusi Kultur Elkartearekin elkarlanean arituko dira, adibidez, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bergarako Laboratorium, Mondragon Unibertsitatea, UNED Bergara eta Deustuko Unibertsitatea.

Pandemiaren ondorioz, azken ikasturtea bertan behera utzi behar izan zuten, baina antolatzaileek azaldu dutenez, argi zuten, posible zenean, berriz jarriko zutela martxan. Gauzak horrela, aurreko ikasturtean eskaini izan ez ziren hitzaldiak berreskuratzen saiatu dira. Goienagusiko lehendakari Lydia Fernandez de Lucok adierazi duenez, espero ez bazuten ere, bertan behera gelditu ziren hitzaldietako hizlari guztiek baiezkoa eman diete. "Harremanetan jarri gara hitzaldia eman behar zutenekin, eta, harrigarria bada ere, onartu egin dute gure proposamena", azpimarratu du Fernandez de Lucok. Gainera, Goienagusiko lehendakariak kontatu duenez, hizlariak poztu egin dira ikasturte berri bati ekingo diotelako.

Aurkezpena, Seminarixoan

Asteazkenean egin zuten 2020-2021 ikasturtearen aurkezpena, Bergarako Seminarixoan. Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko alkateak izan ziren: Maria Ubarretxena, Gorka Artola eta Izaro Elorza. Bergarako eta Arrasteko alkateek hartu zuten hitza. Artolak goraipatu egin zuen Goienagusik egiten duen ekarpena: "Uste dut askotariko gaien eta ezagutzen transmisioa bultzatzen dutela, eta ekintzailetasunean sekulako ahalduntzea ahalbidetzen dutela". Ubarretxenaren hitzetan, Goienagusik beti izango du Arrasateko Udala laguntzeko prest, "beharrezko ekimena" iruditzen baitzaio. Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua ere izan zen ikasturtearen aurkezpen ekitaldian. Artolazabalen ustetan, kontua ez da bakarrik urte askoan bizitzea, baizik eta urte horiek ahalik eta baldintza onenetan pasatzea.

Goienagusiren lehen hiruhileko programazioa

Eguna		Hitzaldia	Irakaslea	Tokia
Urria	7	'Ikasturte hasierako ekitaldia'	Goienagusi	Bergara, Seminarixoa
	14	'Energía e Inteligencia Artificial'	Javier Tejada	Bergara, Seminarixoa
	19	'La imagen más visible de la Guerra Fría'	Ana Gonzalez	Arrasate, Kulturate
	21	'Zeru urdina, oskorria eta gauaren iluntasuna'	Jesus Arregi	Arrasate, Kulturate
	26	'La sexualidad más allá de las pausías'	Laura Moran	Arrasate, Kulturate
	28	'Caos geopolítico'	Junajo Alvarez	Bergara, Seminarixoa
Azaroa	2	'Porrotaren alde'	Alberto Iñurrategi	Arrasate, Kulturate
	4	'Conoce qué se puede hacer con el CO2'	Susana Perez	Bergara, Seminarixoa
	9	'Preboom de la literatura latinoamericana I'	Jose Domingo	Arrasate, Kulturate
	11	'Jazz: 30eko eta 40ko hamarkadak'	Jon Garcia	Bergara, Seminarixoa
	16	'Preboom II: Juan Rulfo'	Jose Domingo	Arrasate, Kulturate
	18	'Koronabirusak: pandemien eragileak'	Miren Basaras	Arrasate, Kulturate
	23	'Mundua Washingtonera begira'	Mikel Reparaz	Arrasate, Kulturate
	25	'Jazz: 50eko hamarkada'	Jon Garcia	Bergara, Seminarixoa
	30	'Imágenes del poder: Antigüedad - siglo XV'	Urko Barros	Arrasate, Kulturate
Abendua	2	'Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria'	Alex Gurrutxaga	Arrasate, Kulturate
	9	'Glittering Misfits dokumentala'	Iban del Campo	Bergara, Seminarixoa
	14	'Imágenes del poder: siglos XVI, XVII y XVIII'	Urko Barros	Arrasate, Kulturate
	16	'Magia saioa: Magia Parrastan!'	Imanol Ituño	Arrasate, Kulturate

5G gora eta behera

PITER ENCINAS
EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA
ARRASATE

COVID gaiak dena estaltzen duen garai hauetan, beste arazo batzuek ere gure inguruan jarraitzen dute, zoritxarrez; adibidez, 5Gk, mugikorren teknologia berriak. Gomendio bat egin nahi dizuet, irakurketa bat: *Antonio Aretxabala eta 5G*. Luze zamarra da, baina oso-oso aberasgarria.

Oso nabarmena da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) eta, batez ere, 5G zabaltzeak ekologikoki eta, batik bat, osasunarentzat arazo larriak sortzen dituztela. Era berean, gizarteak eta politikariek batzuon kexak eta zalantzak onartu beharko lituzkete eta, halaber, arduraz aztertu zabaldu aurretik. Zergatik ez dago eztabaidatzeko aukerarik erabaki batzuk hartu baino lehenago?

Teknologien atzean dagoena ez da geldoa, gure bizimodua, harremanak, ohiturak... aldatzen dituelako.

Gero eta argiago dago behe-frekuentziaren elektromagnetiko arloek (EMA), edo haririk gabeko teknologiek, mugikorrek, sare elektrikoek, telefonia antenek, wifiek, zainketa-sistemek... DNA kateari kaltea sortzen diotela. Apoptosia, estres oxidatzailea, efektu neurologikoak. Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du erradiazio horiek kaltegarriak direla eta minbizia sor dezaketela.

Nolabait, pentsatzen dut interes ekonomikoengatik gu kui huts bihurtzen gaituztela eta ziur nago hamarkada batzuk barru jakingo dugula zer kalte eragin digun EMAk. Gaur egun, Espainiako INSSk, fibromialgia arloan ikerketak egiten dituztenek esaten digute milioi eta bostehun pertsona gaixorik daudela; %90 emakumeak dira, eta sintoma gehienak hauek dira: elektrosentikortasuna, asma eta neke kronikoa.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar guk sortzen dugun informazio guztia Amazonek, Microsoftek, Applek, Foxcomek eta Googlek, enpresa oligopolio horiek kontrolatzen dutela, eta, hori gutxi ez eta, auskalo nola erabiltzen duten edo nola erabil dezaketen.

5G ezartzearen aurka gaudenok hau eskatzen dugu: moratoria bat; eta teknologia berri hori neutraltasunez ondo aztertzea, jakin arte zer sor dezakeen, onurak eta kalteak balantza batean jarri eta gero erabakiak hartzeko. Izan ere, herritarrok ezin ditugu onartu politikarien erabakiak atzerabiderik ez daukaten egintzak balira bezala.

Zentzuz jokatu: wifi gutxiago eta gune zuri gehiago

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Bosgarren belaunaldiko mugikorrak aurrerapauso galantak ekarriko dituela diote bultzatzaileek, baina apenas hitz egiten dute osasunean izan litzakeen eraginaz; askoz jota, esaten dute orain ere uhin artean gaudela eta ez dela frogatu kalterik egiten duenik.

Eztabaida hau 20 urte baino gehiago doa, eta zientzialari gehienek aholkatzen dute uhin elektromagnetikoak sortzen dituzten aparatuak gutxitzeko gure ingurutik; batez ere, logelatik.

5G teknologia ezartzeko antena gehiago ipini beharko lirateke, baina frogatu arte kalterik ez dutela egiten, hobe geldiaraztea eta dauzkagun antenei errepaso bat jotzea.

Hor daukagu 2000. urtean Bilbon izan zen ebazpen judizial baten ondorioa: antena bat ez zuten ipini teilatuan, etxe horretan bizi zen 7 urteko neskato baten osasuna ez kaltetzeko; baina horrela ibili behar dugu? Kaltetuak frogatzen zergatik gaixotzen diren? Zentzuduna da administrazioek herritarrak babesteko borondatea izatea eta Europatik datozen aholkuei kasu egitea; adibidez, garbi esaten dute ikastetxeetan ahal den neurrian kablea erabiltzeko, eta ez wifia, kutsadura elektromagnetikoa jaisteko asmoz, gurasoen presioaren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak ikastetxe gutxi batzuetan neurketak egin ditu, eta dagozkion neurriak hartu, Europak esaten duen kutsadura elektromagnetikoaren mailan egoteko, baina Eusko Jaurlaritzak ez dauka borondaterik beste ikastetxeetan gauza bera egiteko.

Hau ez da zentzuz jokatzea; protestaka eta abokatuarekin ibili beharra osasuna bermatzeko.

Gune zuriak indartzeko unea da, eskolak, parkeak, egoitzak eta ospitaleak kutsadura maila minimoan eusteko unea.

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzean, GOIENA aldizkariaren 875. zenbakian, Debagoiena atalean, argitaratu zen Naiara Goia izango dela Arantzazu Gaur fundazioko zuzendaria. Informazio hori ez da zuzena. Izan ere, Naiara Goia Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendari izendatu berri du Arantzazu Gaur Fundazioaren patronatuak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

ZABALIK

MARIA AGIRRE

Eguzkia aterako da

Hondartzan nengoen, iluntzen ari zuen. Bat-batean, megafonia piztu eta sorosleak hartu zuen hitza. Ohi moduan, eguneko lana bukatu zutela zioen, baina zerbait gehiago gehitu zuen gero. Bigarren errepikapenean argi geratu zitzaidan: udari zegokionez lana bukatutzat jo zuten sorosleek. Ezustean, finito uda, akabo. Eta hondartzan, aldapa gogor bat irudikatu nuen. Tontorra urruti zuen malda.

Eguzkia ere sorosleekin ados jarri, eta inoiz baino lehenago jo behar izan dugu neguko jantzietara. Aldapa gogorretarako, mendiko jantziak egokiago. Izan ere, horrela aurkeztu zaigu ikasturte berria, aldapaz eta galderaz betea. Uda joan da, baina birusa geratu da. Negua probatu gura duela dirudi. Eta gu, bitartean, tontorrera iristeko bide egokien bila ari gara.

Eguzkitsu egiten zuen birusaren inguruko gogoeta egin nuen egunean ere. Karnabal domeka, Aretxabaletako erdialdea jendez lepo zegoen, eta jendea dantza batean kalean, nioen moduan, eguraldia lagun. Italiako herri batzuetan itxialdia hasi berria, eta Veneziako Inauteriak bertan behera, parranda hura denboraldi batean azkena izan zitekeela pentsatu nuen. "Azken dantza?", pentsatu nuen, inori esaten ausartu gabe. Goizegi, alarmak pizten hasteko.

BADAKIGU NOLA KUTSA GAITEZKEEN, ETA NOLA BABESTU NORBERA ETA ONDOKOAK

Ordutik hona, zenbat aldatu diren gauzak. Epidemiologo ez bilakatu arren, zertxobait ikasi dugu. Badakigu nola kutsa gaitezkeen, eta nola babestu norbera eta ondokoak. Birusari zirrikitu gutxien uztea, momentuz, hori aukera bakarra. Batek daki Gabonek eta geroago Aratusteek zein itxura izango duten, eta nola ospatuko diren. Neurriak, planak, pazientzia eta, bereziki, imajinazioa beharko dira datozen hilabeteetan ere. Baina datorren uda, kanta ezagun batek dioen bezala, inoiz baino alaiagoa izanen da. Beraz, hemendik edo handik eguzkia aterako da. Eutsi!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Zu ere arrazista al zara?

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Egun batzuk daramatzat zutabe honetan zer kontatu pentsatzen.

Azkenean, arrazakeria instituzionalari buruz idaztea erabaki dut, baina errealitatearekin aurrez aurre jarri nauten bi gauza gertatu zaizkit egun hauetan.

Lehendabizi, Fatima lagun afrikarrarekin topo egin dut eta galdetu diot gai honi buruz, baina berak gizarteko arrazakeriaz hitz egin dit. Erantzuna oso argia izan da: "Guk zuen hizkuntza eta ohiturak ikasten ditugu, eta zuen bizimodura egokitu behar dugu, baina zuek ez zarete gure bizitzaz edota kulturaz interesatzen, ez diguzue entzuten, eta hori arrazismoa da".

Fatima alokairuko etxebizitza baten bila ibili da buru-belarri, baina bere azentua entzun eta ondoren beti ezetz esan diote. Egun batean, dozenaka ezezko jaso ondoren, lagun nafar batek deitu du pisu horietako batera. Libre dagoela esan diote.

Bestalde, aste honetan pertsona askoren haserrea piztu da nire auzoan bikote batek jasandako eraso baten ondoren. Laster jakin da ijito arrazako pertsona batzuk bizikleta bat lapurtzen saiatu direla, eta bikoteak aurpegiratu dienean, eraso egin dietela.

Bikotea ezaguna da auzoan. Lehenik eta behin, astakeria hori geldiaraztea bururatu zaizu, salatzea, etxe aurrean kontzentrazioa egitea, alde egin dezaten. Baina beroaldia pasa zaizunean, ohartu zara ez zenukeela gauza bera egingo pertsona horiek zuriak balira. Buruak bueltaka jarraitu du eta orduan galdera bat bururatu zaizu: aukeratu ahalko bazenu, nori alokatuko zenioke zure etxe bat, pertsona zuri bati, ala beltz bati?

Eta orduan konturatu zara uste baino arrazistagoa zarela.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Emakume askok uste dute besteentzat bizi direla"

NEREA FERNANDEZ GERONTOLOGIAN ESPEZIALIZATUTAKO PSIKOLOGOA

Maialen Santos BERGARA

Zaharalduntze feminista: adinkeria ezagutzen izeneko hitzaldia eskaini zuen Nerea Fernandezek atzo arratsaldean, Bergarako Irizar jauregian.

Zer esan gura du izen horrek?

Adinkeria diskriminazio mota bat da, eta hori ezagutzeko hitzaldia eskaini nuen. Ezaguna da adineko pertsonek diskriminazioa pairatzen dutela adinekoak izate hutsagatik, baina ez dugu ikusarazten, eta hortik abiatu nuen berbaldia.

Eta zergatik feminista?

Adineko emakumezkoek diskriminazio bikoitza pairatzen dutelako: adinarengatik eta emakume izateagatik.

Nori zuzendu zenion hitzaldia?

Ez dago zehaztuta. Uste dut txikitatik landu beharreko gaia dela; eta, beraz, publiko guztiendako hitzaldiak eskaintzen ditut. Bergarakoa ere hala izan zen. Askotan, hasten gara emakume zaharrekin gaia lantzen, eta konturatzen gara beranduegi dela. Lehenago hasi behar da.

Nerea Fernandez, atzo, eguena. N.F.

Zer egin zenuten, zehazki?

Esan moduan, adinkeria lantzetik hasi ginen, eta horri genero ikuspuntua sartzen joan nintzen. Bestetik, publizitatean gaia nola lantzen den, sexualitatean zer gertatzen den... ere landu genuen. Nabarmentzekoa da baita egunerokotasunean dauden mikroadinkeriei ere erreparatu geniela; gehienek emakumezko generoarekin ere badutelako zerikusirik. Adineko pertsonen bizitza ezberdina izan da orain artean, eta horrek euren zahartzaroan eragina izan du.

Hitzaldi dinamikoa izan zen?

Jakina. Nik hitz egiten dudan arren, jendeak parte hartu eta bere bizipenak elkarbanatu ditzake; are gehiago, nahiago dut hitzaldia dinamikoa bada.

Parte hartu daiteke, horrenbestez...

Bai, eta hala izan dadin gura dut. Nik gida eta kontzeptu batzuk ematen ditut, baina talde bakoitza oso ezberdina da. Talde hibridoak dira, eta bakoitzaren ezagutzetan eta bizipenetan fokua jarrita lantzen dugu bidea.

Zertan lagun dezake ahalduntze feministak zahartzaroan?

Atzokoa hitzaldi formatuan egin nuen, baina egia da beste herri askotan tailerrak eskaintzen ditudala. Ikusten dut oraindik emakume asko dagoela bere zurrunbiloan sartuta; ez dira konturatzen ez direla bizi euren bizia besteei emateko, norberarentzat baizik. Horregatik da garrantzitsua ahalduntzea oinarri hartuta nork bere burua zaintzea, norbera delako garrantzitsuena.

Adineko emakumeak dira zurrunbiloan sartuta daudenak?

Ez. Gazteen kontua ere bada, eta horregatik eskaintzen ditugu adin guztietarako tailerrak. Adin askotariko emakumeak elkarrekin jartzen ditugunean, oso talde goxoak sortzen dira.

Bizitzen Fundazioak antolatutako hitzaldia izan zen. Zertan lan egiten duzue?

Bizitzen Fundazioak pertsonen ongizatea zaintzea du helburu. Menpekotasuna duten nagusiekin egiten dugu lan, eta baita adinekoen zaintzaile diren senideekin ere. Ni zahartzaroan, gerontologia arloan, espezializatutako psikologoa naiz.

Psikologia zerbitzua ere eskaintzen duzue...

Durangon dugun bulegoan eskaintzen dugu psikologia zerbitzua. Estimulazio kognitiboa eta errehabilitazioa ere egiten ditugu. Udaletxetako programak ere lantzen ditugu.

Zergatik da garrantzitsua pertsonen ongizatea zaintzea?

Giltzarri delako. Pertsona batek bere ongizatea zaintzen badu, hobeto egongo da bera, eta baita bere inguruko guztiak ere. Horrenbestez, gizarteak ere hobera egingo du, orokorrean.

ITURRI ONETIK

Izaro, Arrasateko Amaia antzokian, abenduan

Izaro Andres kantariak urriaren 16an berrabiaraziko du martxoan COVID-19aren eraginez bertan behera utzitako kontzertu-bira. Bilboko Euskalduna jauregian hasiko du bira. Abenduaren 23an, ostera, Arrasateko Amaia antzokian izango da, 19:00etan. Donostian, Galdakaon, Eibarren, Iruñean, Beasainen… egingo du geldialdia aurretik.

Limones en invierno diskoa aurkeztuko du kontzertu horietan. Arrasateko emanaldirako sarrerak laster jarriko dituzte salgai.

ALBISTE IZAN ZEN

GOIENA

2007-10-07

Kilometroak jaia ospatu zen Bergaran

Bigarrenez hartu zuen Bergarak Gipuzkoako ikastolen Kilometroak jaia –1991koaren ostean eta 2016koaren aurretik–. Eguraldia lagun, jende uholdea batu zen, eta arrakastaz ospatu. Edu Muruamendiaraz dantzariaren aurreskuarekin hasi zen. Ikastolen sortzaileetako bat omendu zuten, Patxi Azkargorta, eta lekukoa hurrengo urtean jaia antolatu zuen Irurako ikastolari pasa zion Aranzadi Ikastolak.

HAU BE BADOGU!

Kulturaren aldeko aldarriak ez du etenik

Sare sozialak, eta Twitter, batez ere, "kultura segurua dela" aldarrikatzeko erabiltzen ari dira txiolari euskaldunak:

@EstizenArtola: "Kultura segurua da. Eta ezinbestekoa".

@TeatroParaiso: "Gaur, *#Aramaio*-ko ikusleekin batera, txikitxoentzako proposamen artistikoez gozatzen *#kulturaseguruada*".

@Behotsikorkestra: "Espero dugu berriro elkar ikustea, segurtasun neurri guztiekin, eta bizitza honetan beharrezko dugun honetaz gozatzea, musikaz gozatzea, kultura ere segurua dela frogatuz".

Urriaren 6an, martitzena, egin dute urriko osoko bilkura. E.A.

Aparkalekuen kontzesioa tarteko, tirabira mahaian

APK76 Aparcamientos enpresak kudeatuko ditu Laubide eta Biteri aparkalekuak, Construcciones Muriasek horri uko egin ostean. Gobernuak dio "eskuak lotuta" dituela 2056ra arte, eta oposizioak konponbideak bilatzeko borondate falta egotzi dio

Eneko Azurmendi ARRASATE

"2003an ezker abertzalea Gobernuan zegoenean, herriko bi aparkalekuak pribatizatu egin zituen eta emakida 50 urtera atera zuen. Beraz, 2056. urtera arte eskuak lotuta ditugu. Muriaseko ugazaba zendu egin da eta badirudi seme-alabek ez dutela gura negozioarekin jarraitu. Era horretan, APK76 Aparcamientos enpresari egingo dio kontzesioa", azaldu zuen Maria Ubarretxena alkateak.

EH Bildu, "erantzukizunagatik", abstenitu egin zen. "Gure garaiko kontratu bat da. Egia da hamazazpi urte pasatu direla eta beste baldintza batzuetan egin zen kontratu bat dela. Hala ere, momentu hauetan faltan sumatzen dugu negoziazio bat Udalaren partetik, ikusteko ze gaitasun dauden publiko bihurtzeko eta baliabideak bideratzeko horretara", esan zuen Maider Morras bozeramaileak.

Elkarrekin Arrasate udal taldeko Igor Urizarrek azpimarratu zuen 2003koa "akats larria" izan zela, baina horrek ez duela justifikatzen gaur egun horrela jarraitzea. Hori dela eta, kontra bozkatu zuen. "600 aparkaleku hilda ditugu, herrian aparkalekuekin sekulako arazoa daukagunean, eta Udal Gobernuak ez du borondaterik erakusten arazoari konponbidea emateko".

Eskola berria Musakolan

Musakolan, esparruko hezkuntza ekipamenduko partzelen hiri antolamendurako plan berezia onartu zuten. "Urteetan herri eskolak aldarrikatzen zuen eskola berri bat. Halere, hori eraikitzeko, patioan zegoen transformadore bat traba zen. Gai hau urteetan blokeatuta egon ostean, aurreko legealdian bota genuen, azkenean, transformadorea, eta Eusko Jaurlaritza proiektua egiten hasi zen. Esparru hori, beraz, aldatu egingo da, eskola berri bat eraikitzeko, eta hori oso berri ona da Arrasaterendako", esna zuen alkateak.

Adikzioen prebentzio plana

2020-2024 aldirako adikzioen prebentzio plana ere onartu zuen udalbatzak, EAJren eta PSE-EEren botoei esker. Hala ere, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos abstenitu egin ziren, 2008ko planaren berdina dela eta inbertsio gehiago behar direla argudiatuz. "Hutsune bat dago hor, herriak eskatzen duena. Herri honetan arazo larri bat dugu gai honekin eta ez da diru gehiago bideratuko horra", adierazi zuen Morrasek.

Garairen bajaren kudeaketaz

EH Bilduk, bestalde, Udal Gobernuari leporatu zion Ander Garai zinegotzia ia bi hilabete egon dela bajan –aita izan da–, eta, alkateak ordezkatu duen arren, "batzorde bat bera ere" ez dutela egin. "Kudeaketa oso txarra izan da", zioen Morrasek. Zinegotziak erantzun zion alkateak ondo ordezkatu duela bera, eta Udal Gobernuak "orain arte moduan" funtzionatu duela.

Mozioa ez zuten onartu

Elkarrekin Arrasate udal taldeak mozioa aurkeztu zuen, "hezkuntza publikoa defendatzeko eta ikasgeletara buelta segurua bermatzeko". Hainbat eskakizun egin zituzten: ratioak jaistea, irakasleen lantaldeak handitzea eta egonkortzea eta espazio zabalak sortzea. EH Bilduk bat egin zuen mozioarekin, baina Udal Gobernuak "lekuz kanpokotzat" jo zuen. Beraz, ez zuten onartu.

Grupo San Juanekin, tirabirak

Ekobulebar proiektuaren baitan Udal Gobernuak Grupo San Juanen egiteko asmoa duen eskuhartzearen gaia atera zuen EH Bilduk. "Bizilagunen gehiengoa ez dago ados arkua eraistearekin, Udal Gobernuak hala aitortu ez arren. Gainera, genero perspektiban oinarritu dira proiektua defendatzeko, eta oso larria iruditzen zaigu", esan zuen Morrasek.

Anuska Ezkurra Udal Gobernuaren bozeramaileak erantzun zion bizilagun ezberdinekin bilerak egiten ari direla eta haien artean ere iritzi kontrajarriak dituztela. "Guztien iritziak aintzat hartzen ari gara eta berriro ere bilduko gara haiekin. Adostasunera heltzea da asmoa. Gaur egun, proiektua idatzita dago, bai, baina ikusiko dugu zer gertatzen den", adierazi zuen.

URRIKO OSOKO BILKURA EGIN DUTE ASTEON; UZTAILEAN EGIN ZUTEN ORDURA ARTEKO AZKENA

Mantentze eta hobetze lanak egin dituzte Lapurdi kalean

Labaintzeko arriskua zegoela ikusi zuten bizilagunek, eta Udalari kexa aurkeztu zioten. Hori dela eta, tratamendu irristagaitza eman dio Udalak lurrari, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoen Sailaren bidez.

Lanok Tratamiento Antideslizante Ziur SL enpresak egin ditu eta 4.226,1 euroko kostua izan dute, BEZa barne.

Irailaren 24ean hasi zituzten lanak, eta martitzenean bukatu, lurrari bigarren produktu eskualdi bat emanda. Udalak azpimarratu duenez, Lapurdi kaleko lurra irristagaitza da orain, eta oinezkoentzat "askoz ere seguruagoa" dela baieztatu Victor Fuentes zinegotziak: "Batez ere, euria egiten duenetan". Halaber, barkamena eskatu die herritarrei, "lanek sortutako eragozpenengatik", baina "eskuhartze "oso garrantzitsua" izan dela azpimarratu du.

Udalak diruz lagundu du Santa Marinako plazaren eraberritzea

68.363 euroko dirulaguntza eman die jabekideen erkidegoei –bizilagunen jabetzakoa da eremua, baina erabilera publikoa du–. Obrei dagokienez, eraikinetako erdisotoan dauden garaje-lokalen estalkia konpondu dute eta inpermeabilizazio lanak ere egin dituzte. Erabilera publikoa duten eremu pribatuen zaintza sustatu gura dituela dio Udalak.

Maria Ubarretxena, Goiena telebistako 'Harira' saioan

Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan izango da datorren martitzenean, urriaren 13an. Egun horretan, bi aldiz egongo da elkarrizketa ikusteko aukera, 21:30ean eta 23:30ean. Saioan, Eneko Azkarate kazetariak herriko gai azpimarragarrienen gainean galdetuko dio alkateari. Modu horretan, gaurkotasuneko kontuak izango ditu berbagai: proiektuak, COVID-19a, udal aurrekontua, eta abar.

Harira saioaren denboraldi berriari hasiera emango dio Ubarretxenak, eta, Arrasatekoaren ostean, Debagoieneko bederatzi herrietako alkateak pasako dira Goienako platotik.

Herritarrek aukera izango dute parte hartzeko, galderak astelehena baino lehen bidalita: Whatsapp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (*berriak@goiena.eus*).

Eguaztenean eman zuten ekitaldiaren berri Arrasateko Udaleko Bizikidetza batzordeko kideek. IMANOL BELOKI

Iñaki Etxabe eta German Agirre omenduko dituzte

Arrasateko Udaleko Bizikidetza batzordeko kideek, Iñaki Etxaberen eta German Agirreren familiakoekin adostuta, oroimen eta aitortza ekitaldia egingo diete urriaren 16an, egubakoitza, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean hasita

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eguaztenean eman zuten oroimen eta aitortza ekitaldiaren berri Arrasateko Udaleko Bizikidetza batzordeko kideek. Esan behar da batzorde hori Udaleko alderdi politiko guztiek osatzen dutela. Hala, Aritz Murua –PSE-EE–, Anuska Ezkurra eta Maria Ubarretxena –EAJ–, Joseba Ezpeleta –EH Bildu– eta Igor Urizar –Elkarrekin Podemos– izan ziren aurkezpen ekitaldian.

Maria Ubarretxena alkateak egin zituen bozeramaile lanak, eta hauxe adierazi zuen: "Aurreko legealdian, Arrasateko Udalak memoria eta bizikidetza lantzeko bideari ekin zion. Udalean ordezkaritza politikoa zuten alderdien arteko elkarlanetik, 1936-2018 urteen bitartean gure herrian eta Arrasateko herritarrek pairaturiko indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen memoria berreskuratzeko pausoak eman ziren, bai eta biktima guztien oroimen eta aitortza bideari hasiera eman ere. Orain-goan, Arrasateko Udalak beste urrats bat egin nahi du bide honetan, motibazio politikozko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak diren Iñaki Etxabe Orobengoa eta German Agirre Irasuegi oroituz eta aitortuz".

1975eko urrian hil zituzten biak

Udalak *Memoria partekatu baterantz 1956-2018* txostenean jasota daukanez, Iñaki Etxabe Orobengoa 1975eko urriaren 5ean hil zuen Batallon Vasco Español erakundeak, Etxabe-Enea jatetxean. "Erasotzaileek Luis anaia ere hil nahi izan zuten, bertan baitzen une hartan, baina sukalde barruan gorde ahal izan zen", dio txostenak.

45 URTE DIRA BI OMENDUAK HIL ZITUZTENETIK, BATA URRIAREN 5EAN ETA BESTEA 12AN

Urte berean, urriaren 12an, German Agirre Irasuegi hil zuten, Legution, bere taxian. Txosten berean jasota dagoenez, Inkontrolatuak, hau da, eskuin muturreko kideak eta Estatuko segurtasun indarretako zenbait kide zituzten taldeak, izan ziren.

Ekitaldian, edukiera mugatua

COVID-19a dela eta, edukiera mugatua izango da ekitaldian. eta "segurtasun neurri oro bete beharko da". Beraz, osoko bilkuren aretoan udal talde politikoetako ordezkarientzako eta Iñaki Etxaberen eta German Agirreren senideendako tokia lehenetsi dute.

Hala ere, Udalak pantaila handi bat jarriko du Kulturaten, ekitaldia zuzenean jarraitu ahal izateko, eta arrasatearrei dei egin diete bertaratzeko eta familiei "gertutasuna" eskaintzeko. "Ekitaldiaren amaieran, Kulturaten bildutakoei ere gonbita egingo zaie Herriko Plazara gerturatzeko", gaineratu dute.

Bost brigada txiki sortuko ditu Udalak, enplegu planaren baitan

"COVID-19ra egokitutako" plana aurkeztu dute asteon, 665.328,37 euroko aurrekontua izango duena

E.A. ARRASATE

Zortzi lerroz dago osatuta enplegu plana: Udalak herriko langabeak kontratatzea interes publikoa duten proiektuak garatzeko (417.828,37 euro); Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatzeko dirulaguntzak (87.500 euro); titulatu berrien laneratzerako ekimenak (7.000 euro); enpresa berrien sorkuntzarako dirulaguntzak (35.000 euro); langabeentzako ikasteko dirulaguntzak (30.000 euro); ekonomia suspertzeko ekitaldiak, enplegu azoka (15.000 euro); ekintzailetzaren sustapena (23.000 euro); eta lanerako prestakuntza (50.000 euro).

Enplegu planak dakarren berritasuna da, Maria Ubarretxena alkatearen esanetan, herriko 30 langabe kontratatzeko deialdi bat aterako dutela. Hala, 2020an, era horretako 30 kontratu egitea aurreikusten dute, iaz baino %76,6 gehiago –2019an 17 kontratu egin zituzten–. Lanbideren bi programa desberdinez baliatuko da Udala enplegu sustapeneko kontratu horiek finantzatzeko. Batetik, 2020ko Enplegu Sustapeneko Toki Ekintzen deialdiaren bidez 28 kontratu egingo dira, eta bost brigada txiki sortu: baso-erreka langile taldea, herritarren laguntzaile taldea, COVID-19 garbiketa taldea, lorezaintza taldea eta pintoreen taldea.

Bestetik, 2020ko Gazteen Enplegua Sustatzeko deialdiaren bitartez, bi kontratu egingo dira: Turismo teknikaria eta euskaltegiko Moodle plataformako kudeatzailea.

Hainbat baldintza behar dira

Ezinbestekoa da 16 eta 30 urte bitarteko adina edukitzea, langabezian egotea eta Lanbiden eta Gazte Bermeko Sisteman inskribatuta egotea. Deialdien berri *Arrasate.eus* webgunean emango dute. "Jada lehen bi deialdiak atera ditugu eta, oraingoz, 140 izen-emate daude", dio alkateak. "Twitter bidez ere informatuko ditugu herritarrak", gaineratu du.

Elkarlana oinarri duen plana

Alkateak azpimarratu du eragile ezberdinekin elkarlanean osatutako plana dela: "Eragile horien guztien irizpideak oso inportanteak dira guretzat". Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Gizonezkoentzako herriak

Gizadiaren historian, gizonen ikuspuntuarekin eraiki izan dira herri eta hiriak. Sekula ez da kontuan izan genero ikuspegia plazak, pasabideak eta parkeak diseinatzerakoan. Udal erabaki guztiak ere gizonezkoek hartu izan dituzte beti. Esanguratsua da 1260an Arrasateko hiribildua sortu zenetik 2007ra arte alkate guztiak gizonak izan direla. XXI. gizaldian, ordea, hirigintzara ere heldu da genero ikuspegia txertatzeko garaia. Emakume eta gizonek ez dute espazio publikoaren erabilera bera egiten, argi dago. Erosketak edo ume eta nagusien zaintza gehienbat emakumeek egiten dute. Zer esanik ez, kalean biolentzia eta jazarpen fisikoa sufritzeko arriskuaren harira. Beraz, garaia da Arrasateko kale eta plazak irisgarriago eta seguruago egiteko, ikuspuntu berri honekin; argiteria hobetuz, kota diferentziak deuseztatuz eta puntu beltzak desagerraraziz. Jakin arren, genero ikuspegi hau txertatzearen aurkako erreakzioak sortuko direla hirigintzan gizonezkoen supremazia dudan jartzen dela sentitzen dutenenengandik, Alfontso X Jakintsua plazako sarrera belzten duen arkuaren eraisketaren aurkako erreakzioa kasu.

Arkauz, erdian, senideekin, eguaztenean egindako manifestazioaren ondoren. JOKIN BEREZIARTUA

Arkauz: "Sorpresaz eta harriduraz hartu nuen"

Kepa Arkauz euskal preso ohi arrasatearrak aitortu du ez zuela espero asteleheneko atxiloketa: "Hamar urteren ostean, horrelako gauza bat atera eta eskolara etortzeak harritu egin ninduen; Guardia Zibilaren plaka ikustean, okerrena pentsatu nuen", dio

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasatearrak eskerrak eman gura izan dizkie aste honetan berari, familiari eta gertukoei emandako babes guztiagatik. "Albiste pozgarria da Ekhiñe, Imanol eta ni Euskal Herrira bueltan egotea, baina argitu gura dut baldintzapean utzi gaituztela aske, epaiketa baten zain, eta berriro joan beharko dugula Madrilera, ez dakigu noiz", gaineratu du. Hala, pasaportea epaitegian entregatu beharko du astebete baino lehenago. "Horrek dakar Espainiako Estatutik ezin naizela irten. Horrez gain, astero joan behar dut epaitegira, sinatzera, eta, hara joateko esaten badidate, joan egin behar dut, prest egon behar dut", adierazi du.

"Katramilatuta jarraitzen dute"

Arkauzek "iraganeko testuinguru batean" kokatu du operazioa: "Batzuk bakearen alde borrokan ari garen bitartean, argi ikusten da beste batzuek bakea urrun daukatela eta katramilatuta daudela Euskal Herriaren kontra, hamarkada batzuk atzera egin eta lehengo egoerara bueltatu nahian. Hala ere, guk gure bidea egin behar dugu, nahiz eta halako operazioak etorri daitezkeen berriro".

"Etxe guztia miatu zuten"

Aitortu du "okerrena" pentsatu zuela eskolan lanean ari zela Guardia Zibilaren plaka ikusi zuenean. "Txipa aldatu behar izan nuen. Miaketa luze joan zen, etxe guztia goitik behera miatu zuten hainbat orduz eta handik Oñatira eraman ninduten; Oñatitik Donostiara, Intxaurrondora, eta handik Madrilera, Tres Cantosera", gaineratu du.

Mobilizazioak, hiru egunetan

Astelehenean, atxiloketa egunean bertan, elkarretaratzea egin zuten Seber Altuben eta martitzenean eta eguaztenean, manifestazioa, *Kartzelak husteko garaia da!* lelopean. Eguaztenekoaren bukaerarako iritsi zen Arkauz.

BALDINTZAPEAN ASKE DAGO: PASAPORTEA ENTREGATU BEHARKO DU, ETA ASTERO EPAITEGIAN SINATU

Kepa Arkauz, Arrasateko etxetik irteten, atxilotuta. IMANOL SORIANO

Astelehenean izan ziren atxiloketak

Gasteizen, eskolan lanean ari zela, atxilotu zuten arrasatearra, "ETAren arma biltegi baten arduradun izatea" egotzita, eta Ekhiñe Eizagirre eta Imanol Jaio ere atxilotu zituzten operazio berean.

Biltegia 2019ko ekainean aurkitu zuten, Arabako Arraia-Maeztu udalerrian, Atauri kontzejuan. "Biltegi horretan, askotariko lehergailuak, tenporizadoreak eta detonatzaileak aurkitu ziren, besteak beste. Bizilagun batek, paseoan zebilela, aurkitu zuen biltegia", azaldu zuen Guardia Zibilak. Gaineratu zuen hiru atxilotuak *Ezpala* komandoaren parte izan zirela bere garaian. "2008 eta 2010 artean egon zen aktibo komando hori, eta ETAren *Donosti gune*-aren parte ziren".

Atxiloketaren eta miaketaren ostean, Tres Cantosera eraman zituzten eta eguaztenean pasatu ziren epailearen aurretik.

Sutea izan da San Josepen

Astelehenean, San Josepeko (San Andres) lau etxebizitza dituen baserria erabat kiskali zen.

Martitzeneko osoko bilkuran Anuska Ezkurra Udal Gobernuaren bozeramaileak azaldu zuenez, gizarte zerbitzuak kaltetuekin kontaktuan daude. "Gaiaren gainean gaude, familia unitate bakoitzari alternatiba bat eskaintzeko", azaldu zuen.



IMANOL BELOKI

Dokumentala eta solasaldia, eguenean, Kulturaten

Malen Etxea. zaintzaren esklabo dokumentala ikusteko aukera egongo da urriaren 15ean, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian, Emakume Txokoak antolatuta. Silvia Carrizo izango da hizlaria, Malen Etxea-ko kidea. Emakume migratzaileen giza eskubideen eta berdintasunaren alde lan egiten duen elkartea da Malen Etxea.

OHARRAK

Sasoibideren irteera

Urriaren 15ean, Sasoibidek antolatuta, Etxezarretara irteera egingo dute, 10:00etan Biteri plazatik irtenda.

Nitxoen ateratzea

San Kristobalgo hilerriko nitxoetan 2010. urtean lurperatu ziren hildakoen gorpuzkiak aterako ditu Arrasateko Udalak 2021eko otsailaren 1etik aurrera.

"Pandemiak bazterkeria egoerak areagotu ditu"

LEIRE GARCIA GIZARTE HEZITZAILEA

Laguntza gehien behar duten pertsonei majo sufritzea tokatu zaie oraingo krisian ere. Leire Garciaren lana, gizarte hezitzaile gisa, kolektibo horien gabeziak asetzea da

Hasier Larrea ARRASATE

Gizarte hezitzaileek egiten duten lana mahai gaineratzeko asmoz, urriaren 2an Gizarte Hezitzaileen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Debagoienean badira hainbat erakunde behar gehien duten pertsonen interbentzio hezitzaile eta sozialera dedikatzen direnak; horietako bat da Arrasaten finkatuta dagoen Kalexka kolektiboa. Bertan jarduten du Leire Garciak, eta lanbide "berri eta ikusezin" horren nondik norakoak azaldu ditu, ahoan bilorik gabe.

Leire Garcia, urriaren 5eko *Hemen Debagoiena* saioan. IBAI ZABALA

Gizarteak ba al daki zer egiten duen gizarte hezitzaile batek?

Nik uste dut jendeak oro har beste lanbide batzuekin nahasten duela gizarte hezitzaile baten egitekoa. Normala da, nahiko lanbide berria delako. Gure lana pertsonei harreman osasuntsuak sortzen laguntzea da. Bizi egitura finkoa garatzeko baliabideak eskaintzen ditugu, norberaren alderdi pertsonala hobetu eta zaitasunak gainditzeko.

Zein esparrutan egiten duzue lan?

Sektore askotan aritzen gara. Alde batetik daude gizarte zerbitzuak. Baliabideak nork jartzen dituen arabera, Udaleko eta Foru Aldundiko gizarte zerbitzuak bereiz ditzakegu. Era berean, familia eta adin txikikoekin esku hartzeak eta helduekin akonpainamenduak egiten ditugu. Kale hezitzaileok aisialdi ekintzak antolatzen ere ibiltzen gara. Osasunari dagokionez, kanpaina ugari egiten ditugu: drogen kontsumoaren prebentzioarekin lotutakoak, sexualitatearen eta *bullying*-aren ingurukoak, eta abar. Ludoteketan zein gaztelekuetan gure presentzia edukitzen saiatzen gara, gazteen ohitura osasuntsuetan eragiteko.

Heziketa adin talde guztietara zabaltzen duzue beraz?

Bai; beharra duen edonork jaso ditzake gure zerbitzuak. Garrantzitsua da erabiltzaileen gabeziak ahalik eta azkarren antzematea; bideragarriagoa da arazo bati haurtzaroan erantzuten hastea, gerora konplexuago bilaka daiteke eta.

"GIZARTEAK EZ DIO OFIZIO HONI MEREZI DUEN AITORTZARIK EMATEN, IKUSEZINAK GARELAKOAN NAGO

Zuen lanean pertsona desberdin askok parte hartzen dute?

Noski; hor daude gizarte langileak eta gizarte integratzaileak ere. Lehenengoak beste gestio mota batzuetaz arduratzen dira, eta bigarrenek gure antzeko lana burutzen dute, baina kategoria kontuengatik gaude desberdinduta. Gizarte hezitzaile batek unibertsitate gradua atera behar du, eta gizarte integratzaile batek goi mailako zikloa.

Arrasaten bakarrik ez, beste herri batzuetan ere aritzen zarete.

Bai; Kalexkako langileak Aretxabaletan egoten gara gazteekin, eta Bergaran helduekin. Eibarren, Zumaian eta Mutrikun ere esku hartzen dugu. Herri guztietan daude behar bereziak, Arrasate ez da salbuespena.

Nola eragin du pandemiak zuen eragin esparruan?

Bazterkeria egoeran dauden pertsonek nabarmen sufritu dute osasun krisia dela eta. Sektore gehienetan bezala, gizarte hezitzaileok lan egiteko modua aldatu behar izan dugu. Gertukotasunaren kaltetan, telefonoz eta Internet bidez mantendu behar izan dugu harremana erabiltzaileekin. Eskaintzen ditugun zerbitzu ugari ere itxi behar izan ditugu, bitartekaritza lanak, adibidez, bulego eta arreta zerbitzu askok funtzionatzeari utzi diotelako. Edonola ere, beharra duten pertsonekin kontaktua izaten jarraitu dugu.

Aurreikusi gabeko lan horrek aitortzarik jaso al du?

Nik uste dut gure lana nahiko ikusezina izan dela; sentsazio hori daukat, behintzat.

Kolektibo gisa, zer aldarrikatzen duzue gizarte hezitzaileok?

Gustatuko litzaiguke gizartearengandik ofizio honek merezi duen aitortza jasotzea. Komunikabideetan agertzeak mesede egiten digu, zalantzarik gabe.

Juan Arzamendi Musika Etxearen obrak. H.L.

Juan Arzamendiko obrei 2021 amaieran berrekingo diete

Musika Etxea eraikitzeko lanei dagokien 239.777 euroko abala bereganatzea lortu du Udalak

H.L. ARRASATE

Lurgoien SAU enpresari esleitu zitzaion obra hilabete luzez geldi egon eta gero, Udalak eraikuntza enpresa horrek ezarritako abala bereganatzea lortu du: 239.776,54 euro. Kopuru hori bideratuko da obra eten, proiektua berriro abian jarri eta bitarte horretan eraikinean hartu behar izan diren segurtasun neurriak finantzatzera.

Arrasateko Udalak apirilean eten zuen kontratua Lurgoien SAU enpresarekin, arazo ekonomikoak zirela-eta proiektua aurrera ateratzeko ezintasunagatik. Ondoren, proiektua berriro abian jartzeko lanei ekin zien Udalak, eta gauzatu gabe geratu zen obraren idazketa lizitaziora atera zuen, lehiaketa publiko bidez. Enpresa esleipendunak bi hilabeteko epea izango du amaitzeko dauden obrak zehazteko, eta Udalak berreskuratu berri duen bermetik 54.964,25 euro bideratuko ditu honetara.

Bukatzeke dagoen obra-zatia dokumentu tekniko batean zehaztu ondoren, Udalak lehiaketara aterako du egiteke dagoen zatiaren obra.

Udalaren konpromisoa

Obrak amaitzeko aurreikusitako epeak atzeratuko diren arren, "kulturaren eta sormenaren aldeko apustuan konpromiso irmoa" duela berretsi du Udal Gobernuak. Behin aurrez aipatutako prozedura epeak beteta, euren "ildo estrategiko nagusienetako bat den proiektu honen eraikuntza" 2021eko bigarren seihilekoan berrabiaraziko dela kalkulatu du Udalak.

Arrasate Musikalen eta Goikobaluren egoitza berria izango da Juan Arzamendi Musika Etxea. Auditoriuma eta administrazio-gunea ere edukiko ditu.

Auto elektrikoa jarri du Udalak, langileek erabil dezaten

Arrasateko Udalak 12.640 euro inbertitu ditu, BEZa kontutan hartu gabe, bigarren eskuko auto elektrikoa erosteko. Ibilgailu zahar bat ordezkatuko du, "efizientzia eta energia aurrezteko", adierazi du Udal Zerbitzu Sailak. Hala, ibilgailuak dituen autonomia eta errekarga baldintzak aprobetxatu nahi ditu Udalak, zerbitzuaren onerako.

LED argiak jarriko dituzte Musakolako erretiratuen plazan

Argiztapena "hobetu eta jasangarriago" bilakatzeko helburuarekin, 10 metroko farola bat ordeztu eta lau proiektore ipiniko dituzte udal langileek. Musakolako lan horien aurrekontua 6.025,80 eurokoa izango da –BEZa barne–. Egun Arrasaten dauden 4.000 argi puntuetatik 2.600 LED dira. Kontsumoa %88 aurreztea ekartzen du argiteria mota honek.

Arrasate Rugby Taldearen Senior mailako emakumezkoen talde berria. H.L.

Puntuak eman dituen entsegua

Aspalditik zeukan ideia gauzatu du Arrasate Rugby Taldeak (ART): maila guztietan ordezkaritza edukitzea. 16 urtetik gorako nesken taldea sortu dute denboraldi berri honetan. Hemendik aurrera, formakuntzan sakondu eta lehiarako prestatuko dira

Hasier Larrea ARRASATE

Errugbiak gainontzeko kiroletatik bereizten duen zerbait badu inklusioa da. Ezaugarri fisiko orori zabaltzen dizkio ateak: jokalari arinek hegalerako balio dute, astunagoek barne jokorako. Txikia nahiz handia izan, errugbian jokatu nahi duenak beti izango du bere tokia zelaian. Balio hauek bizitzarako balio dutela jakitun, ARTko zuzendaritza batzordea misio argi baten atzetik dabil azken urteetan: interesa duen orori kirol hau praktikatzeko ateak zabaltzea. Horren harira, gabezia handi bati erantzuteko lanak hartu dituzte 2020an zehar, eta neska talde propioa sortzeko lehen urratsak bere fruitua ematen hasi dira.

Egungo testuinguruari erantzuten dion saiakera egin dute, gainera, Julen Barrutia ARTko kirol zuzendariak adierazi duenez: "Euskal errugbi talde gehienek daukate emakumezko ordezkaritza; Estatu mailan ere pauso handiak ematen ari dira klubak generoari dagokionez". Gauzak ondo eginda Arrasaten taldea sortzea posible zela ikusi zuten klubeko arduradunek. "Bailaran badago afizioa errugbiari dagokionez, eta ikasketak burutzera datozen gazte askok ere erakusten dute irrika", nabarmendu du Barrutiak.

Urtarrilean Mojategiko instalazioetara hurbildu ziren ikasle horietako batzuek jarri zuten lehen harria. Lau neska kirolari agertu ziren gizonezkoen entrenamendura, eta bitan pentsatu gabe jarri ziren haiekin entrenatzen. Hori gutxi ez, eta emakumezko taldea sortu nahi zutela jakinarazi zioten klubari. Bi aldeen prestutasunari esker zabaldu zen mezua bailaran zehar, martxo eta irail artean. Hil haren hasieran ekin zioten lan-saioei, eta dagoeneko sei entrenamendu burutu dituzte.

BAILARAKOEK ETA KANPOTIK IKASTERA DATOZEN EMAKUMEEK OSATZEN DUTE ERRUGBI TALDEA

Batez beste, hogei lagun elkartzen dira astelehen eta asteazken iluntzeetan herriko errugbi zelaian, Julen Barrutiaren eta Erik Cuevasen esanetara. "Oraingoz, guk entrenatzen ditugu, baina ideia da aurrera begira bi prestatzaile egoki arduratzea talde honetaz", aipatu du ARTko kirol zuzendariak. Behin oinarrizko kontzeptuak eurenganatuta, Euskal Ligan lehiatzea da klubaren ametsa, "baina hori nesken gogoaren araberakoa izango da".

Historiarekin zorra kitatu dute

Ez da lehen aldia Arrasatek emakumezko errugbi taldea daukana. Hamarkadak pasa dira Garagartzako zelai naturalean gizon eta emakume taldeak elkarbizitzan aritzen zirenetik. Mojategiko zelai artifiziala ere zapaldu zuten bi denboraldiz herriko neska errugbizaleek, 2007 eta 2009 artean. Hamar urte baino gehiago igaro diren arren, bueltan dira berriz, eta ez dirudi oharkabean pasa nahi dutenik.

LAN-SAIOAK IRAILEAN HASI ZIRENETIK, "ESPERO GABEKO ERANTZUNA" EMAN DUTE GAZTEEK

Harrobiari hauspoa ere emango diote kirolariek, 16 urtez azpiko talde mistoetan aritzen diren neskek aukera izango dute-eta euren ibilbidea herrian bertan garatzeko. Oztopoak eraisten jarraituko dutela, alegia.

Nolatan hasi zarete errugbian?



OLATZ OROKIETA
20 URTEKO DEUSTUARRA

"Huhezira etorri nintzenean, eskaladan apuntatu nintzen. Gero, unibertsitateko kirol zerbitzuarekin jarri ginen harremanetan lagun bat eta biok, ea errugbian aritzeko aukerarik ba ote zegoen, eta hona bidali gintuzten. Hasieran, mutilekin entrenatzen ginen. Talde kirola izateak on egin dit, giro aparta dago hemen".

MALEN ARANA
18 URTEKO ARRASATEARRA

"Neska taldea sortu zela esan zidatenean, probatzera etorri nintzen, halako zerbait egiteko gogoa neukan. Oraindik askorik sakondu ez dugun arren, oso ondo pasatzen dugu. Guztiok motibatuta gaude, aurrera begira zerbait polita atera daitekeelakoan nago. Lau entrenamendutan nabaritu dut hobekuntzarik".

AIA IRASTORZA
19 URTEKO HENDAIARRA

"Batxilergoan errugbia praktikatu genuen pare bat aldiz. Joan den urtean, boleibol taldean aritu nintzen, unibertsitatean, eta galdetu genuen ea errugbian ere taldea sor zitekeen. Entrenatzaileak esaten digu ondo ari garela, nahiz eta badakigun hobetzeko asko dugula. Ea noizbait partidak jokatzen ditugun!".

EIDER URAIN
19 URTEKO ORIOTARRA

"Konfinamendu aurretik, lau katu etortzen ginen hona, eta orain, 21 lagun elkartzen gara. Klubeko arduradunek lan handia egin dute bilakaera hori lortzeko: elkarren artean batzarrak egin, ahoz ahokoa sustatu... Poliki-poliki bailarako neskak animatzen joan dira, ikusi dugu gogoa bazegoela talde hau sortzeko".



Frankenstein doktorearen laborategia. ANA GALARRAGA

Zientziarekiko jakin-mina pizteko esperimentua

'Frankenstein berpiztuko balitz' ipuin kontaketa eskainiko die gaztetxoei Ana Galarraga Elhuyar Fundazioko zientzialariak, bi saio desberdinetan. Santa Marinako bibliotekan izango da bata, urriaren 14an, eta Kulturaten bestea, urriaren 22an

Hasier Larrea ARRASATE

Frankenstein izenez baino gehiago, *izaki beldurgarri* edo *munstro* izenez izendatzen zuen Mary Shelley idazle ingelesak bere eleberriko protagonista. Ondoren etorriko ziren komiki edo zinema egokitzapenek jarri zioten Frankenstein izena, honi bizia eman zion zientzialaria hala deitzen zelako. Sortzailea bera izan zen gizarteak *munstroa* gaiztotzat jotzearen arduradun nagusia, desberdina izateagatik abandonatu eta, ondorioz, jendea hiltzera eraman zuelako. Pertsonaiak, berez, bizitza normala egin nahi zuen, familia eta bikotekidea izan, baina ukatu egin zitzaizkion.

Eleberria sortu eta bi mende geroago, ikerketa berezia egin zuten Kaliforniako Unibertsitatean, galdera batetik abiatuta: *Zer gertatuko litzateke Frankenstein berpiztuko balitz?* Munstroa izaki arrunt bezala hartu izan balute eleberria nolakoa izango zatekeen kalkulatu zuten ikerlariek txostenean. Ikerketa horretako ondorioak jakin badakizki Ana Galarragak, eta ipuin kontaketa bidez azaltzen dizkie 6 eta 12 urte arteko neska-mutilei. Asmo horrekin eta gehiagorekin etorriko da Arrasatera. "Gai ugariri buruz daukaten iritzia entzun nahi diet gazteei. *Bullying*-ari, etikari, gaizkiari eta ongiari edota feminismoari buruzko esperimentuak egitera bultzatzen ditut horretarako", argitu du Galarragak.

Leherketa ikusgarriekin baino gehiago, mezu bat ezkutatzen duten ekintza txikiekin lotzen du esperimentazioa ipuin kontalariak: "Esperimentu bat inoiz ez da gaizki ateratzen; alderantziz, prozesua beste era batera egiteko pistak ematen ditu". Haurrek zientziarekiko jakin-mina eta gogoa izan dezaten zirikatzen ditu, beraz, jarrera pentsakorra eta aktiboa garatze aldera.

'BULLYING'-A, ETIKA ETA FEMINISMOA LANTZEN DITUZTE IPUIN KONTAKETEK, GOGOETA PIZTEKO

Santa Marinako bibliotekan aurkeztuko du tailer didaktikoa Ana Galarragak, datorren asteazkenean, hilak 14, 19:00etan. Bertaratzerik ez dutenek, baina, urriaren 22an ere izango dute zientzia erakustaldia jarraitzeko aukera.

Mari Kalanbreren sortzailea

Irria aldizkaria sortu zenetik, Mari Kalanbreren atala idatzi izan du dibulgatzaileak. Lagun taldearen garrantzia, ikuspegi berdinzalea, adinekoen esperientziaren balioa eta halakoak landu ditu ipuin sorta horietan; gaztetxoenen heziketan badu ezagutzarik, beraz, zarauztarrak. "Irekita nago, gogoa daukat haurrek zer pentsatzen duten jakiteko, inoiz ez baitakizu nondik aterako diren", dio. Zientziak ere ezin jakin hori.

Gau beltza film laburra. LABURBIRA

Laburbira film laburren zirkuitua urriaren 14an aurkeztuko dute

Kulturateko areto nagusian euskarazko bederatzi film labur proiektatuko dituzte, 19:00etan hasita

H.L. ARRASATE

Euskaltzaleen Topaguneak sustatzen duen Laburbira film laburren zirkuituak hamazazpigarren edizioa du, eta Arrasatera iritsiko da datorren asteazkenean, hilak 14, 19:00etan hasita. Joan den martxoan egin behar zuten aurkezpena Kulturateko areto nagusian, baina koronabirusak emanaldia zazpi hilabetez atzeratzea ekarri du.

27 lan aurkeztu ziren, guztira, eta horietatik bederatzi sartu dituzte bilduman: *Gau beltza* (Euskaltzaleen Topagunea); *Urak dakarrena* (Marilin taldea); *Anti* (Josu Martinez); *Tigre bat* (Amaia San Sebastian); *Pil pil* (Kristina Zorita); *Mamarro* (Ibon Iza Totorika); *Kateak* (Yolanda Mazkiaran); *Jauzi bat eta Prixt* (Maitane Eyheramonho); eta *Harria herria* (Dimegaz Kultur elkartea). Aurten ez da animaziozko filmik aukeratu; hezurharagizko pertsonaiaz osatutako lanak egongo dira ikusgai, beraz.

Topaguneak adierazi duenez, azpimarratzekoa da bildumako film gehienak, sei, orotara, emakumeek egindakoak direla. Gainera, sariren bat jaso duen proiekturik ere badago bertan: Lekeitioko XV. Kameratoia irabazi zuen *Urak dakarrena,* esate baterako.

2019 oparoa

Joan den urtea oso emankorra izan zen ikus-entzunezko produktuei dagokienez, eta Euskal Herrian ere izan du horrek eraginik. Laburbirako antolatzaile Johana Olabarriaren esanetan, "aurreko denboraldiak argi erakusten du euskarazko lanen kalitatearen gorakada, eta, beste urte batez, Laburbira honen erakusgarri izango da". Ikusleak bere oniritzia ematea besterik ez da falta orain.

Victimas Club taldeak joko du hurrengo Kooltur Ostegunetan

Esperientzia handiko rockerrak batu dira soinu akustikotik gertuago dagoen proiektu berri horretan. Tartean daude Sumision City Blues taldeko partaideak, baita Jon Zubiaga *Osoron* arrasatearra ere. Kooltur Ekintzak denboraldi honetan eskainiko duen bigarren kontzertu hori ostegunean izango da, hilak 15, 22:00etan hasita.

Puro Relajoren kontzertu bikoitza urriaren 17an

Ibai-artek berriro ekarriko du Nafarroako taldea, Mexikoko mariatxiak zein euskal kanta tradizionalak gustuko dituenaren mesederako. Lehen emanaldia 13:00etan izango da; bigarrena, berriz, 19:00etan. Biak, Herriko Plazan. Doako sarrera gutxi batzuk gelditzen dira oraindik merkatari elkartearen webgunean.

Aramaioko bi taldeak, urtarrilaren 24an Aramaion jokatutako saioan. 'BERTSOZALE.EUS'

Aramaioko bertsolariak festaren parte izango dira

Arabako kuadrilla arteko eta eskolarteko finalak jokatuko dituzte bihar, Murgian; Aramaioko bi talde finalean izango dira. Segurtasun kontuengatik nahiko luketen besteko festa izango ez den arren, bertsoaz gozatzeko aukera egongo da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako bertsozaleek bertsoaz gozatzeko eguna izango dute bihar, Murgian. Arabako kuadrilla arteko finala jokatuko dute, eta baita eskolarteko finala ere. Bertsoaren inguruko egun handian, aramaioarrek presentzia nabarmena izango dute. Izan ere, finaleko hiru taldeetatik bi aramaioarrak izango dira: Izenbakuek eta Konde Basoko Iluek. Eskolarteko finalean sei bertsolarik kantatuko dute; tartean izango dira Aramaioko Aitor Ugarte, Danel Herrarte eta Gari Arexolaleiba.

Urte zelebreari amaiera ona

Urtarrilean hasi zuten kuadrilla arteko txapelketa. Lehenengo, kanporaketak jokatu zituzten: guztira, hamabi saio; ondoren, finalaurrekoak: hiru saio. Izenbakuek taldeak –Peru Abarrategi, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Danel Herrarte– martxoaren 7an Aramaion jokatu zen finalaurrekoan lortu zuen finalerako txartela. "Urte oso zelebrea izan da. Finala zapatuan izango da, eta, egia esan, ez da erraza irudikatzea finala. Saio berezia izango da. Martxoan txapelketa bertan behera geratu zenetik denok dakigu zelan ibili garen. Egia da bertso saioak ez direla izan gehien sufritu duten kultur adierazpenak", azaldu du Manex Agirre bertsolariak.

Taldean jokatzen den txapelketa izanda, bakarka ibiltzea baino erosoagoa dela dio Agirrek: "Beste emozio batzuk batzen dira. Preparatzeko modua ere ezberdina da. Taldeka egiten ditugu ariketak, erabakiak taldean hartzen dira, saiora zelan joan erabakitzen da... egia da bakarka joatea baino erosoagoa dela". Taldeen artean sortzen den giroa ere berezia izaten da, eta, kasu honetan, bi talde Aramaiokoak izanda, lehia sano hori nabaritu egingo da oholtza gainean.

Zazpi hilabeteko geldialdiaren ondoren, irailaren 26an Amurrion jokatu zuten finalaurrekoan lortu zuen Konde Basoko Iluek taldeak finalerako txartela. Xabi Igoak, Paula Amilburuk, Aitor Ugartek eta Martin Abarrategik osatzen dute Aramaioko bigarren talde hori.

Harro egoteko moduan daude

Aramaion bertso zaletasun handia dagoela eta bertsolari handiak daudela argi ikusiko da biharko festa handian: "Zaletasun horren erruduna, hein handi batean, bertso eskola da, eta han pilatzen den jendea. Gure giro propioa sortu dugu". Biharko finalez gain, Arabako bertsolari txapelketan ere aramaioarrek egin izan duten lana nabarmentzeko modukoa da: "Herrian egiten den lanaren emaitza da. Nolabaiteko poztasuna ematen du, egiten denaren saria dela esan daiteke".

Sarrerak non erosi

Finalera begira jarrita, jendea gogotsu ikusten du Agirrek: "Kontuan hartu behar da finala lehiaketa bat dela eta talde guztiak ahal dugun ondoen egitera joango garela". Kanpoan geratu direnak ere gogoan, ahalegin berezia egingo dute bertsolariek biharko saioa borobila izateko.

Bihar jokatuko den finalerako sarrerak *Bertsosarrerak.eus* atarian eros daitezke, bihar arte, 12:00ak arte. Saioaren egunean sarrerarik geratuko balitz, txarteldegian salduko lituzkete, 16:00etatik aurrera. Bazkideendako, eta 8 eta 16 urte bitartekoendako sarrerak 4 eurotan daude salgai; gainontzekoendako, 6 eurotan. Murgiako Palatu kirol eremuan izango dira finalak. Gaztetxoen finala 12:00etan izango da; nagusiena, 17:00etan.

Bertso eskolan izena eman

Bertso eskolan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. "Dagoeneko osatu ditugu taldeak, baina zabalik gaude jende gehiago hartzeko. Aurten ere hiru talde osatu ditugu: gazteak, gaztetxoak eta umeak. Gainera, txikienen taldean lau ume barri izango ditugu", dio Agirrek. Protokoloa prestatzen dihardutela dio, eta gaur bertan ez badute lehenengo entsegua egiten, datorren astean eskolak hasteko moduan egongo direla gaineratu du Agirrek. Hala, badirudi Aramaioko bertso eskolak baduela etorkizuna.

FINALERAKO TXARTELAK INTERNET BIDEZ EROS DAITEZKE, ETA EGUNEAN BERTAN TXARTELDEGIAN

Paco Izaga hil da, Aramaioko azken errementaria izan dena

Pertsona ezaguna izan da Izaga Aramaion; azken errementeria izateaz gain, abesbatzan kantatu zuen

A.E. ARAMAIO

Aramaion izan den azken errementaria zen Paco Izaga Peñagarikano. 1928ko urriaren 4an jaio zen, eta joan den astean, urriaren 1ean, hil zen, 92 urte betetzear zela.

Pertsona ezaguna zen herrian Izaga; batez ere, errementari moduan zen ezaguna. Aramaion egon den azken ola-gizona izan da. 15 urtez jardun zuen errementari lanetan, 1943tik 1958ra bitartean. Benito Oar errementaria zenarekin ikasi eta lan egin zuen, Ibargoia kaleko 31. zenbakian zegoen errementerian. 1968an itxi zituen ateak Ibargoia kaleko tailerrak. 15 urtez errementari lan egin ondoren, berriz, Zerrajerara joan zen lanera Paco Izaga.

Errementaria izateaz gain, herriko beste zenbait saltsatan sartuta egoteagatik ere bazen ezaguna Izagan. Musika oso gustuko zuen, eta Bizente Goikoetxea abesbatzan kantatu zuen hainbat urtez.

Pako Izaga Peñagarikano.

Arrimikilleta inguruko basoa lehiaketa publikora atera dute

Aramaioko Udalak Arrimikilleta inguruko baso aprobetxamendua lehiaketa publikora atera du. Jabetza publikoko lurretan aparteko zur aprobetxamendua besterentzea da helburua. Interesa duenak Udalean egin beharko du eskaera urriaren 16a baino lehen. Esleipen irizpideen artean preziorik onena aurkeztea kontuan hartuko dute.

2018ko irabazleak nagusien mailan. GOIENA

Udalerriko txokoak margolanetan irudikatuz

Astelehenean, urriaren 12an, kaleko margo lehiaketa egingo dute Aramaion. Edonork parte har dezake lehiaketan; teknika eta estiloa librea izango dira. Bi kategoriatan banatuko dituzte parte hartzaileak: 16 urtetik gorakoak eta 16 urtera artekoak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Urteroko hitzorduari eutsiko diote Aramaion pinturazaleek. Udalak antolatuta, kaleko margo lehiaketa egingo dute, 29. aldiz. Astelehenean izango da, urriaren 12an.

Materiala eraman behar da

Lehiaketan parte hartzeko aukera edonork izango du; hori bai, norberak eraman beharko ditu margotzeko beharrezkoak diren material guztiak.

Lanak egiteko euskarriak Sastiña ermitan zigilatuko dituzte, astelehenean bertan, 09:00etik 11:00etara bitartean. Kalean, aire zabalean margotu beharko dira obrak lehiaketa egunean bertan. Aramaioko udalerrian egin beharko dira margolanak, eta, horrez gain, herriko irudietan oinarritu beharko dira. "Garai batean, Iturzuri emakume elkarteak antolatzen zuen pintura lehiaketa; baina, azkeneko urteetan, Udalak hartu du horren ardura, emakumeen laguntzarekin", azaldu du Itxaso Aspiazuk, Kultura teknikariak.

Lanak, 14:00etarako amaituta

Aramaioko udalerrian egin beharko dituzte lanak: "Ez dago leku kuttunik; egia esan, margolariak herri guztian zehar eta auzoetan banatzen dira". Behin margolanak amaituta, Sastiñan aurkeztu beharko dituzte, sinatu barik, 14:00ak baino lehen.

Margolari asko erakartzen duen lehiaketa izaten da Aramaiokoa: Euskal Herritik kanpoko margolariek ere parte hartzen dute.

Teknika librea izango da

Teknika librea izango da: akuarela, olio-pintura, ikatz-marrazkiak... nahi dutena egin dezakete margolariek.

PARTE HARTZAILEEKIN EGIN IZAN DUTEN BAZKARIA AURTEN EZ DUTE EGINGO, OSASUN EGOERAGATIK

Epaimahaiak 18:00etarako esango ditu irabazleen izenak. "Aurten, aldaketa txiki batzuk izango ditugu, osasun egoera nolakoa den kontuan hartuta. Sari banaketa bi txandatan egingo dugu: 18:00etan umeena izango da eta 18:30ean, nagusiena. Gainera, udaletxean egingo dugu sari banaketa, Sastiñan egin beharrean", azaldu du Kultura teknikariak. Horrez gain, margolariekin urtero egin ohi izan duten bazkaririk ez dute eskainiko aurten.

Sariak bi kategoriatan banatuko dituzte: 16 urtetik gorakoetan, lehenengo sailkatuak 700 euro irabaziko ditu; bigarrenak 500 euro eta hirugarrenak 400 euro. Lehenengo aramaioarrak 150 euro eramango ditu. 16 urtetik beherakoen kategorian, 150 euroko txartela irabaziko du pintura materialetarako; bigarrenak, 100 eurokoa; eta hirugarrenak, 50 eurokoa.

NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

Aitortuko dut

Euskara batuan idazten dut, nire euskalkian ez dakidalako. Listo. Bota dut. Baina egia da. Ez gaizki ulertu, agendaz eta telefonoaz aparte ari naiz. "Edozein euskalki idatzi daiteke, baina ondo egiten bada", esan zidaten behin, eta horrela agurtu nituen ideia iraultzaileak eta bueltatu nintzen estandarrera. Gogoko ditut hizkuntzetan arauak, itsasoa *ts*-rekin idatzita ikusita disfrutatzen dut, eta *ereserki* hitzak ez du hatxerik –*hatxe* hitza erabili dut gaur nire bizitzan lehenengoz–; *leun*-ek ere ez.

Egia esaten jarraitzeko, esango dut plazera ematen didala hitz bat zuzentzeak, esaldiak ordenatzeak, boligrafo gorria gastatzeak. Emadazu irakasleak astearterako eskatu duen idazlana eta datorren astekoa ere zuzentzen uzteko eskatuko dizut.

Baina martitzenekoa, hori ez, "estakitxetelako"; banatuta? "Ez dakitxetelako"; aber, beste modu baten, "estakitx ta"; misto? "Ez dakitx ta". Animo, baliente.

GORA ETA BEHERA

EIDER BALLINA

Zaborra San Kristobal inguruan

Traste handiak eta zaborra agertu dira azkenaldian San Kristobal inguruan. Udalak gogorarazi nahi du hileko azken egubakoitzean jasotzen dituztela traste handiak Aramaion.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Aramaioko 'Egunean behin' lehiaketan sariak egongo dira

Egunean behin lehiaketako Aramaioko taldeak, Euskaraldiarekin bat eginez, hainbat sari emango ditu aurtengo denboraldian. Bi epetan banatu dute lehiaketa: azaroaren 1era arte eta azaroaren 2tik 29ra bitartean. Euskaraldiko produktuak, herriko gazta eta sarrerak zozkatuko dituzte. *Aramaixon euskaraz* taldeko giltza B81957 da.

Txikienei zuzendutako zinea eskainiko dute bihar

Haziaraba jaialdiak zinea ekarriko du bihar. Etxeko txikienei zuzendutako emanaldia izango da, 2 eta 6 urte bitarteko umeei. Ikusmen istorio poetikoak izango dira eskainiko dituztenak, testurik gabekoak. Gainera, publikoa epaimahai bihurtuko da. Emanaldia kultura etxean izango da, bihar, zapatua, 18:30ean.

Arkupeko sarreran hainbat bonu salgai, ekainean. M.A.

Bukatutzat eman du bonuen kanpaina Udalak

"139.000 euroko inpaktu ekonomikoa" eragin du maiatzetik urrira abian egon den kanpainak. Bonuen erosketak behera egin duela-eta iraila ezkero ez dute txartel berririk atera; dena den, orain arte erositakoak urrian ere gasta daitezke

Mirari Altube ARETXABALETA

Joan den maiatzean jarri zuen abian bonuen kanpaina Udalak, COVID-19aren osasun krisiak tokiko merkataritzan eta ostalaritza zerbitzuetan eragindako ondorio sozioekonomikoak arintzeko asmoarekin. Azken txartelak uztailean jarri zituzten salgai, eta orain, kanpaina horren gaineko balorazioa egin dute. Udalak jakinarazi duenez, 139.000 euroko inpaktu ekonomikoa eragin du kanpaina horrek merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan.

3.400 bonu

Hasierako asmoa zen bonu sorta bat ateratzea hilero urte amaierara arte –abuztuan izan ezik–. Eta horrela egin da maiatzetik uztailera: guztira, 3.400 jarri dituzte salgai 50 eta 5 euroko taloitegietan, eta herriko ehun negozio ingurutara iritsi direla jakinarazi dute. Bonu gehien jaso dituzten saltokiak izan dira, besteak beste, arropadendak, zapata-dendak eta harategiak.

Lehen hilabeteetan onarpen handia izan zuen herritarren aldetik; maiatzean, esaterako, ilarak sortu ziren erosteko, eta hiru egunean agortu ziren 50 eurokoak: 650 bonu, guztira. Lehen uneko berotasun hura, baina, hozten joan zen, eta irailean, salmenta jaitsi egin zela ikusita, ez zituzten bonu gehiago atera. Hala ere, dagoeneko zirkulazioan zeuden txartelak erosteko aukera egon da, eta urrian zehar gastatu ahal izango dira horiek.

Laguntza handitzea

Ateratako bonuetatik 2.300 saldu dira, eta Udalak 27.000 euro inguru gastatu ditu tokiko ekonomia suspertzeko bideratu ziren 70.000 euroetatik. Hori horrela, gainerako 43.000 euroekin zer egin ez du zehaztu; hainbat aukera aztertzen dabiltza herriko merkataritzari, ostalaritzari eta negozio txikiei laguntzen jarraitzeko. Mahai gainean duten aukeren artean dago kopuru hori handitzea. Foru Aldundiak hainbat laguntza bideratu ditu udalerrietara merkataritza zein ostalaritza zerbitzuek COVID-19ari aurre egiteko egindako inbertsioei laguntzeko –manparak, kristalak, gela…–. Aretxabaletako Udalak 29.000 euro jaso ditu, eta hori ere aurreko 43.000 euroei batzea aztertzen dabiltza. Hala eginez gero, dirulaguntza partida bat aterako dute.

GUZTIRA, 3.400 BONU JARRI DITUZTE SALGAI ETA HERRIKO EHUN NEGOZIO INGURUTARA IRITSI DIRA

Gabonetako bonuak

Gabonei begira, aurreko urteetan lez, bonuak ipiniko dituztela salgai aurreratu dute, eta kanpaina indartuko dutela gaineratu.

Epaiketa hasi da kuartelaren aurkako 1986ko atentatuagatik

Bi guardia zibil hil ziren orain dela 34 urte; Antton Lopez 'Kubati' eta Jose Migel Latasa 'Fermin' dira epaituak

M.A. ARETXABALETA

Atzo, eguena, hasi zuten Antton Lopez *Kubati*-ren eta Jose Migel Latasa *Fermin*-en aurkako epaiketa Auzitegi Nazionalean, orain dela 34 urte Aretxabaletako kuartelaren aurka izandako atentatuaren harira; ETAk egindako atentatu hartan, Terrorismoaren Aurkako Landa taldeko (GAR) bi guardia zibil hil ziren. Fiskaltzak 66 urteko espetxe zigorra eskatu du bi epaituendako.

Ministerio Publikoak dioenez, *Goierri-Kosta* komandoa osatzen zuten Lopezek eta Latasak beste hainbat kiderekin batera, eta hainbat lehergailu jarri zituzten haiek 1986ko uztailaren 26an Aretxabaletan. Hiru izan ziren, guztira, diotenez, eta Izurieta auzora bidean –kuartelaren atzeko partera begira– zeuden kokatuta.

1988an itxi egin zuten kasua, froga faltagatik. Geroago, beste bi alditan ere eskatu zuen Fiskaltzak berriro zabaltzeko: 1997an eta 2001ean. Orain, berriz irekitzea erabaki dute. Epaituak 2013a ezkero daude aske.

MIRARI ALTUBE

Lan baldintzak hobetzearen alde

Aretxabaletako eta Eskoriatzako etxez etxeko langileek elkarretaratzeak egiten dihardute, "lan baldintza duinak" eskatzeko. Gizadi enpresakoak dira, eta ELAk jakinarazi du 2016a ezkero daudela hobekuntzarik izan barik, eta hiru urte daramatzatela negoziatzen: "Egoera prekarioan jarraitzen dute. Eta enpresaren eta Udalaren aldetik ez dugu erantzunik jaso".

'Con fajas y a lo loco' dago gaur eta 'Aioko' lana astelehenean

Haur eta gazteen babesa helburu izanik berdintasuna eta errespetua sustatzeko ikuskizunak egiten duen Tdfirencia elkarteak *Con fajas y a lo loco* antzezlana eskainiko du gaur, egubakoitza, gauean, Arkupen (22:00). Lau emakume izango dira oholtza gainean, eta kantuan egingo dute, barre eta negar ere bai; guztia, umore handiarekin.

Astelehenean, hilaren 12an, ostera, Zurrunka Teatro taldeak *Aioko* lana eskainiko die 8 urtetik gorako neska-mutikoei. Txotxongiloak eta argi-itzalak izango dira protagonista hor. Bi emanaldi izango dira: 16:30ean eta 18:00etan.

Zaraia aretoko edukiera 60 eserlekura mugatua dago orain; hala ere, oraindik sarrerak badaude bi antzezlanetarako. Hurrengo asteburuan *Fadoak entzuten zituen gizona* ikusteko, ostera, oso sarrera gutxi daude.

Gune iraunkorra gura dute kultur ekitaldientzat

Azken hilabeteetako kultura egitarauaren gaineko balorazio kritikoa egin dute EH Bilduko ordezkariek, eta horri bultzada emateko beharra dagoela ondorioztatu; horretarako, herrian gune finko bat sortzea proposatu dute karpa bat jarrita

Mirari Altube ARETXABALETA

Udalak antolatutako kultura egitarauaren gaineko balorazioa egin du EH Bilduk. Azken hilabeteetako egoera ez dela ohikoa eta ezin direla balorazioak egin aurreko eskemak erabilita onartu dute Ion Albizu eta Jasone Garziaetxabe zinegotziek. Edozelan ere, balorazioa ez dela ona adierazi dute, eta konfinamendu osteko hilabeteetan egindakoari erreparatu diote hori esateko.

Irizpidea, "dirua aurreztea"

Uztailaren 29an izandako antzezlanetik urriaren 4a bitartean ez dela izan beste ekitaldirik diote: "Abuztuaren 15ean Milagroko bandaren emanaldia, besterik ez". Kultura batzordeei dagokienez, hiru bakarrik egin direla urtea hasi zenetik aipatu dute. Eta kultura ekintzak egiteko aurrekontutik 101.247 euro gastatu direla aurten diote; iaz, ostera, data berean, 332.282 euro: "Eta aurrekontuko egokitzapenean horrela jasota ez geratu arren, murrizketak egon dira beste partida batzuetan".

Egoerak, herritarrek eta kultura sektoreak behar duten kudeaketarik ez dela egin uste dute, eta irizpide nagusia "dirua aurreztea" izan dela gaineratu: "Eta dirua egon, badago".

Ion Albizu eta Jasone Garziaetxabe, Kurtzebarri eskolako kantxan. MIRARI ALTUBE

Karpa Kurtzebarriko kantxan

Hurrengo hilabeteetarako egitarau bat aurkeztu izanarekin "poztu" egin direla aitortu dute. Dena den, "bultzada bat" behar duela kulturak diote eta horregatik, proposamena aurkeztu zuten irailean egindako Kultura Batzordean. "Horren helburua da kultura zabaltzea herritar eta eragile guztiei: gure herriak duen aberastasunari lekutxo bat egiteko asmoz, kalea elkargune bihurtuz. Eragile batzuekin egon gara eta begi onez ikusi dute", adierazi du Albizuk.

Horretarako, gune iraunkor bat sortzea proposatu dute; hau da, karpa finko bat jartzea gutxieneko baliabideekin hornituta. Karparen kokalekua ere aipatu dute: Kurtzebarri eskolako kantxa. "Herri erdian egotea, babeslekua izatea eta, bereziki, eskolari gune estali bat eskaintzea izan dira arrazoiak". Diru funts bat sortzea ere gura dute, ekintzak egiten laguntzeko baliabideei bideratuta. Proposamena aztertzekotan geratu zela Kultura Batzordea gaineratu du Albizuk.

Elikaduraren eta feminismoen gaineko topaketa egingo dute

Urriaren 16an da eta Etxaldeko Emakumeak elkarteak bideratuko du; izena aurretik eman beharra dago

M.A. ARETXABALETA

Elikatzen gaituen eta lurra eta pertsonak zaintzen dituen nekazaritza: elikadura subiranotasuna eta feminismoak topaketa antolatu du Aretxabaletako Berdintasun Zerbitzuak Setem Hego Haizea gobernuz kanpoko erakundearekin batera. Urriaren 16an izango da, egubakoitza (18:00-19:30), Arkupeko bigarren solairuko aretoan. Edukiera zaintze aldera hogei lagunendako lekua egongo dela iragarri dute –maskara jantzita–; hortaz, izena aurretik eman beharra dago, Arkupen bertan edo Berdintasun Zerbitzuan: *berdintasuna@aretxabaleta.eus*; azken eguna urriaren 14a da.

Etxaldeko Emakumeak elkarteak gidatuko du saioa eta asmoa da tokiko zein mundu mailako elikadura sistema aztertzea, emakume baserritarren lana ikusaraziz eta elikadura subiranotasunaren eta agroekologiaren aldeko apustua eginez. Era berean, kontsumo kontziente, kritiko, eraldatzaile eta feministan oinarritutako irizpideak azalduko dituzte.

Hiru kirol jardueratan lekua dute Ibarra kiroldegian

Ibarra kiroldegiak eskaintzen dituen hiru jardueratan oraindik lekua dutela jakinarazi dute; honako hauek dira: TRX saioak; abdominal hipopresiboak; eta Core Training delakoa.

TRX saioak –entrenamendu esekia– astelehen eta eguaztenetan eskaintzen dituzte, 13:15etik 14:00etara; abdominal hipopresiboak, 08:15etik 09:00etara, 17:15etik 18:00etara eta 19:15etik 20:00etara; eta Core Training, martitzen eta egunetan, 16:00etatik 16:45era.

Lehorreko hamalau jarduera daude abian eta uretako eskaintza ere zabala dela adierazi dute. Izena emateko, kiroldegira bertara jo behar da: 943 03 98 42.

'Paisaian margotzen' erakusketa dago Arkupen urrian

Bi arrasatear dira oraingoan protagonista Arkupeko erakusketa aretoan. Matilde Sainz Osinagak egindako akuarelek Arantza Ozaeta Elorzaren testuak dituzte lagun *Paisaian margotzen* pintura erakusketan. 30en bat lan daude ikusgai hilabetea bukatu arte –astelehenetik egubakoitzera: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; eta zapatuetan: 11:00-13:00–.

Sainzek hamazazpi urte inguru daramatza margotzen eta hainbat artistaren estudioetatik pasatu da. Akuarelak ditu oso gustuko eta teknika horren alde egin izan du sarri. Ozaeta, ostera, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakasle da.



Haur eta nerabeen aisialdi zerbitzua, abian

Algara ludotekan ate irekiak eginda, zerbitzua martxan dute, eta berritasunetako bat da ohiko lokalarekin batera Zainduz-eko lokalean ere izango direla. Gaztelekuari dagokionez, egoitza lekualdatuta, komentuan eskainiko dute zerbitzua

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletako Algara ludoteka eta gaztelekua hasi dira euren aisialdi zerbitzua eskaintzen. Pandemiak sortutako egoerara egokituko neurriak hartu dituzte batean zein bestean, eta berrikuntzak ezarri dituzte.

Ludotekan espazioak handitu dituzte, eta, betiko egoitza erabiltzeaz batera, Gernika plazan dagoen Zainduz-eko lokala ere egokitu dute haurren aisialdirako. Joan den astean egin zituzten ate irekiak, eta dagoeneko martxan daude haurren aisialdi-guneetan. "Ate irekietan, beste urte batzuetan baino harrera txikiagoa izan dugu, baina pozik geratu gara. Guztira, 34 haur inguru pasatu dira bertatik, eta, eskolekin ere harremanetan jarrita, 4 eta 5 urteko 50 haur inguru pasa dira ludotekako espazioa ezagutzera", adierazi du Julen Peralesek, ludotekako koordinatzaileak. Gaineratu du ate irekien ostean martxan hasi direla bi egoitzetan, eta poliki-poliki animatzen hasi direla haurrak.

Zainduz lokala egokitu dute ludoteka zerbitzua eskaintzeko. ALGARA

Burbuiletan banatuta

Gaztelekuan ere joan den asteburuan egin zituzten ate irekiak, eta, espazioz aldatuta, txandakatze sistemaren aldeko apustua egin dutela adierazi du Jon Cano gaztelekuko koordinatzaileak: "Komentura lekualdatuta, bertan bi gela izango ditugu, eta baita kanpo espaziorako eremua ere. Aurtengo dinamikari dagokionez, burbuilaka banatuko ditugu nerabeak. 13-14 pertsonako taldeak izango dira burbuila bakoitzean, eta eurek izena eman ahala taldeak osatuko ditugu. Drive bitartez izena emango dute ordu tarte jakin batean, eta txandakatze sistema honekin gaur egungo egoerara egokituko gara".

ALGARA LUDOTEKAZ GAIN, ZAINDUZ-EKO LOKALEAN ERE HASI DIRA HAURRENTZAKO ZERBITZUA EMATEN

Egun bat gutxiago

Lehen, eguenetik domekara arteko zerbitzua eskaintzen zuten gaztelekuan, baina orain, eguenetan ez dute zerbitzurik izango nerabeek.

Loratuk antolatutako partxisa

Zapatuan, Loratuk antolatutako partxis txapelketa jokatuko da Mojetako kaperan. Partaide kopurua mugatua izango da, eta lehiaketa 17 urtetik gorakoei zuzendutakoa da.

Bikoteka bi euro ordaindu beharko dituzte parte-hartzaileek, eta partidak 15:30ean hasiko dira. "Hasiera batean, Iturrigorri pilotalekuan egin behar genuen txapelketa, baina, eguraldi iragarpena begiratu ostean, lekua aldatzea erabaki dugu. Hala, komentuan izango da. Joan den astean ireki genuen izen-ematea, eta hainbat bikotek eman dute izena. Plaza mugatuak izango dira, eta gure helburua 16 bikotera iristea da, zenbaki horretan jarri dugu muga. Hiru taldetan banatuta hasiko ditugu partidak, eta bikote irabazleak afari bat jasoko du sari gisa", adierazi dute antolatzaileek.

Partidak 15:30ean hasiko dira. Final-laurdenak, berriz, 17:15ean; finalerdiak, 17:45ean; eta finala, 18:15 inguruan.

Loratuko kideek gaineratu dute asteburura begira antolatutako ekintza 17 urtetik gorakoei zuzendutakoa dela, baina, urtean zehar adinari erreparatu gabe herri guztira irekitako ekintzak antolatzeko lanetan ari direla.

Erraiak dokumentalaren une bat. ARTEMAN

Dokumental onenaren saria eta ikusleena bi festibaletan

Joan den asteburuan Los Angelesen eta Erroman egindako ekitaldietan jaso ditu sariak 'Erraiak' lanak

I.B. ARETXABALETA

Erraiak lanak dokumental onenaren saria jaso du Los Angelesko *The Independent Documentary Film* festibalean, eta, baita Italiako *Rome International Movie Awards* festibalean ere. Gainera, ikusleen saria ere jaso zuen Los Angeleskoan.

"Apoteosikoa izan da bi sari jarraian irabaztea. Ez nuen espero, baina halako festibaletako sail ofizialetan egotea soilik sari bat da niretzat. Aurrera begira, dokumentala munduan zehar gehiago zabaltzea dakar honek, eta, bide batez, euskara eta irrintzia ere hedatzea...", adierazi du Aretxabaletan bizi den Ekain Martinez de Lizarduyk, *Erraiak* dokumentaleko zuzendariak.

Saririk sari

Irrintziaren bueltan egindako produkzioa hainbat sari jasotzen ari da azkenaldian; izan ere, jaso dituen azkenekin batera, Montevideoko *World Film Festival* jaialdian dokumental onenaren saria jaso zuen eta Venezuelako *Five Continents International film* festibaleko sail ofizialean lehiatu zen.

UDA ARETXABALETA

Martxan da futbol eskola

Urriaren 2tik martxan dira Aretxabaletako neska-mutikoak UDAK antolatzen duen futbol eskolan. Guztira, 140 haur ari dira, eta horietatik guztietatik zazpi bakarrik dira emakumezkoak. Hala, neskak animatu gura dituzte futbol eskolara; izan ere, oraindik zabalik dago izen-ematea. 2009tik 2012ra bitartean jaiotako haurrei zuzendutakoa da.

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako pianoko ikasleek egindako audizioaren une bat. BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA

Musika eskolara buelta, era presentzialean

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolak hasi du ikasturte berria, eta aurten, 270 ikasle izango dira bertan ikastaro ezberdinetan parte hartzen. Taldeak osatuta dauden arren, eskola indibidualak hartzeko aukera dagoela azpimarratu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Beheko Errota musika eskolak hasi du ikasturte berria, eta, egoitzak dituen ezaugarriengatik eta dituzten ikasle kopurua kontuan hartuta, egoera berrira egokitzeko zenbait aldaketa egin dituzte.

Matrikulatzeko epea amaituta, eskola indibidualak hartzeko aukera dagoela oraindik jakinarazi dute musika eskolako arduradunek, eta, beraz, interesatuek matrikulazioak egin ditzakete, bertara joanda, 943 71 49 95 telefono zenbakira deituz, edo posta elektronikoz, *musikesko@hotmail.com* helbidera idatziz. Horrekin batera, itxarotezerrenda dutela adierazi dute, eta urtean zehar norbaitek izena eman gura badu aukera izango duela nabarmendu dute.

Distantzien garrantzia

"Aurten, 270 ikasle egongo dira musika eskolan, gutxi gorabehera. Dantzako saioetan, esaterako, 1,80 metroko distantzia mantentzen dute eta bakoitzak bere laukia du lurrean dantza egiteko. Bandaren kasuan, berriz, 1,50 metroko distantzia mantentzen da musikarien artean, eta, horretarako, ohiko egitura aldatu egin dugu. Hau da, lehen, maskor formatua genuen ezarrita, baina orain, lerrokatuta jartzen dira musikariak entseguetarako, distantziak hobeto errespetatze aldera", dio musika eskolako Eneritz Korujok.

Era presentzialean bakarrik

Beheko Errota musika eskolako klase guztiak presentzialak dira, eta, salbuespen gisa, online eran emango dira COVID-19aren ondorioz ikaslea egoitzara joan ezin bada. "Konfinatuta egon diren bi ikasle ezin izan dira hainbat saiotara etorri, baina kasu puntualak izatea espero dugu. Gainera, segurtasun neurri guztiak hartu ditugu –manparak, osasun neurriak, lurreko seinaleak…–, eta hasiera batean, aurrez aurreko saioen aldeko apustua egingo dugu".

HAINBAT NEURRI HARTU DITUZTE, DISTANTZIAK ERRESPETATZEARI GARRANTZIA EMANDA

Eskaintza handia

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolan eskaintza handia dago 4 urtetik aurrera, eta ez bakarrik haurrentzat, baita helduentzat eta erretiratuentzat ere. Inoiz ez da berandu musikarekin hasteko, eta gogoa eta esfortzua jartzen dion edonork oso emaitza onak lor ditzake.

Honako hauek dira bertan eskaintzen dituzten ikastaroak: txistua, musika tailerra, dantza, kantua, pianoa, klarinetea, saxofoia, flauta, biolina, biolontxeloa, tronpeta, tronboia, tronpa, akordeoia, gitarra klasikoa eta elektrikoa, perkusioa, bateria, musika-hizkuntza eta korua.

GORA ETA BEHERA



ARIZMENDI IKASTOLA

Kanpo espazioak aprobetxatzen

Aurtengo ikasturtearen helburuetako bat kanpoko espazioak ahalik eta gehien aprobetxatzea izanda, Arizmendi-Almen guneak dituen abantailak aprobetxatzen ari dira ikasleak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

I.B.

Euripean bada ere, aldarrikatuz

Mendi tontorretan beharrean, Fernando Eskoriatza plazan batu ziren joan den zapatuan hainbat herritar, Izan Bidea ekimenaren bueltan –mendi-igoerak maiatzaren 8ra atzeratzea erabaki du Sare Herritarrak–. Euripean ere, presoen eta iheslarien auzia behin betiko konpontzeko urratsak egiteko garaia dela aldarrikatu zuten Eskoriatzan, beste zenbait herritan moduan.

Nekazaritzako ibilgailuen ikuskapena hilaren 14ean egingo da

Alarma egoera dela-eta nekazaritzako ikuskapenen kanpaina ohiko egunetan egitea ezinezkoa izan denez, nekazaritzako ibilgailuen aldizkako ikuskapenak (IAT) Eskoriatzan, herrian bertan, egiteko aukera izango dute herriko nekazariek.

Traktoreek ere, gainontzeko ibilgailuek bezala, azterketa teknikoa pasa behar izaten dute, eta, Debagoieneko beste zenbait herritan moduan, Eskoriatzan ere egingo dira. Egun eta ordu bakarra izango da ibilgailuen azterketa teknikoa egiteko; hain zuzen ere, urriaren 14an, 12:00etan hasita, estazio zaharrean.

Egun berean, 09:00etan, Aretxabaletan ere egingo dira nekazaritzako ibilgailuen aldizkako ikuskapenak Galartza auzoan, eliza alboan, eta baliteke pixka bat atzeratzea Eskoriatzako hitzordua.

Seniorrek lan ona egin zuten, baina galdu

Eskoriatzako saskibaloi taldeek zapore gazi-gozoarekin hasi dute denboraldia. Seniorrek eta kadeteek galdu egin zituzten partiduak, baina itxaropentsu daude bi taldeak, eta hurrengo partiduen prestaketa lanetan dihardute egunotan

Imanol Beloki ESKORIATZA

"Ez da nola hasten den, nola bukatzen den baizik". Baikor agertu da Zuhaitz Gonzalez Eskoriatzako senior mailako saskibaloi taldeko entrenatzailea denboraldiko lehenengo porrotaren ostean. Eskoriatzako saskibaloi taldeak etxetik kanpora jokatu zuen joan den astean, Oreretako Oiarso taldearen aurka, eta, 52-49ko emaitzarekin, gutxigatik, puntuak batu barik bueltatu ziren etxera, baina, lan ona egin izanaren sentsazioarekin bueltatuta, anbizio handiko helburuak ezarri gura dituzte denboraldi honetan.

Oiarsoren aurkakoan, entrenatzailea azalpenak ematen. ZUHAITZ GONZALEZ

Taldea, gogotsu

"Abuztuaren 24a ezkero ari gara lanean, eta jokatzeko eran asko nabaritu da egindako prestaketa lana. Gainera, zenbait aldaketa ere izan ditugu: bi jokalarik utzi egin dute taldea eta hiru berri ditugu: Ane Arrillaga, Sara Medina eta Leire Zubillaga. Gauzak ondo egin genituen joan den asteko partiduan, baina ezin izan genuen garaipena lortu denboraldiko lehenengo jardunaldian. Hala ere, lasai gaude, eta taldea motibatuta dagoela esango nuke; beraz, etxean jokatuko ditugun datozen partiduetan garaipenen bila irtengo gara kantxara", adierazi du Zuhaitz Gonzalez entrenatzaileak.

DENBORALDI-AURREA ONDO PRESTATUTA, ANBIZIO HANDIKO HELBURUAK DITUZTE SENIORREK

Hurrengo biak, etxean

Asteburu honetan eta hurrengoan etxean, Manuel Muñozen, jokatuko dute seniorrek. Datorren jardunaldia irailaren 16an, egubakoitzean, izango dute, 20:15ean, Astigarragako Mundarro taldearen aurka, eta hurrengoa, berriz, hilaren 23an, Antigua-Luberri taldearen aurka, 20:15ean.

Saskibaloi eskola, urtarrilean

Eskoriatzako seniorrak eta errendimendu mailako kadeteak partiduekin hasi diren arren, kadeteen beste taldea urria amaitu aurretik hasiko da; saskibaloi eskolakoak, berriz, ez dira urtarrilera arte hasiko.

Etxean galdu zuten kadeteek

Eskoriatzako kadete errendimendu mailako saskibaloi taldeak ere partidua izan zuen joan den astean, eta etxean jokatu arren ezin izan zuen garaipena lortu.

Hamasei puntuko aldeagatik

Easo Ibaeta taldearen kontra jokatu zuten Manuel Muñozen, eta 29-45 galdu zuen etxeko taldeak.



Aitor Larrauri, kadete errendimendukoen entrenatzailea, azalpenak ematen. Z.G.

Eguaztenean egindako zozketan, zenbait herritar elkarte aurrean zain. I.B.

Zozketak hasita, pase onaren zain daude herriko ehiztariak

Eguaztenero egingo dira asteko eta asteburuko zozketak Aldaypen; 18:00etatik 20:00etara bitartean

I.B. ESKORIATZA

Eguaztenean hasi zituzten aste barruko eta asteburuko ehiza postu zozketak Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkarteko kideek. Ordena mantentzeko eta segurtasun neurriak bermatzeko elkarteko egoitzaren bueltan mapa bat diseinatu dute, zozketa egunetan pilaketak saihesteko. Hala, jarraibideak eman dizkiete elkarteko batzordekideek zozketetara joaten diren guztiei, eta Aldaypeko lokalaren bueltan seinaleztatuta jarri dute herritarrek egin beharreko ibilbidea. Lehenengo zozketa eginda, eguenetik aukera izan dute ehiztariek ehiza postuetara joateko.

"Oso ondo erantzun diete herritarrek zozketa egunera begira ezarritako neurriei, eta aurrerantzean ere modu berean erantzutea espero dugu". Gainera, gogo biziz daude ehiztariak", adierazi du Aldaype elkarteko presidente Oier Eskibelek. Izan ere, "azken hiru urteak ez dira hain onak izan", eta "esperantzaz daude eskoriatzarrak aurten zer pasako...".

Eguaztenero, Aldaypen

Intxaurtxuetako bederatzigarren atarian 18:00etatik 20:00etara izango dira zozketak, soilik eguaztenetan, eta 20:00etatik 20:30era bitartean adieraziko dituzte adjudikazioak. Lehen ez bezala, egun bakarrean aste barruko postuen berri emango da, eta baita asteburukoena ere.

Postu onena tokatzeko gogoz

Urtero moduan, ehiztariek bi lineatako postuak lortu ahal izango dituzte eguazteneko zozketetan: lehenengo linean 87 postu daude –Lete, Apotzaga eta Marin–; eta bigarrenean, berriz, 77 –parke naturala, Alabita eta Aranguren–.

Lourdes Martinezek gidatutako joskintza ikastaroak hasi dira

Eguaztenean hasi zen Lourdes Martinezen eskutik joskintza ikastaroa Eskoriatzan. 13 urtetik gorako edozeini zuzendutako saioak dira, eta, ikastaroa hasita dagoen arren, eman daiteke izena oraindik.

"Modarekiko sormena garatzeko aukera eskaintzen dugu joskintza ikastaroan. Hala, maila askotarikoentzat zuzendutakoa izango da; hau da, josten ikasten hasi gura dutenentzat, edo maila bat duten herritarrentzat izan daitekeena. Gainera, norberak gura duena lantzea izango du helburu ikastaroak", adierazi du Lourdes Martinez joskintza ikastaroko irakasleak.

Eguaztenetan lau ordutegi izango dira: 09:00etatik 11:00etara, 11:00etatik 13:00etara, 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Oraingoz, 15 lagunek eman dute izena, baina lekua dagoela adierazi du Martinezek.

Leintz Gatzagako Udalak martxan jarri berri duen *Gatzagaturismo.com* webgunea. IMANOL BELOKI

Herriko eskaintza guztia zentralizatuta, plataforma berria abian

Kanpo eta barne turismoa sustatzeko helburuarekin, Gatzagan dauden eskaintza eta zerbitzu guztiak bateratu dituzte, diseinatu berri duten 'Gatzagaturismo.com' webgunean. Informazio guztia dago, Udalaren jabetzako zerbitzuena zein pribatuena

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Herriko turismoa sustatzeko eta herrian dituzten zerbitzu eta eskaintza guztien berri emateko helburuarekin, Leintz Gatzagako *Gatzagaturismo.com* webgunea sortu berri du Udalak, Araiako Tarteka Mediaren laguntzarekin.

Aurreko agintaldian martxan jarri zuten ideia, eta dagoeneko gauzatu dute, nahiz eta etorkizunean atal gehiagorekin osatu gura duten webgunea. Plataforman herriari buruzko informazio interesgarri guztia bildu dute, bisitariek erraz kontsultatu dezaten, eta herrian dauden turismo eskaintza eta zerbitzu guztiak zentralizatzeko asmoz. Kanpo eta barne turismoa indartu gura dute, eta abiarazi berri duten sistemarekin emaitza onak izatea aurreikusten dute Gatzagako udal ordezkariek.

Informazio guztia eskura

"Turista batek eskatu dezakeen informazio guztia jasotzen du *Gatzagaturismo.com* webguneak. Lehenik eta behin, herriari, historiari, zenbaki interesgarriei eta lo egiteko ostatuei buruzko informazioa eskaintzen du. Aurrerago ere gustatuko litzaiguke aisialdirako aukerak ezartzea; esaterako, mendi ibilaldiak eta halako atal berriak sortzea", adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatzagako Kultura zinegotziak.

Negozio pribatuak eta Udalaren eskumenekoak direnak daude Leintz Gatzagan. Eta, batez ere, Udalaren jabetzakoak direnak indartzeko abiarazi dute egitasmoa, beste zerbitzuak baztertu gabe eta informazio osoa emanez. "Santa Columba ermitan Gatz Museoko informazio-gune berria dugu, eta bisitariak gerturatu gura ditugu hara. Hala, bisitarien kopurua handitu dadin. Gainera, herriko edozein informazio eskuratu ahal izango dute bertara doazenek, Gatz Museoak eskaintzen duen guztiaz batera. Labidea ere puntu erreferente bat da herritarrontzat eta kanpotik datozen bisitarientzat. Gainera, hantxe dago bizikleta elektrikoak alokatzeko Gatzebike zerbitzua, eta horiek ere indartu nahi genituzke".

BISITAK JASOTZEKO EDO LO EGITEKO ERRESERBAK PLATAFORMATIK EGIN DAITEZKE

Erreserba guztiak, bertatik

Gatzagako ia zerbitzu edo eskaintza guztiek euren plataforma propioa izan arren, batez ere erreserbak egiteko bidea erraztu gura izan diete horietara joan nahi duten bisitariei. Martxan jarri berri duten arren, dagoeneko izan dituztela erreserbak bide honetatik adierazi du Beñat Agirreurretak.

Turismo bulegoarekin zuzenean kontaktatzeko bidea eskaintzeaz batera, herrian egin daitezkeen ekintzen gaineko informazioa eskaini nahi izan dute bertan. Batetik, non jan daitekeen –Gure Ametsa, Arrate eta Marulanda–; bestetik, non egin daitekeen lo –Gorosarri, Aterbe eta Leintz zuhaitz etxeak–, eta beste aukera batzuk –Labidea eta Jakion–.

"Plataformarekin erraztasun guztiak eman nahi ditugu, eta baita gertutasuna adierazi. Hala, webgunean, esaterako, Gatz Museoan bisita baterako erreserbatu dezakezu, lo egiteko lekua hartu Leintz zuhaitz etxeetan, eta orrialde beretik bazkaltzeko lekua bilatu Arraten edo Gure Ametsan, esaterako. Internetetik egin daitekeenaz gain, gehiago jakiteko, Santa Columban dagoen Gatz Museoko informazio-gune berrira joan daiteke interesa duena".

BARNE ETA KANPO TURISMOA HANDITZEKO APUSTUA EGIN DU LEINTZ GATZAGAKO UDALAK

LIBE RAMILA
GATZ MUSEOA

"Itxaroten geunden, eta dagoeneko martxan egonda oso pozik gaude. Online ez bazaude, ematen du zure zerbitzua hankamotz geratzen dela. Hala, webgune eguneratua izateak abantaila ugari eskaintzen ditu; ea jendea hasten den bertatik erreserbak egiten…".

INAZIO GABILONDO
LABIDEA ETA GATZEBIKE

"Herritar guztion artean egindako plataforma da, eta, herri txikia izanda, presentzia izateko ezinbestekoa. Herria ezagutzera etorri aurretik kontsulta egiteko atari aparta da, bizirik dagoena, digitalizatua, eta, beraz, gaur egunera behar bezala egokitutakoa".

KEPA ATUTXA
LEINTZ ZUHAITZ ETXEAK

"Gure webgunea dugu, eta hori da bezeroek lur hartzeko duten gunea. Bertatik gestionatzen dira erreserbak, baina Gatzagako Udaletik beste bide bat izatea guregana sarbidea duena onuragarria dela esango nuke, eta baita derrigorrezkoa ere".

Toki Alai taberna, 1960ko ekainaren 5ean; ITV eta Laino tabernaren ingurua da egun. ARGAZKIAK: BERGARAKO UDAL ARTXIBOA (T. JAUREGI FONDOA)

Irizar pasealekua, 1964ko abuztuaren 18an.

Bergara nola aldatu den, 60 urte betetzera doazen argazkien bidez islatuta

Aroztegi aretoan irekiko dute gaur '60' erakusketa, eta Udal Artxiboari esker 1960ko hamarkadako Bergara islatzen duten 65 argazkiz eta informazio gehigarriaz gozatu ahalko du herritarrak; urriaren 25era arte bisitatuko ahalko da, martitzenetik domekara

Bergarako futbolzaleak Donostiako Atotxa zelaian, 1964an.

Jokin Bereziartua BERGARA

60. Izenburu hori jarri diote gaur ireki eta urriaren 25era arte Aroztegin egongo den erakusketari. Zergatik? 1960ko hamarkadako Bergararen hainbat argazki erakusten dituelako eta argazki horiek atera zirenetik 60 urte bete direlako. "Gure herria 1960ko hamarkadan irudikatu nahi izan dugu; orduko Bergarako herritarren egunerokotasuna azaldu. 60ko hamarkada, zentzu askotan, aldaketa-garaia izan zen; eta, argazki hauen bitartez, gizarte haren zertzelada bat ekarri nahi izan dugu", adierazi du Udal Artxiboko arduradun Arantzazu Oregik.

Aroztegi aretoan zehar 65 panel jarriko dituzte, eta argazki bakoitzak dagokion informazioa izango du. "Aroztegi oso ondo dago, baina ez du lekurik argazki asko erakusteko; horregatik, gai bakoitzeko argazki bat edo bi jartzen ditugu erakusgai. Herritarrek jakin behar dute ziur gai horren gaineko argazki gehiago izango ditugula artxiboan; etor daitezela, artxiboko ateak beti daude zabalik".

Orduan, bergararren aisialdian zinema eta kirol-ikuskizunak nabarmenak ziren, eta erakusketan horietako batzuk ikusi ahalko dira: pilota, txirrindularitza, futbola, ziklo-krosa… Horiez gain, baziren mendi-irteerak, musika-taldeak, domekeroko dantzak... Orduko prentsa idatziak ere izango du protagonismoa.

Aldaketa urbanistiko nabarmena

1960ko hamarkadan, nabarmen aldatu zen Bergara urbanistikoki. Alde batetik, industria berriak sortu ziren; aurretik zeuden ehungintza-lantegiez eta Zerrajeraz gain, beste sektore batzuetako lantegiak ere ugaritzen joan ziren, eta horietako asko San Lorentzoko industrialdean ezarri ziren. Bestetik, etxebizitza asko eraiki ziren; esaterako, Fraiskozuri plazan, Ariznoa kalean, Zabalotegin, Irizar pasealekuan eta Matxiategin. Izan ere, aurretik zeuden etxebizitzen kopurua txiki geratu zen, eta, gainera, haiek ez zuten betetzen garai hartan eskatzen zen erosotasun-mailarik.

Orduko Bergaran pisu handia zuen Elizak. Bataio, jaunartze, ezkontza eta hileta elizkizunez harago, edozein denda edo lantegi zabaltzerakoan eta edozein ospakizunetan beti egiten zen haien bedeinkapena. Hezkuntzan ere, bi ikastetxe handienak –Mariaren Lagundia eta Seminarioa– mojek eta fraideek gidatzen zituzten. Oregik uste du erakusketa horrek ere agerian utziko duela zein ezberdin bizi garen gaur duela 60 urterekin alderatuta: "Hausnarketa bat egiteko aukera eskaintzen du erakusketak, nola aldatu den guztia... Piramide demografikoa zeharo aldatu dela, ekonomiaren orduko eta egungo oinarriak, hirigintza-ikuspegiaren aldaketa...".

"HAUSNARKETA BAT EGITEKO AUKERA ESKAINTZEN DU; NOLA ALDATU DEN GUZTIA..."

ARANTZAZU OREGI, UDAL ARTXIBOA

Udal Artxiboko altxorraren isla

Erakusketa horretako argazki guztiak Udal Artxibokoak dira, eta honako hau antolatzen den laugarren edo bosgarren erakusketa da. "Kudeatzen dugun ondare fotografikoa herritarrei hurbiltzeko modua da, eta baita artxiboan ze lan egiten dugun erakustekoa ere. Artxiboarentzat erakusleiho bat da, bisita gidatuak antolatu edota unitate didaktikoak egiten ditugun moduan; azken finean, baina herritarrek gozatzeko egiten dugu", dio Oregik. Eta herritarrek gozatu, gozatzen dute, beti izan ohi dute-eta harrera oso ona halako erakusketek: "Oso harrera ona izaten dute, herriko kontuak izaten dira eta; erakusketa hauek antolatzeko, argazki-film batzuk digitalizatzeko aprobetxatzen dugu –kanpoko enpresa batek egiten du hori–; horien gainean hausnarketa egin eta informazio jaso, argazki onenak aukeratu eta ondoren etortzen da erakusketa. Lana badago atzetik".

Martitzenetik domekara zabalik

Esandako moduan, gaur irekiko dute erakusketa –ekitaldi xume bat egingo dute, 19:00etan– eta urriaren 25era arte egongo da zabalik. Astelehenetan itxita egongo da; martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

EAJko kideak, eguazten iluntzean batzokian egindako agerraldian. MAIALEN SANTOS

"EH Bilduren paralisiak lankidetza eragozten du"

EAJko udal taldeak "gardentasunik eta planifikaziorik eza" egotzi dio Udal Gobernuari eta salatu du COVID-19ari aurre egiteko plan integralaren berri ez dutela jaso, hura iragarri eta bost hilabete pasata: "Prentsan iragarri zuten, baina ez dugu haren berririk"

Jokin Bereziartua BERGARA

EAJk prentsa agerraldia egin zuen eguazten iluntzean, Udal Gobernuari "gardentasunik eta planifikaziorik eza" egozteko.

Udal Gobernua COVID-19ari aurre egiteko plan integrala lantzen hasiko zela iragarri zuenetik haren berririk ez dagoela salatu zuten jeltzaleek: "Maiatzaren 25ean, prentsaurreko baten bidez, EH Bilduren udal Gobernu taldeak esan zuen plan integral bat lantzen hasi zirela, hainbat eragile sozialekin batera, krisiari aurre egiteko. Gaur, bost hilabete geroago, EH Bilduk prentsan iragarritako plan integralaren berririk ez dugu, Bergarak eta bergararrek hain beharrezkoa duena". Horrekin batera, joan den irailaren 28ko osoko bilkuran udalbatzak onartu zuen kreditu eskaera ere izan zuen hizpide EAJk; kontra bozkatu zuten: "Uztailaren 17an, alkateak, alde bakarreko dekretu bidez, bi milioi euroko kreditua onartu zuen, zeina irailaren 28ko osoko bilkuran berretsi zen, kreditu aldaketa baten bidez. Ondorioz, salatu nahi dugu EH Bilduren egungo Gobernuak duen kudeaketa iluna eta planifikaziorik gabekoa".

"Indarrak batzeko unea da"

Jeltzaleek uste dute mailegua eskatzea "beharrezkoa" dela: "Bizi dugun osasun krisiak krisi ekonomikoa eta soziala eragin du, eta horregatik uste dugu bi milioi euroko kreditua eskatzea beharrezkoa dela, oraindik iristear dauden beste neurri askorekin batera. Baina beharrezkoa eta ezinbestekoa da definitzea eta planifikatzea, garai zailak datoz eta indarrak batu eta elkarrekin aurre egiteko unea da".

OPOSIZIOA AINTZAT HARTZEKO ESKATU DUTE: "KRISIARI ELKARREKIN EGIN BEHAR DIOGU AURRE"

Lankidetza mahaia eskatu dute

EAJk dio "behin eta berriz" eskaini diola laguntza Udal Gobernuari, baina, diotenez, laguntza hori ukatu egin diete: "Inongo zalantzarik ez dugu, orain, inoiz baino gehiago bergararren alde elkarrekin lan egiteko unea iritsi dela, guztion artean lan egiteko. Baina EH Bilduren kudeaketa txarrak, kudeaketarik ezak edo paralisiak gure lankidetza onartzea eragozten die".

Azken eskaera bat ere egin dio EAJk Gorka Artola alkatea buru duen Udal Gobernuari: "Gure apustua da COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren ondorioak aukera bihurtzea, eta elkarrekin bergararren beharrei erantzutea; horrela, krisi guztiek sortzen dituzten ahulezia eta ezberdintasunei aurre egingo diegu eremu guztietan. Horretarako, Udal Gobernuari eskatzen diogu gardentasunez jokatzeko eta mahai bat sortzeko bergararren ongizatearen alde elkarrekin lan egiteko".

Gazteenei lehen sektorea gerturatzeko egun ederra izan ohi zen Elosuko feria. GOIENA

Elosuko feria bertan behera, eta etorkizunerako "zalantza asko"

Urriaren 12an egiten den feria ez da egingo pandemiagatik: "Zaila izango da behin eten den soka honi segida bilatzea"

J.B. BERGARA

Urriaren 12an egitekoa zen Elosuko 42. mendi ganadu feria ere suspenditzea eragin du pandemiak. Elosuko alkate Iñigo Zubeldiak dio erabakia ez dela samurra izan, eta "zalantza asko" agertu ditu feria bereziaren etorkizunaren gainean. "Ez da erabaki erraza horrenbeste urte jarraian egin ondoren hartu behar izan duguna, baina gaur egungo protokolo eta bide-orri zorrotzek ez digute beste aukerarik ematen. Izan ere, feria egin ahal izateko lanera hurbiltzen diren auzotar gehienak orain arrisku talde horretan kokatzen dira, eta arduraz jokatzea dagokigu", zehaztu du Zubeldiak ohar bidez.

Soka behin etenda, segidarik bai?

Era berean, feriaren etorkizunaren gainean zalantzak agertu ditu: "Kontua da behin etengo den soka honi segida bilatzea zein zaila izango den ohartuak gaudela, eta horren jakitun are eta gogorragoa egiten zaigula erabaki hau".

Lehen sektorea "giltzarri"

Festa baino gehiago aldarrikapen eguna izan ohi dela ere gaineratu du: "Nolabait ere, hain astindua aurkitzen den lehen sektoreari eskainitako festa egun bat baino gehiago, aldarrikapen egun bat izan ohi da egun hau, non eta gure aitona-amonen mundu zaharkitu hura kaletik etorri eta ezagutu ez duten askori zabaltzen zaien". Horrekin batera, lehen sektorea giltzarri izan beharko litzatekeela uste du Zubeldiak: "Lehen sektorearen zaintzak, datorrenari usain hartuta, giltzarri izan beharko luke etorkizuneko herri ekimenetan. Hori da aurtengo gure idatzizko aldarria. Gora Elosua!".

MEG Garbiketak

DEITU KONPROMISO BARIK

Atariak | Tabernak
Bulegoak | Kristalak
Etxebizitzak | Fatxadak
Elkarte gastronomikoak | Teilatu-hodiak

686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena

"Oso zaila" den egoerari buelta noiz emango zain

Gaur egun 1.600 bazkide inguru dituen San Joxepe elkarteari modu berezian egin dio kalte pandemiak, eta batzar orokorrik eta kanporako ekintzarik ezin dute antolatu; 2020an ohi baino gastu gutxiago izan dituztenez, 2019ko kuota berari eutsiko diote

Jokin Bereziartua BERGARA

San Joxepe elkarteari modu berezian egin dio kalte pandemiak. Martxoaren 15ean, Boni Laskuraingo egoitza itxi egin behar izan zuten eta halaxe egon zen pare bat hilabetez; gaur egun, Roberto Kareaga presidenteak ziurtatu duenez, taberna, ile-apaindegia eta podologoa daude martxan; betiere, segurtasun neurri zorrotzekin: "Pandemia aurretik gurean ohikoak ziren beste hainbat jarduera ezin izan ditugu egin. Adibidez, irteerak eta bidaiak ezin ditugu egin, ezta askotariko jokoak eta eskulanak edota tai txi zein yoga tailerrak".

2019ko zuzendaritza taldea, Roberto Kareaga –behean– buru dutela. SAN JOXEPE

2019ko kuota bera

Gaur egun, 1.600 bazkide inguru ditu San Joxepe elkarteak, COVID-19aren aurrean arrisku taldekoak direnak eta, beraz, jende pilaketak eragin ditzaketen ekitaldiak bereziki arriskutsuak izan daitezkeenak. Horregatik erabaki du zuzendaritzak batzar orokorra suspenditzea, eta iragarri dituzten erabakien artean dago urteko kuota iazko bera mantentzearena; laster egingo dute errekargua. Hau da, 80 urtera arteko bazkideek bederatzi euro ordaindu beharko dute aurten; 81 eta 86 urte artekoek, bost euro; eta 86 urtetik gorakoek ez dute ordaindu beharko. Kareagak, baina, nabarmendu nahi izan du "egoera oso zaila" izan arren beti egongo direla bazkideen proposamenei zabalik: "Egoera aldatu ahala eta agintariek baimentzen badute, ekintzak berreskuratzen joango gara; herriko beste taldeekin eta Udalarekin ekintza soziokulturalak antolatzen jarraitu nahi dugu".

TABERNA, PODOLOGIA ETA ILE-APAINDEGI ZERBITZUA DUTE MARTXAN ORAIN EUREN EGOITZAN

Hamar kide zuzendaritzan

Honako hauek dira gaur egungo zuzendaritzako kideak: Ramon Kareaga, presidentea; Jose Ramon Eguren, presidenteordea; Adela Ormazabal, idazkaria; Alberto Laspiur, diruzaina; eta bokalak dira Rosa Maria Belastegi, Antolin Martxena, Julian Lazaro, Carmen Zelaia, Maritxu Barrena eta Luis Jimenez.

87 urte bete dituzten bazkideei, oparia

San Joxepe elkartearen urteroko zita garrantzitsuenetako bat izan ohi da 87 urte bete dituzten bazkideei omenaldia egitea. Udalak antolatzen duen ekitaldia izaten da, baina aurten, pandemiak eraginda, ez dute egingo. Omenaldirik ez da egingo, baina opari bana emango diete bazkideei: "Figuratxo bat emango diegu 87 urte bete dituzten bazkideei, izen-abizenekin".

2017an 87 urte bete zituztenei eskainitako dantza, mezaren ostean. GOIENA

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Eskertuta, bi banku berri jarri dituztelako

Labegaraietako bizilagun batek txalotu egin du auzoan bi eserleku berri jarri izana. "Tenis pistaren ondoan jarri dituzte bi banku berriak, zuhaitzen artean. Eskerrik asko", adierazi du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Nagore Iñurrategi, Lander Juaristi, Gorka Artola eta Arianne Kareaga. BERGARAKO UDALA

Eremu berrietan ere garbitzeko, jendea behar dute auzolanerako

Eman daiteke izena urriaren 17ko erreka garbiketarako; COVID-19arengatik Udalak ez du hamarretakorik emango

J.B. BERGARA

Urriaren 17rako egin dute "oso arrakastatsua" izan ohi den erreka auzolanean garbitzeko deia: "Ekimena oso arrakastatsua da, herritarron inplikazioagatik, auzolan eredua berrindartzeagatik, sortzen dugun zaborraren eta horren kudeaketaren inguruko sentsibilizazioa pizten duelako eta, zer esanik, gure izatearen parte den erreka garbitzen delako". 09:30etik 13:00etara izango da eta izena emandakoak hiru taldetan banatuko dira: Seminarioko patioa, Labegaraietako kiroldegia eta Osintxu.

Oxiña eta Abrainerreka

Urriaren 13a baino lehen eman behar da izena: Udalaren webgunean, Agorrosinen (943 77 70 95) edo *errekagarbitzeko@gmail.com* helbidean. Asmoa da erdigunean beste urte batzuetan baino ahalegin txikiagoa egitea, garbiago egon ohi delako, eta nahikoa jende egongo balitz Oxiñara eta Abrainerrekara ere irekiko litzateke garbiketa eremua. COVID-19ak eraginda ez da hamarretakorik egongo eta ez da urik banatuko; norberak eraman beharko du etxetik. Iaz 200 bat lagun elkartu ziren.

"Talde indartsua eratu dute, igotzeko aukerekin"

MAIALEN ESNAOLA ATLETICO BALEARES TALDEKO JOKALARIA

Urriaren 17an jokatuko du Maialen Esnaola bergararrak lehen partida Mallorcako Atletico Baleares taldearen elastikoarekin. Erronka berria ekiteko "irrikaz" agertu da

Jone Olabarria BERGARA

Maialen Esnaola bergararrak (1994) Mallorcako Atletico Baleares taldean egingo du 2020-2021 denboraldia. Datorren asteburuan ekingo diote ligari, eta, aitortu duenez, "gogotsu" dago sei hilabeteren ostean partidak jokatzera itzultzeko. Aurreko denboraldian Santanderko Racing taldean jokatu zuen, eta, Kantabriako taldea "penaz" utzi zuela azaldu duen arren, erronka berriari "ahalik eta hoberen" helduko diola azaldu du.

Nolatan Mallorcara? Nondik etorri zen aukera?

Aurreko urtean Santanderren bizi nintzen bikotekidearekin, biok jokatzen genuen Racing-en. Bikotekideari hemen jokatzeko aukera sortu zitzaion, eta biok etortzea erabaki genuen.

Ostean etorri zen zure fitxaketa talde berean ere..

Nesken taldea ere bazela ikusita, klubean galdetzea erabaki nuen. Curriculuma eta bideo batzuk bidali nituen eta baiezkoa eman zidaten, taldean aritzeko aukera nuela. Normalean, horrela egiten dugu; nesken futbolean ez da diru askorik mugitzen eta nire bikotekideari aukera bat sortzen bazaio ni ere talde beraren atea jotzen saiatzen naiz.

Abuztu amaieran iritsi zineten Mallorcara; nola joan da egokitzapena?

Lehen astean bero handia egin zuen eta kosta zitzaigun apur bat entrenamenduekin, baina, bestela, oso ondo. Mallorca irla ederra da, eta aukera asko dituzu.

Nola hartu zintuzten taldean? Nolakoa da?

Oso ondo hartu naute, hasieratik. Taldean adin tarte ezberdinetako jokalariak daude; jende oso gaztea dago, baina baita nire adin inguruko taldetxo bat ere. Egia esanda, oso eroso sentitu naiz. Aurretik taldea ezagutzen nuen, nire bikotekideak haien kontra jokatu izan duelako, eta banekien nesken taldea ere bazegoela.

Maialen Esnaola, Atletico Baleares taldearekin egindako aurkezpeneko irudian. M.E.

"INOIZ BAINO DENBORALDI-AURRE LUZEAGOA IZAN DUGU: BEHARRA DUGU BERRIZ JOKATZEKO"

Inoiz baino luzeagoa izan da denboraldi-aurrea; zer moduz joan da prestaketa?

Oso luzea izan da, hein batean arraroa ere, inoiz ez baitugu hain denboraldi luzea izan. Behin esan zigutenean 18an hasiko ginela, data hori zehatz izanda, gogo handiagoz hasi ginen entrenatzen. Ordura arte, ziurgabetasun puntu hori genuen, baina, egutegia finkatuta, orain gogor lan egitea tokatzen da.

Ligari dagokionez, zer moduz zaudete lehen partidurako?

Datorren asteburuan hasiko dugu liga: hilaren 17an, zehazki. Nesken kasuan, sei hilabete daramatzagu geratuta, ez da ezer mugitu ordutik, eta gogotsu gaude berriz ere jokoari ekiteko. Dena bertan behera geratu zenetik ez da ezer ere egon, eta irrikaz nago berriz ere partidu bat jokatzeko.

Nor izango duzue aurkari lehiara itzulera egiterakoan?

Lehen jardunaldia Mallorcan bertan dugu,hemengo beste talde baten aurka, Son Sardina taldea. Hiru ekipo gaude, guztira, irlan, eta gainerako partidak jokatzeko Bartzelona ingurura joan behar dugu. Nik ez ditut hemen gertuko aurkariak oraindik oso ondo ezagutzen, baina, esan didatenez, nahiko talde gogorra da, zelai txikia dute, gainera, eta, hortaz, aireko joko asko egongo dela aurreikusten dugu, kontaktu askoko partidua. Bagabiltza prestatzen; hortaz, ea zer egiteko aukera dagoen.

Hasiko duzuen denboraldiari begira zeintzuk dira helburuak?

Aurtengo taldea goiko postuetan ibiltzeko helburuarekin sortu da, jokalari indartsuak dituzte eta igoeraren bila joateko asmoa dago taldean, aukerak daudela ere uste dut. Nik neuk ere ahalik eta hoberen iritsi nahi dut ligara, eta ea jokatzeko aukerak ditudan.

Txapelketa taldeko gimnastak entrenamenduan, eguaztenean. ARIZNOA ELKARTEA

Ariznoako gimnastak ere, denboraldi berria prestatzen

Gimnasta federatuak joan den astetik dabiltza lanean; eskola mailakoek, aldiz, asteon ekin diote ikasturteari

J.O. BERGARA

Urriaren 1etik aurrera posible dute eskola mailako kirolari txikiek entrenamendu saioetara bueltatzea, eta, hain zuzen, hala egin dute Bergarako Ariznoa gimnasia erritmiko elkarteko gimnastek.

Aurrebenjamin mailatik gorako umeek asteon hasi dituzte entrenamenduak, Ipintzako gimnasioan. Protokoloak ezartzen dituen neurriak betetzeko hainbat moldaketa egin dituztela azaldu du Ainize Lizarralde entrenatzaileak: "Gehienez, hamalauko taldeak daude, eta taldeen artean kontakturik ez egoteko ordutegian aldaketak egin ditugu. Tenperatura hartu, eskuak sarritan desinfektatu eta kontaktua ahalik eta gehien murriztu da. Materiala ere ez partekatzen saiatu gara, eta hala denean higiene berme guztiekin desinfektatzen".

Txapelketetan aritzen direnek ere saioak hasi dituzten arren, oraindik ez dakite noiz izango duten lehiatzeko aukera, Gipuzkoako Federazioak ez baitu ezer jakinarazi. Hala ere, azaldu dute ohiko denboraldi batean ere txapelketak urtarril ostean hasten direla eta hilabete hauek prestatzeko izaten direla.

Labegaraieta gabe, moldatuz

Lehiaketa mailako taldeak, alebin mailatik gorakoak, Labegaraietako kiroldegian entrenatu ohi dira. Aurten, baina, COVID-19ak soilik ez, Labegaraietako lanek ere eragin berezia izan dute ikasturtean, eta aitortu dute "ahal den moduan" ari direla moldatzen: "Astelehenetan Bergarako udal pilotalekuan entrenatzen gara, asteazkenetan Ipintzako gimnasioan eta ostiralera Antzuolako pilotalekuan".

Erabakita daude Bergara Hiriaren finaleko partidak

Martitzenean jokatu zituzten Bergarako Udal Pilotalekua Bergara Hiria emakumezkoen pilota txapelketaren III. aldiko finalaurreko partidak.

Promes mailan, Uharteko Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu nagusitu ziren Bergarako Uxue Zubizarretaren eta Lemoako Ainhoa Romeroren aurkako partidan (22-8). Nagusien mailan, Ainhoa Ruiz de Infantek eta Maite Ruiz de Larramendik osatutako bikoteak 22-14 irabazi zuen, Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirren aurka.

Hala, erabakita geratu ziren datorren astean jokatuko dituzten finalak: promesetan, M. Barrocal eta E. Gaminde L. Salsamendiren eta A. Mendibururen aurka lehiatuko dira; nagusietan, I. Agirre eta O. Ruiz de Larramendi A. Ruiz de Infanteren eta M. Ruiz de Larramendiren kontra arituko dira.

Aurreko tailer bat: Santamaria –urdinez– pouring teknika bidez paperean estanpatuak sortzeko prozesua azaltzen. XABI LARRAÑAGA

Artearen bidez sortzeko gonbita egin du Beart-ek

Bueltan dator sorkuntza artistikoaren tailerra, marrazketa, pintura, eskultura eta argazkilaritza lantzeko; Amaia Santamaria izango da irakaslea: "Batzuek uste dute artista jaio egiten dela, eta uste okerra da; denok hel gaitezke gustuko zerbait sortzera"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bueltan dator, Beart arte elkarteko Amaia Santamaria arte graduatu bergararren eskutik, sorkuntza artistikoa lantzeko ikastaroa. Marrazketa, pintura, eskultura eta argazkilaritza landuko dituzte, besteak beste.

COVID-19ak eraginda bertan behera gelditu zen tailerra iaz, baina ikasturte berriarekin batera saioak berriz ere martxan jartzeko asmoa du Santamariak. "Aurreko urteetan multzoka planteatzen nuen ikastaroa; lehenengo hiruhilekoan pintura lantzen genuen, gero eskultura eta gero argazkilaritza. Orain, ideia da planteamendua ez izatea horrela, eta diziplinaz gaindiko tailerra izatea. Beste era batera esanda, egunerokoan diziplinak harremanetan jartzea eta ikuspegi hedatu batekin jardutea da nire asmoa", azaldu du. "Helburua da nork bere interesak arakatzea, jolastea, probatzea... Eta nik hori egiteko baliabideak eskaintzea".

Arte heziketa lantzeko "beharra"

Santamaria orain bi urte hasi zen Bergaran sorkuntza tailerrak gidatzen. Garrantzia ematen dio irudimenari eta baita ere nork bere teknika garatzeari. Eskaintza helduendako dela esan du, eta edonork har dezakeela parte. "Sinistuta gaude batzuk jaio egiten direla gauza hauetarako, eta uste okerra da. Hezkuntzan ez da arte heziketa lantzen. Kopiatzen ikasten dugu eta erreprodukzioak egiteko txarrak bagara pentsatu ohi dugu ez dugula balio. Gezurra da. Denok hel gaitezke gustuko zerbait sortzera. Kontua da esperimentatzea eta egiten goazen heinean prozesuak garatzen joatea". Azaldu duenez, lan giroa sortu gura du Santamariak saio horietan. Materialekin esperimentatzeko aukera ere zabaldu gura du: "Irudigintza lantzeko erabiliko ditugu akrilikoak, transferrak, pinturak, argizaria... Eskulturarako moldeak, eskaiola... Etxean ditugun materialak ere erabiliko ditugu". Argazkigintzan ere egingo dituzte urratsak, kamera beltzarekin zein argazki digitalekin: "Saiatuko naiz artisten lanak ekartzen, eta gero nork bere lana garatzeko aukera izango du". Emaitzak baino gehiago lan prozesuan jarri nahi du arreta. "Gehienetan, emaitza ikusten dugu, eta ez horren atzean dagoen lan prozesu guztia".

IZENA EMATEKO: 690 25 14 50 TELEFONO ZENBAKIA EDO 'BEART.ELKARTEA@GMAIL.COM' HELBIDEA

Astelehena edota egubakoitza

Astelehenetan edota egubakoitzetan izango dira saioak, 17:30etik 20:30era. Izena emateko edo argibide gehiagorako, interesatuek bi bide dituzte: 690 25 14 50 telefono zenbakira deitzea (Amaia Santamaria) edo *beart.elkartea@gmail.com* helbidera idaztea.

Lehen kontzertua: Aitor Olea eta Bergarako Musika Eskolako umeen abesbatza. I. SORIANO

Organo Zikloko bigarrena egingo dute bihar, Santa Marina elizan

Gazteak izango dira protagonista 20:00etan hasiko den kontzertuan: Mikel Ansola organista eta Akelarre abesbatza

J.B. BERGARA

Joan den asteburuan abiatu zuten Organo Erromantikoaren Zikloa. Bergarako, Azpeitiko eta Azkoitiko udalek Fray Joseph de Etxebarria organoaren adiskideen elkartearekin elkarlanean urtero antolatzen dute zikloa, duela 21 urtetik.

Helburua da organoari balioa ematea eta "organo jole handiak" entzuteko aukera eskaintzea. Pandemiak eragindako kalteak tartean izanda ere, zikloarekin hartutako konpromisoarekin aurrera egitea erabaki dute antolatzaileek, nahiz eta, hori bai, segurtasun neurri zorrotzekin ari den izaten. Bergarako emanaldiekin urriaren 3an hasi ziren, Santa Marinan, Aitor Olea organo-jolearen eta Bergarako Musika Eskolako umeen abesbatzaren partaidetzarekin. Urriaren 10ean eta 17an ere izango dira kontzertuak Santa Marinan.

Ansola eta Akelarre abesbatza

Bihar, Mikel Ansola organista gazteak eta Akelarre abesbatzak emango dute kontzertua; Santa Marina parrokian, 20:00etan. Ansola (Markina-Xemein, 2000) bere jaioterrian eta Ondarroan hasi zen musika ikasketekin, eta, gerora, Bergarako Musika Eskolan jarraitu zuen organoa ikasten, Aitor Olea eta Josean Pascual irakasleekin. Loreto Fernandez Imaz organistarekin jarraitu zuen organoa ikasten Donostian eta gaur egun Musikenen ari da.

Ansolarekin batera Akelarre abesbatzak hartuko du parte kontzertuan. Akelarre abesbatza hamasei kidek osatutako ahots nahasien ganbera abesbatza da. 19 eta 29 urte bitarteko taldetxo batek 2018ko abenduan ekin zion lanari, Xabier Mendez Aretxabaletaren gidaritzapean; musika garaikideko eta klasikoko obrak interpretatu ohi dituzte.

OHARRAK

Euskaraldia: lokal berria martxan Barrenkalean

Izena emateko, zalantzak argitzeko eta askotariko produktuak erosteko aukera egongo da Barrenkaleko 14. zenbakian dagoen lokal berrian. Astelehenetan, martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan 17:30etik 20:30era egongo da zabalik eta eguenetan eta zapatuetan, berriz, 11:30etik 13:30era. Telefonoa: 688 60 43 14.

Brigade Loco: disko berriaren aurkezpena

Amets bati lotuta diskoa aurkezteko gaur eta bihar kontzertua emango dute Azpeitiko San Agustin gunean. Sarrerak, agortuta.

Ereindajan zabalik egongo da urriaren 12an

Topagunea ohiko ordutegian irekiko dute: "Ez dugu zer ospatu".

16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!

Banatu ditugu **Udako Argazkien XVI. Goiena Lehiaketako** sariak. Lau saridun izan ditugu. **Saioa Ugarteburuk,** *Labenne* argazkiarekin, ***Protagonistak* kategoriako saria** irabazi du –Eroski Arrasateren eskutik Samsung Galaxy A20e smartphonea–. **Maika Gallastegik,** *Tximistarri* argazkiarekin, ***Euskal Herrian* saileko saria** irabazi du –Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarendako bazkaria edo afaria–. **Julen Axpek,** *Marboreko lakua* argazkiarekin, ***Nazioartea* kategoriako saria** irabazi du –Arrasate Bidaiak-i esker, Zumaiako Zelai talasoterapian bi pertsonarendako spa zirkuitua eta Zelai menua–. Azkenik, **Hodei Gomez de Balujerak** lortu ditu boto gehien herritarrengandik, eta harentzat izan da ***Publikoaren saria*** –Bergarako Ereindajan-en eskutik, bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra–. Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!

NAZIOARTEAN SARIA

Julen Axpek Arrasate Bidaiak-en eskutik jaso du saria.

PROTAGONISTAK SARIA

Saioa Ugarteburuk Eroski Arrasateren eskutik jaso du poltsikoko telefonoa.

PUBLIKOAREN SARIA

Hodei Gomez de Balujera, Bergarako Ereindajan-ek emandako saskia jasotzen.

EUSKAL HERRIAN SARIA

Ainhoa Aranak jaso du Gure Ametsako saria, Maika Gallastegiren izenean.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: EROSKI ARRASATE · GURE AMETSA Restaurante · Jatetxea · ARRASATE BIDAIAK · BERGARA EREIN DA JAN

"Ingurumenarekiko delitua" Deskargan

Gipuzkoa mailan hazi egin da legez kanpoko zabortegien kopurua. Antzuolan, esaterako, mota horietako lau zabortegi ditu identifikatuta Udalak. Diputazioak zabortegien txostena osatu du, eta irtenbidea emateko dirulaguntzak eskainiko ditu

Maider Arregi ANTZUOLA

Aspaldidanik, Antzuolako Udalak identifikatuta ditu zabortegi bilakatu diren hainbat gune, bai Deskargan eta baita Galartzan ere. "Deskargako bihurgune batean dugu denon bistara bat, gorago beste bat dago eta Deskarga gainean, Trekutz alderako pistan sartuta, beste bat. Galartza auzora bidean ere badugu legez kanpoko beste zabortegi bat identifikatuta", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Une honetan handiena eta ikusgarriena Deskargako errepide zaharreko bihurgune batean dago (Ikus argazki nagusia). Obretako askotariko materiala, haurren jolaserako motoa, etxetresna elektronikoa, askotariko plastiko motak... guztia pilatuta eta bazterrean propio botata dago bertan. "Basozaina, Ertzaintza zein Udala tarteka igarotzen dira ingurua zaintzeko eta norbait harrapatzeko, baina gure helburua da egoera honi irtenbidea ematea eta arazoa konpontzea. Horregatik, zaintza lanez gain, jendeari hau egin beharrik ez dagoela esan gura diogu. Uste dut kontziente izan behar dugula gu hemen bizi garela eta gure ondorengoek ere hemen bizi behar dutela. Etorkizunean ez dugula horrelako herentziarik utzi gura, alegia".

Deskargako bide zaharreko bihurgune batean dagoen legez kanpoko zabortegia. M.A.

Kopurua haziz doa

Antzuolako alkateak adierazi du halako zabortegien kopurua azken urteetan hazi egin dela Gipuzkoa mailan: "Gaur egun, garbiguneetan obra hondakinak eramateko obra baimenaren kopia beharrezkoa da. Baina badirudi baimenik gabeko obrak ugaritu egin direla, eta horren aurrean euren arazoa denon arazo bilakatzen dutela halako zabortegien ondorioz. Ohartu gara Gipuzkoa mailan ia desagertuta zegoen arazo bat gaur egun goraka doala".

Zabortegiei irtenbidea

Gipuzkoako Diputazioak legez kanpoko zabortegien txostena kaleratu berri du. Hasiera batean Antzuolakoak aintzat hartu ez bazituen ere, Udala jarri da harremanetan Diputazioarekin txostena osa dezaten. "Gaizki-ulertu bat egon da, baina zuzendu dugu, eta guk herriko zabortegi guztien argazkia eta informazioa bidali dugu Diputaziora; online duten legez kanpoko zabortegien txostena eguneratu dute jada", argitu du Antzuolako alkateak.

Orain, ordea, Diputazioak arazoari irtenbidea emango dio, bi bide erabilita: batetik, kostaldeko eta erreka ertzetako isurtegietakoa konpontzea du helburu. Kasu horietan, jendea kontratatuko dute bide profesionalaren bitartez zaborra desagerrarazteko. Antzuola moduko kasuetarako, aldiz, dirulaguntza eskaera bidezko bidea izango da. "Gureak bezalako zabortegien kudeaketa udalon esku utziko dute, guk bideratu dezagun. Hala, dirulaguntzak eskainiko ditu Diputazioak eta eskaera egingo dugu lehenbailehen arazoa konpon dezagun Antzuolan. Zabortegiak desagerrarazteko plan bat egin beharko dugu, jakina. Beharbada, kamerak ere jarri beharko dira, edo kartelak, jendea ohartarazteko; dena aztertzeke dago, eta aukerak zabalik".

Ingurumenaren aurkako delitua

Era berean, Antzuolako Udalak gogorarazi gura izan du mota hauetako jarrerak ingurumenaren aurkako delitu larriak direla eta Deskargako zabortegian hondakinak bota izanagatik jada jarria daukala salaketa eta isuna Ertzaintzak. "Deskargan une honetan ez dago trafiko askorik eta gune lasaia da zaborra edonork modu errazean botatzeko. Ez dakigu nork botatzen duen zaborra zehazki, eta ez dut inor nabarmendu nahi, baina jakin iazko urtearen bukaeran antzuolarra ez zen pertsona bat harrapatu genuela. Ertzaintzak salaketa jarri zion, eta, botatako hondakina jasoarazteaz gain, isuna ere jarri zion".

"HELBURUA DA JENDEA KONTZIENTZIATZEA ETA ZABORTEGIEN ARAZOA AMAITZEA"

NIRE USTEZ

JUAN ANTONIO ITURBE LEZETA

Antzuolan errekari kiratsa dario!

Ariztin, Antzuolako ur-kolektoreak bere ur zikinak inongo tratamendurik gabe zuzenzuzenean errekara botatzen ditu. Puntu horretatik behera erreka kutsatuta doa eta ur emari txikia duenean kirats nabarmena botatzen du.

Antzuola eta Bergara arteko bidegorri edo errepidean oinez, bizikletan edo autoan ibiltzen den edonork usaindu du azken bi hilabete hauetan kirats nazkagarri hori, hain justu ere.

40 urte dira egoera honi, utzikeriaz, URA Agentziak irtenbiderik ematen ez diola. 1.500 metro luze dituen Antzuolako eta Bergarako ur zikinen kolektoreen arteko lotura sinplea ez egitearren.

Azken hamar urte baino gehiagotan, URA Agentziaren aldetik, antzuolarrok jasotako promesa, luzapen, gezur eta irizpide aldaketek –azkena autobidearen obrarekin batera bai ala bai egingo zela– jasangaitz egiten dute ulertzea 2020an ere ez dela egingo, eta orain arte bezala jarraituko dugula aurrerantzean ere.

Utzikeria ulertezin honek erantzuleak ditu, URA Agentzia eta Eusko Jaurlaritza, EAJ eta PSE, hurrenez urren.

Antzulako ur zikinak Mekolaldeko araztegian tratatu behar dira lehenbailehen eta egoera honi behin betiko irtenbidea eman behar zaio.

Antzuolatik Bergararako kolektorearen lotura ez egiteko aitzakia gehiagorik ez dugu nahi.

Sinadura bilketa abiarazi dute Kutxabanken murrizketen aurka

Atzo, eguena, hasi zuten sinadura bilketa, eta gaur, Kutxabanken bulego aurrean eta Eroskin izango dira

Maider Arregi ANTZUOLA

Kutxabankek Antzuolan eskaintzen zituen zerbitzuen murrizketa dela eta, Landatxopek eta Antzuola Lagunkoiak sinadura bilketa abiatu dute asteon. Atzo, eguena, ekin zioten sinadura batzeari herriko hainbat auzo eta gunetan, goiz zein arratsaldez; eta gaur, egubakoitza, emango diote jarraipena.

Kutxabankeko bulego inguruan 10:30etik 11:30era bitartean izango dira sinadurak batzen; eta 11:30etik 12:30era, berriz, Eroski aurrealdean.

"Sinatzen dugunok ez gaude ados Kutxabankek zerbitzua murrizteko hartu duen erabakiarekin. Horregatik, banketxeari eskatu gura diogu hartutako erabakia bertan behera uzteko eta berriro ere zerbitzu osoa Antzuolan eskaintzeko", azaldu dute Landatxopeko eta Antzuola Lagunkoia elkarteko kideek.

Jakinarazi dute herritarrek sinatzeko aukera izango dutela herriko taberna eta dendetan eskura egongo diren sinadura orrien bitartez.

Andoni Iparragirre, goian, ezkerretik hasita bigarrena, iaz, Lesbosen. ANDONI IPARRAGIRRE

"Lesbosen bi mundu guztiz paralelo daude"

Boluntario joan zen Lesbosera Andoni Iparragirre iaz, eta han bizi izandako esperientzia kontatu dio GOIENAri. Urtebetean egoera "dezente" aldatu dela nabarmendu duen arren, gogorarazi du "egoera kaskarrean" bizi direla Morian

Karmele Uribesalgo ANTZUOLA

Azken asteetan, informazioaren jomugan egon da Moriako errefuxiatuen kanpalekua. Duela hilabete izandako suteak alarma guztiak piztu ditu, baina han egondakoek jakinarazi dute egoera aspalditik dela larria. Joan den urteko udan izan zen Lesbosen Andoni Iparragirre antzuolarra. Boluntario joan zen, Zaporeak elkarteari esker. Errefuxiatuei janaria prestatzen eta banatzen aritu zen hiru astez. Irla hartako egoera ezagutzeko eta laguntzeko aukera izan zuen Iparragirrek.

Lesbosen "bi mundu guztiz paralelo" daudela azaldu du: "Alde batetik, Mediterraneoko Europa dago, eta hor taberna batean lasai asko egoteko aukera daukazu; bestalde, pobrezia absolutuan bizi direnak daude, esperantza guztia galduta preso dauden pertsonak". Gauzak horrela, bi muturrak ikusi daitezkeela adierazi du. "Oso gogorra" iruditu zitzaion Lesbosen ezagututakoa, "kolpea" bezala ere definitu du, eta onartu du hasieran kosta egin zitzaiola errealitate horri aurre egitea. "Jatorria dela eta, eskubiderik gabe bizi den jende asko dago", azpimarratu du Iparragirrek.

Egoera kaskarrean

Iparragirre Morian izan zenean 12.000 lagun zeuden 2.000-3.000 pertsona inguru sartzen ziren kanpaleku batean. Antzuolarrak azaldu duenez, orduz geroztik jendea etengabe joan da hara, eta egoera zaildu egin da. "Baldintza oso kaskarretan bizi dira, apenas dute urik eta zerbitzurik beharrak asetzeko", adierazi du.

"SEKULAKO MAFIAK DAUDE BAI ITSASOA ZEHARKATZEKO, BAITA JANARIA BANATZEKO ORDUAN ERE"

Horrez gain, Iparragirrek gogorarazi du kontuan izan behar dela arraza, kultura eta ohitura askotariko jendea batzen dela kanpamentuetan: "Sarri, pentsatzen dugu errefuxiatu guztiak berdinak direla, baina hainbat jatorri eta erlijiotako jendea izaten da horrelakoetan". Desberdintasun horiek tentsio uneak sorrarazi dituztela azaldu du Iparragirrek. "Europako Batasunetik ere ez da laguntzarik iristen eta sekulako mafiak daude bai itsasoa zeharkatzeko, baita janaria banatzeko orduan ere", gaineratu du

Laguntza Euskal Herritik

Anelkar elkarteak duela bi aste Antzuolan egindako janari bilketaren antolaketa lanetan aritu zen Iparragirre, eta nabarmendu du herriak "ederki" erantzun zuela. Aurrerantzean, Euskal Herritik eskainiko du laguntza, eta herritarrei mobilizatzeko eta gobernuak presionatzeko dei egin die.

Uxue Iparragirre futbolaria Eibarrekin jokatzeko prest da

Lehen Mailako taldearekin konbokatuta egon da, nahiz eta oraindik jokatzeko aukerarik izan ez duen

K. U. ANTZUOLA

Emakumezkoen Eibar taldeak larunbatean jokatu zuen ligako lehen partidua, eta Uxue Iparragirre antzuolarra konbokatuta egon zen. Lehen Mailara igo berri da taldea, eta ekin diote jada lehiaketari. Partidu bakarra jokatu dute, momentuz, Real Betisen kontra, eta 1-0 irabazi zuten. Iparragirrek ez du izan oraindik jokatzeko aukerarik, baina badu datozen asteetan zelaira ateratzeko esperantza eta gogoa: "Orain arte bezala jarraitzen badut lanean, jokatzeko aukera izan dezaket".

Uxue Iparragirre. EIBAR SD

Iparragirrek aitortu du oraindik ez duela asimilatu non dagoen. "Futbola gustatzen zaion edonorentzat hor gora iristea lorpen handia da", azpimarratu du. Orokorrean, futbolari gipuzkoarrentzako Eibar "erreferente" bat dela gaineratu du atzelari antzuolarrak, eta emozio handiarekin bizi du.

Lehen Mailan aritzea "gogorra" izango dela aitortu du. Gainera, bidaia luzeak egin beharko dituzte; bihar, esaterako, Valentzian jokatuko du taldeak, Levanteren aurka.

Norbanakoen txanda da orain, entitateekin "gustura" geldituta

Euskaraldirako norbanakoen izena ematea martxan dago, eta Antzuolako antolaketa taldea lanean da. Aurtengo edizioa prestatzeko bi batzar egin dituzte dagoeneko. Lehenengoa irailaren amaieran egin zuten, eta hamabost herritar inguru bildu ziren ekimenaren inguruan informatu eta lanak banatzeko. Bigarren bilera, berriz, urriaren 1ean izan zuten, eta entitateen parte hartzearen gaineko balorazioa egin zuten. Euskaraldiko Antzuolako koordinatzaile Lierni Legorburuk adierazi du "gustura" daudela bildutako emaitzarekin, eta gogorarazi du norbanakoen txanda dela orain.

Datozen asteetan berriz bilduko dira antolaketa lanetan jarraitzeko, baina zehazteke dago data. Legorburuk herritar oro animatu nahi izan du bai parte hartzera, baita prestaketa lanetara batzera ere.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

"Zure liburua klik batean eskuragarri... ederra da"

CARLOTA ALFARO ORTEGA IDAZLEA

Fikziozko laugarren eleberria kaleratzear du, genero erromantikoan eta gazteleraz. Autoekoizlea da eta eguaztenean aurkeztuko du liburua, udal liburutegian, 18:30ean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Idazlea den galdetuta, barre egiten du. Gustuko du idaztea, eta kito. Doala aurretik ezer gutxi aurreratuko dugula hemen azken eleberriari buruz. Aurkezpen ekitaldia dago horretarako.

Urte asko dira idazten duzula?

Irudimen handikoa izan naiz beti, eta umetan istorio asko izaten nituen buruan. 2008ko krisialdian hasi nintzen idazten. Aldaketa handiak izan ziren nire bizitzan, eta burua berriz bete zen istorio askorekin. Idatziz jasotzea erabaki nuen. Hala, lau eleberri eta ez fikziozko hiru liburu argitaratu ditut. 2021ean beste bi lan argitaratzea aurreikusten dut. Ia amaituta daude.

Genero erromantikoa beti. Zergatik?

Ez fikziozko hiru lan ere argitaratu ditut, baina eleberriak beti erromantikoak, bai. Ez dakit zergatik. Kontsumitzailea naiz, eta etorri ere halakoak etortzen zaizkit burura.

Aldekoak eta kontrakoak ditu.

Aurkako asko izan ditu, eta ditu oraindik ere, baina, esanak esan, onartu behar da irakurle gehien dituen generoa dela. Gainera, publiko fidela eta konpultsiboa du. Ekoizpena ere oso handia da. Eta beste gauza bat: ez dute soilik emakumeek kontsumitzen.

Genero erromantikoaren barruan azpiatal gero eta gehiago daude.

Bai. Aldaketa handiak egon dira. Bi, nagusiki: alde batetik, armairutik atera da. Bigarren mailako generoa izateari utzi, eta jendeak ez du jada erdi ezkutuan kontsumitzen. Bestetik, istorioak eta pertsonaiak gaurkotu egin dira. Emakume protagonista proaktiboak agertzen dira, gizonezkoak ez dira hain matxoak, liburuen azalak ere ez dira hain txepelak... Eta azpigeneroak ugaritu egin dira. Aipatuko nituzke heldu berrien azpiatala eta LGTB azpiatala.

Zu heldu berrien azpiatal horrekin identifikatzen zara, ezta?

Carlota Alfaro Ortega, kaleratu berria duen eleberriarekin etxeko bulegoan. C.A.O.

"ARRAKASTA HANDIA DU GENERO ERROMANTIKOAK, ETA EZ SOILIK EMAKUMEEN ARTEAN"

Bai. Sortzen ditudan pertsonaia guztiak unibertsitatea amaitzeko adin horretan daude. Ez dakit zergatik. Iruditzen zait bizitzako bidegurutze interesgarri horietako bat dela: ametsak, etorkizunarekin lotutako erabakiak... Une berezia bizitzan.

Zure kasuan, zelakoa da sorkuntza prozesua?

Irudiak etortzen zaizkit burura eta datozen moduan idazten ditut. Ez dut idazten dudana aurrez pentsatzen. Idazketa automatikoa egiten dut, inolako antolaketarik eta plangintzarik gabe. Ikusten badut istorioa forma hartzen doala, orduan hasten naiz estruktura bat antolatzen. Zentzu horretan, ez naiz idazten hasi aurretik eskema guztia prest duen *mapa* idazle bat, baizik eta sorkuntza lanak nora naraman ikusten doan *brujula* idazle bat. Gero, egia da formakuntza apur bat ere jaso dudala. Autodidakta naiz, neurri handi batean, baina sormenezko idazketari buruzko ikastaroren bat egin dut.

Autoekoizlea zara. Nola dago panorama gaur egun?

Nekeza da argitaletxe batekin argitaratzea, eta online publikatzen dut. Amazon eta Smashwords plataformak erabiltzen ditut, blog bat dut, sare sozialetan nago, zuzenketa lanak beste idazle batek egiten dizkit, azalak nik egiten ditut... Amazonek, esaterako, salmenten %70 ematen dit. Ez naiz aberasten, baina ez dut dirurik galtzen. Gaur egun, bestalde, idazle ekintzailea izan behar duzu. Ez da nahikoa idaztea eta online publikatzea. Promozioa ere norberak egin behar du eta sare sozialetan egotea ezinbestekoa da. Marketin tekniketan trebatzea ere garrantzitsua da. Baina zoragarria da argitaratzeko aukera izatea eta zure liburua mundu osoarentzat eskuragarri egotea klik batean. Batzuek horrela hasita lortu dute argitaletxe batekin fitxatzea. Idazle oso gutxi bizi dira literaturatik. Gehienok beste lanbide bat dugu, jaten ematen digun beste lanbide bat.

Karabietan dagoen Egoetxeaga auzorako bidegurutzea. L.Z.L.

Bi adin txikiko galdu ziren Egoetxeagan aurreko asteburuan

Ilundu egin zitzaien, eta erreskate taldeek aurkitu zituzten. Uztailean beste mendizale bat ibili zen galduta

L.Z.L. ELGETA

Kontuz ibili beharreko parajea da, batez ere iluntzen badu edo eguraldi aldaketa badator. Ertzaintzak eta Eibarko suhiltzaileek bi erreskate egin dituzte hiru hilabeteko epean.

Domekan, 14 eta 15 urteko bi eibartar galdu ziren. "Bizikletan enduroa egiten ari zirela ilundu, eta etxerako bidea aurkitu ezinik gelditu ziren. 20:30ean deitu zuten abisua emanez", azaldu du bilaketa lanetan ibilitako suhiltzaileetako batek. "Gurasoetako bat gurekin zen, eta, mugikorrak zituztenez, kontaktuan izan ginen bilaketa osoan. Ertzainek aurkitu zituzten, 22:00 aldera. Hotzak zeuden, baina onik".

Uztailean, 51 urteko gizonezkoa

Ez da lehen aldia Egoetxeaga inguruan jendea galtzen dela. Uztailean, 51 urteko mendizale bat galdu zen, eta erreskatatua izan zen. "Basoa da eta bidezidorrez eta bidexkaz beteta dago. Ingurua ondo ezagutzen ez baduzu, erraza da galtzea, eta iluntzen badu arriskua areagotu egiten da. GPSrik edo maparik gabe, gaizki. Kontuz ibili behar da", azaldu du suhiltzaileak.

ELHUYAR

Leire Sangronizek jaso du saria

Aurtengo sarituekin batera Sangronizek barikuan jaso zuen CAF-Elhuyar saria Donostiako Ernest Lluch Kultura Etxeko erakusketa aretoan egindako ekitaldian. Apirilean eman zuten sarituen berri, baina COVID-19agatik ez zuten sari banaketa ekitaldirik egin. Dibulgazio-artikulu onenaren CAF-Elhuyar Saria eskuratu du Kimikan doktorea den elgetarrak.

Eskola kirola eta ludoteka martxan dira

Neska-mutikoei zuzendutako eskolaz kanpoko jarduerak ere badoaz poliki-poliki martxa hartzen. Egoera epidemiologikoaren bilakaerak markatuko du ikasturtea. Hala, antolatzaileek adierazi dute denon ardura dela ezarritako neurriak kontuan hartzea

L.Z.L. ELGETA

Atzeratu egin da aurten eskola kirolaren hasiera. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena izanik, erakunde horren irizpideen zain egon dira Udala zein Herri Eskola Elgetara egokitutako protokoloa definitzeko. "Protokolo orokorra jaso dugu Aldunditik, eta Elgetako instalazioetara egokitu dugu. Esan digute gurasoek onartu egin behar dutela. Horregatik sinatu behar dute konpromiso idatzia", azaldu zuen Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Ibai Etxanizek gurasoekin eguaztenean egindako informazio batzarrean.

Patinajea eta halako jarduera indibidualak egin beharko dituzte aurten. ARTXIBOA 2010

Ikasturte hasieran ez da ez lehiaketarik ez topaketarik egingo, eta aste barruko saioetarako hiru talde osatu dira. LH-3ko taldean hamahiru neska-mutiko daude izena emanda, LH-4koan bospasei eta LH-5-6koan zortzi. Whatsapp difusio taldeak osatuta daude, eskola kirola dagoen egunetan frontoia erabiltzeko lehentasuna izango dute, eta edozein gertaeratarako Etor Garate da osasun arduraduna.

Desinfekzio lanak egoki egiteko, 50 minutukoak izango dira aurten saioak. Gainerakoan, umeek oinetakoak aldatu beharko dituzte sarreran, eta, aldagelak ezin direnez erabili, nork bere ura eramatea komeni da.

Futbola, saskibaloia eta eskubaloia izan dira eskola kirolaren oinarria urteetan. Aurten, bestelako jarduerak pentsatu beharko dira: banakakoak eta kontaktu fisikorik gabekoak. "Aldundia txosten bat prestatzen ari da, baina irteerak, dantza, malabarismoa, pilota banaka... halakoak izango dira", aurreratu du Etor Garate hezitzaileak.

"Zazpi erabiltzailerekin eman diogu hasiera ikasturteari ludotekan"

NEREA VILLA ARANTZETA UDAL LUDOTEKAKO BEGIRALEA



L.Z.L.

Aste honetan zabaldu ditu ateak ludoteka zerbitzuak. Han ere higiene neurri bereziak hartu dituzte.

Zabalik da ludoteka ere.

Astelehenean hasi ginen. 3 urteko bi, LH-1eko bat, LH-2ko hiru eta LH-6ko bat ditugu. 16:00etan jasotzen ditugu eskolatik gehienak.

Izen ematea zabalik da?

Hiru plaza gelditzen dira. Eskaera gehiago egonez gero aztertuko genuke nola antolatu espazioa higiene neurriak ziurtatzeko. Eguneko bonurik ez dago aurten. Egoerak ezinezko egiten du.

Egokitzapenik egin duzue?

Sarreran termometroa, gela eta erabiltzaile bakoitzeko aulki bat eta kutxa bat ditugu. Askaria egiteko bakoitzak bere eserlekua du, eskulanak egiteko nork bere materiala, jostailuak egunero aldatzen dira, egunero egiten dira garbiketa lan bereziak, ludoteka ahalik eta gehien aireztatzen da...

Programari dagokionez?

Eguraldi ona bada, kanpo espazioa erabiliko dugu; eta barruko ekintzak berrasmatu egin beharko ditugu.

Goizeko zaintzarik badago?

Maala guraso elkarteak antolatzen du eta zabalik da izen ematea. Zerbitzua ludotekan emango da aurten. Iaz, bospasei erabiltzaile ziren.

ASTE BARRUKO ESKOLA KIROL SAIOAK EGITEKO HIRU TALDE DAUDE OSATUTA

ELGETAKO UDALA

Gerrako erresistenteak gogoan

Domekan bete ziren 84 urte Intxortako frontea ezarri zela. *Intxortako atea*-n elkartu ziren Elgetako Udaleko eta Intxorta 1937 kultur elkarteko hainbat ordezkari lore eskaintza egiteko. "Debagoieneko gerrako haurrei omenaldia egitea zen asmoa, baina ezinezkoa izan zaigu (...) Egoera hobetutakoan, merezi duten omenaldia jasoko dute", azpimarratu zuten.

SARE

Mendi puntan ezin, eta plazan

Zapatuan 50 bat lagun elkartu ziren Elgetako plazan, Sarek egindako deialdiari erantzuna emanez. Beste hainbat herritan moduan, argazkia atera zuten presoen eta iheslarien auzia konpontzeko urratsak egiteko eskatuz. Galdaramuño, Azkonabieta eta Egoarbitza igotzea zen asmoa, baina eguraldiarengatik ekintza hori maiatzaren 8ra atzeratu da.

OHARRAK

Auzolana Egoarbitzan

Herri basoa auzolanean garbitzeko dei egin du Udalak astelehenerako, urriak 12. Boluntarioak 08:30ean elkartuko dira, plazan.

Mekanografia

Online mekanografia ikastaroa herri osora zabaldu du guraso elkarteak. Kluppy sistema da. Hamabi hilabeteko sarrera 25 euro da. Argibideetarako: *elgetakogurasoeskola@gmail.com*.

Zaldibar, liburua

Zaldibar zona cero liburua aurkeztuko du Ahoztar Zelaietak, urriaren 13an, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Ordua: 18:30ean.

Nerabeen hainbat botila festa antzeman dituzte

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak hainbat gazte identifikatu dituzte, salaketak ere egon dira, eta ez-jaietako egunetan egindako zaintza lanarekin lotzen dituzte udaltzainek euren kontrako pintaketak. Udalak salatu egin ditu eta babesa eskaini die udaltzainei

Oihana Elortza OÑATI

Zuek ere txakurrak zarete zioten pintaketak egin zituzten udaltzainen eraikinean zapatutik domekara bitartean. Asteburuan gauean ere zaintza lanetan ibiltzeagatik egin dizkietela uste dute udaltzainek, izan ere zaintza horretan hainbat botila festa antzeman zituzten eta gazte batzuk identifikatu.

Eraikinaren sarreran eta garajeko atean egin dizkiete pintaketak udaltzainei.

Gaitzespena eta babesa

Oñatiko udaltzainak 21:30ak arte egon ohi dira lanean, baina jaietan, gauez ere bai. Aurten jairik ez egon arren, ordutegi hori izan dute eta 03:00rak arte egon dira lanean. Tarte horretan tabernen eta bestelako lokalen edo egoitzen ordutegiak zaindu dituzte, batez ere, baina baita bestelako ekintzak ere, eta susmoa dute gaueko zaintza horregatik egin dizkietela pintaketak eraikinean. Zapatutik domekara bitartean egin zituzten, eraikinaren sarreran eta garajeko atean.

Udalak salatu egin ditu erabat pintaketa horiek eta babesa eskaini die udaltzainei. Izaro Elorza alkateak gaineratu du orokorrean egun lasaiak izan direla eta herritarrak oso ondo portatu direla ez-jaietan. Eta antolatutako ekitaldiek harrera oso ona izan dutela esan du.

16 eta 20 urte artekoak

Udaltzaingoak eta Ertzaintzak esku-hartze ugari egin dituzte azken asteburuan, jendea kalean edaten egotearren. Hainbat gazte identifikatu zituzten eta Ertzaintzak salaketak ere jarri zituen. Anbulatorioko aparkalekuaren inguruan, San Juan kalean, gazte batzuk hauteman zituzten botila festa egiten, eta sei lagun salatu zituzten; pertsona bat atxilotu ere egin zuten agintaritzaren agenteen aurrako atentatu-delitu batengatik eta gertakarien ondorioz, bi agente arin zauritu ziren Ertzaintzaren arabera. Gaur horretan beste lau salaketa jarri zituzten maskararik ez erabiltzeagatik: bi Foruen plazan eta beste bi San Anton kalean.

ASTELEHENEAN, 13 URTEKO GAZTETXOAK ERE ANTZEMAN ZITUZTEN BOTILA FESTETAN

Gune horretan ez ezik, lur azpiko aparkaleku publikoetan, Berezao auzoan, San Martingo zuhaiztian, Arkitekto Lizaur kalean, MU inguruan eta Olaiturrin eta antzeman dituzte botila festak azken asteburu honetan. Idoia Lazpita udaltzainburuak esandakoaren arabera, 16 eta 20 urte bitarteko gazteak ziren ikusi zituzten gehienak. "Gu eurengana gerturatu orduko ihes egin dute gehienek, baina batzuk identifikatu ditugu. Ertzaintza ere ibili da asteburuan eta haiek gehiago identifikatu dituzte. Gu 03:00rak arte egon gara lanean eta tarte horretan, batez ere, tabernen eta lokalen egoerak zaintzen ibili gara. Hor ez da inolako arazorik egon, ordutegiak bete eta arauak errespetatu dituzte tabernek. Ertzaintzak, ordea, kaleko egonaldiak zaindu ditu gehiago eta identifikazio gehiago egin ditu", azaldu du Lazpitak. Astelehenean, baina, beste hiru interbentzio egin zituzten udaltzainek botila festengatik, eta 13 urteren bueltako gaztetxoak ikusi zituzten horietan. Udaltzainburuak gaineratu du botila festak antzematen dituztenean gazteek lurrean uzten duten materiala jasotzen dutela eta harrapatuz gero identifikatu eta gurasoei deitu, pedagogia lanaz gain.

Karpako azkenak

Astebururakoak karparen azpian egingo diren azken ikuskizunak izango dira. Gero, karpa kendu egingo dute dagoen lekutik, eta hemendik aurrerako ekitaldiak herriko ohiko espazioetan egingo dituzte. Bihar, Hutsun taldeak eta Ortzi Acosta artistak *Urbasa* ikuskizuna eskainiko dute 20:00etan, eta etzi, bertso jarri musikatua egongo da, 12:30ean. Bietarako sarrerak aurrez hartu behar dira. Domeka goizean artisau azoka egongo da plazan.

Natur Eskolako kideak, erakusketako panel baten alboan. M.S.

Oñati errekako ekosistemari buruzko erakusketa jarri dute

Flora eta faunari buruzko informazioa jasotzen da horretan; asteburuko ekintzak bertan behera geratu dira

Maialen Santos OÑATI

Ibai-lagun astearen baitan, Oñati errekaren inguruko erakusketa jarri dute Natur Eskolakoek. Hamar panel informatibo jarri dituzte Oñati errekako hainbat puntutan, eta horietan azaltzen dira errekak ekosistema gisara dituen funtzioak, Aimar Uribesalgo Natur Eskolako kideak azaldu duenez. "Triana inguruan, Ultzegin, jarri dugu lehen panela, eta azkena, aldiz, Otadui zuhaiztiaren inguruan dago", zehaztu du. "Errekan izaki bizidunak daude, zuhaiztiak daude –haltza, gehienbat–, eta horren inguruko informazioa ageri da; baita errekan bizi diren espezie inbaditzaileen ingurukoa ere", argitu du.

Errekaren egoerari buruz galdetuta, azaldu du azken urteetan "hobera" egin duela: "Duela 100 urte inguru, arropa garbitzeko, aisialdirako... erabiltzen ziren errekak. Industria iritsi zenean ere bizkarra eman genien, eta, duela gutxira arte, guztiz kutsatuta egon dira". Hori horrela, "bizidun gutxi" ikus zitekeen erreketan, baina, azken urteetan uraren kalitatea hobetuz joan den heinean, bertako faunak ere "hobera" egin du.

Ekintzak, bertan behera

Martitzen arratsaldean, Duero ibaiari buruzko dokumentala eskaini zuten Natur Eskolakoek, ibai horretan dauden espezieen inguruko bideoa, hain justu. Astebururа begira ekintza gehiago zituzten antolatuta. Zapatuan, Arantzazutik Gesaltzara erreka ondotik oinez joateko asmoa zuten, eta domekan, aldiz, erreka garbiketa egiteko asmoa. Eguraldiaren eraginez, baina, bertan behera geratu dira ekintzak, eta aurrerago zehaztuko dute noiz egingo dituzten.

Txaloka ludotekan hilaren 14ra bitartean eman daiteke izena

Egokitzapen eta planteamendu berriekin ekingo diote ikasturteari Txalokan, jolasa erdigunean kokatuz. Oñatiko 3 eta 9 urte bitarteko umeendako eta familiendako egongo da zabalik eta 14ra bitartean ate irekiak egingo dituzte, ludoteka ikusi eta lana gertutik ezagutzeko. 15ean bilera egingo dute gurasoekin eta 19an ikasturtea hasi.

Sotoa erabilgarri egongo da martitzenetik aurrera

Urriaren 13an zabalduko dute sotoa eta martitzenetik igandera bitartean erabili ahal izango da, 17:00etatik 20:00ak arte. Txanda sistemarekin funtzionatuko du: 45 minutuko hiru txanda egongo dira, eta hamar pertsona gehienez bakoitzean. Txandak aurrez eskatu beharko dira, gaztelekuan edo 653 59 45 16 telefono zenbakira deituta.

Gonbidapena egin du Auzokok parte hartzeko

Egun Oñatin 36 hizkuntza ezberdin hitz egiten da eta aniztasun hori bultzatu gura du Auzokok, euskara ardatz hartuta. Euskara eta beste kultura, ohitura eta pertsona batzuk ezagutzea dute helburu, jolasak, tailerrak eta herrian ekintzak eginez

Oihana Elortza OÑATI

Zazpigarren ikasturtea abiaraziko du Euskaltzaleen Topaguneak Oñatiko Udalarekin batera martxan jarritako Auzoko programak. "Euskaratik urrun bizi direnentzat harrera programa bat da. Bere helburua herrian ditugun kultura eta hizkuntza desberdinak aintzat hartzea eta elkar ezagutzea da; betiere, euskara eta euskal kultura ardatz eta guztion arteko loturatzat harturik. Pertsonak, atzerritarrak zein bertakoak, euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea helburu duen egitasmoa da Auzoko, euren hizkuntzak eta kultur aniztasuna aitortuz eta baloratuz", azaldu du dinamizatzaileak, Carol Palaciosek.

Egitasmoan parte hartzen duten hainbat herritar saioetako batean. C.P.

Astean behin dira saioak

Euskaraz dakitenak eta ikasi gura dutenak elkartu, eta saio ezberdinak egiten dituzte euskara, Oñati, inguruak eta bertako zein kanpoko ohiturak eta kulturak ezagutzeko. "Antolatzen ditugun saioak beti dira dibertigarriak eta, batez ere, erabilgarriak, jolasen, dinamiken edo abestien bidez, esaterako. Ekintzak osagarriak ere antolatzen ditugu: irteerak, txangoak... eta herriko ekintzetan ere parte hartzen dugu", dio Palaciok. Ekimenean parte hartzeko bi bide zabaldu dituzte: *onati.auzoko@topagunea.eus* helbidea eta 661 74 35 01 telefono zenbakia.

"Sorkuntza eta zaintza gunea da niretzat Auzoko proiektua"

CAROL PALACIO AUZOKO PROIEKTUAREN DINAMIZATZAILEA

Bigarren ikasturtea egingo du Carol Palaciosek (Callosa d'En Sarria, Valentzia, 1990) Auzoko Oñati dinamizatzen.

Zer da Auzoko zuretzat? Nola bizi duzu?

Niretzat Auzoko da sorkuntza eta zainketa gunea. Sorkuntza gunea, errealitate desberdinak bizi dituzten pertsonen arteko harremana bultzatzen duen espazioa delako eta elkargune horretan gauza berri zoragarriak sortzen direlako. Eta zainketa, harremanak ehuntzeari eta elkar laguntzeari garrantzi handia ematen diogulako.

C.P.

Nolako taldea da Oñatiko Auzoko?

Oso talde dibertigarria da! Taldeko jendea zoragarria da, eskuzabalak dira eta beti gogotsua daude ikasteko eta irakasteko. Plazera da eurekin lan egitea, benetan!

Auzokideak eta auzotarrak zaudete talde horretan. Zer ikasten du batak bestearengandik?

Gakoa da auzokideek euskararako ibilbidea egitea auzotarren eskutik. Horregatik, bi profilak dira beharrezkoak, egitasmoa arrakastatsua gerta dadin. Beraz, herritar guztiak daude gonbidatuta Auzokon parte hartzera.

Zergatik merezi du Auzoko proiektuan parte hartzea?

Oso esperientzia aberasgarria delako, eta ez du lotura handirik eskatzen; astean behin 1,5 orduko saioak dira. Euskal Herrian dagoen kultur eta hizkuntza aberastasuna ezagutzeko modu paregabea da.

Txandako dendari bat zigilua jartzen. O.E.

Katilu-termoak banatzen hasi da Txanda bezeroen artean

Bat eskuratzeko, hamar zigiluz betetako kartilla entregatu beharko da elkarteko edozein dendatan

O.E. OÑATI

Katilu-termoak banatzen hasi da aste honetan Txanda dendarien elkartea. Kartillak atera ditu bezeroen artean banatzeko, eta erosketak egiten dituzten aldiro zigilu bat jasoko dute kartilla horretan. Betetakoan, elkarteko edozein dendetan entregatu dezakete kartilla, eta katilu-termoa eskuratu trukean. Horrelako 1.000 bat eskuratu ditu Txandak eta guztiak agortu bitartean iraungo du aste honetan bertan hasi duten *Bizi, erosi, maitatu Oñati* izeneko promozio kanpaina bereziak.

Bonoak.eus ekimena

Herriko merkataritzari lotuta, *bonoak.eus* ekimena jarriko dute datorren astean, Udalak "herriko hiri-ekonomia suspertzeko eta tokiko establezimenduetan kontsumo kontzientea bultzatzeko". 110.000 euro bideratuko ditu eta bonuen zenbatekoaren %20a diruz lagunduko. Herritarrek *oñati.bonoak.eus* helbidean edo ekimenean parte hartzen duen edozein komertziotan lor ditzakete bonuak. Dendariek saioak izango dituzte gaur, egubakoitza, plataformaren funtzionamendua ezagutzeko.

NIRE USTEZ

RAMON MARTIN

Gogoratzeko gordetzen duguna

"Gogoratzeko aukeratzen duguna, horixe gara gu" (Ted Chiang). Orain duela gutxi *El País*-en irakurrita… eta *Patria* etorri zait burura. Halakoetan bi maila ezberdin gurutzatzen dira: batetik, irakurketa pertsonal bat, idazle batena; bestetik, berriz, talderako *irakurketa,* kontakizun hori kanonikotzat jotzea. Salto hori aztertzeko formula bakarra da: jatorrizko testigantzetara jotzea –dokumentuetara, berrietara,…–, une horietan sortutakoetara, memoriak tindatzen dituen oroitzapenetara ere bai, baina kontrastea eginez.

Bada... aldaera bat proposatu daiteke; alegia, gogoratzeko gordetzen duguna izango gara. Gordetzea ez da gure gizarteko indargunerik indartsuena izan, ez, eta larrutik ordainduko dugu. Oroitzapen kontrajarrien borrokara goaz, kontakizunen borrokara. Oraindik garaiz bazabiltza testigantzak gordetzeko, gorde, edozein dokumentu, kontakizun… horretarako dagoen edozein lekutan: etxeko apalategian, elkarte batean, liburutegietan, artxiboetan… nahi duzun lekuan. Gorde, kontatu...

"Tropelari erronka jotzea gustatzen zait"

DANEL CASAIS TXIRRINDULARIA

Behin baino gehiagotan igo da podiumera Danel Casais txirrindulari oñatiarra azken lasterketetan, eta modu horretan bukatu gurako luke aurtengo denboraldia

Oihana Elortza OÑATI

Bigarren egin zuen Lazkaomendin eta Gipuzkoako erlojupekoan, Zumaiakoan hirugarren eta lehenengo Villatuertan (Nafarroa) eta Oñatiko Mikel Deuna sarian, besteak beste.

Emaitza horiek ikusita, bolada onean zaudela ezin uka, ezta?

Hala da, bai. Bolada onean nago, baina honen atzean prestaketa eta entrenamendu ordu asko daude.

Zenbat lan?

Oso zorrotza naiz eta asko entrenatzen naiz, astean egun batean bakarrik hartzen dut atseden. Elikadura ere zaintzen dut.

Konfinamenduak on egin dizula esan daiteke?

Ikusten nuen luze joango zela konfinamendua, eta lasai hartzea erabaki nuen: entrenatu bai, baina lasai. Errepidera ateratzea posible izan zenetik, gogortu egin ditut entrenamenduak. Eta emaitza onak eman dizkit taktika horrek. Beste batzuk topera ibili ziren etxean egon ginen asteetan, arrabolean, eta lehen lasterketetan oso fuerte ibili ziren, baina gero, ez horrenbeste. Nik, aldiz, alderantzizko prozesua izan dut.

Irabazi dituzun lasterketetan, Villatuertan eta Oñatin, esaterako, tropela utzi eta bakarrik egin dituzu kilometro asko. Hori da zure ezaugarrietako bat?

Txirrindulari mota ezberdinak daude. Nik, adibidez, aukera gutxi ditut helmugan lehena sartzeko denok tropelean heltzen bagara; ni baino hobeak dira asko esprintean. Aldiz, bakarrik ondo sentitzen naiz, gustura ibiltzen naiz. Entrenamenduak ere bakarrik egiten ditut asko, eta hori izan daiteke horren arrazoietako bat. Bestalde, lasterketan mugimendua egotea ere gustatzen zait eta ihesaldietan parte hartzea atsegin dut. Helmugara tropelari erronka jota heltzea gustatzen zait.

Danel Casais txirrindularia, Oñatin. O.E.

"TXIRRINDULARI PROFESIONALA IZAN GURA DUT, ETA AHAL DUDANA EGINGO DUT HORI LORTZEKO"

Horrela irabazi zenuen Mikel Deuna lasterketa Oñatin?

Han ere nahiko hasieran egin nuen lehen ihesaldia. Bigarrenean, lauzpabost gelditu ginen. Besteak ezagutzen nituen, lasterketetan askotan kointziditu dugulako, eta kilometroak egin ahala gero eta argiago ikusten nuen karrera irabazteko aukera. Garrantzitsua da nork bere buruarengan konfiantza izatea eta bere ahalmenetan sinistea.

Urte asko pasa dira, gainera, proba hori azkenengoz oñatiar batek irabazi zuenetik.

Ez nuen datu hori ezagutzen, baina lasterketa amaitu zenean esan zidaten, bai, Mikel Lizarralde izan zela irabazi zuen azken oñatiarra.

Lasterketaren ibilbidea ezagutzera joaten zara aurretik beti?

Hemen ingurukoak baldin badira ez, ohiko entrenamenduetan bertatik pasatzen naizelako. Baina, adibidez, Nafarroara edo Bizkaira joaten naiz aurretik, bai, aitarekin.

Bi lasterketa gelditzen zaizkizue denboraldia amaitzeko.

Bai, hilaren 17an Gipuzkoako txapelketa Mendaron eta 25ean Zumarragan beste lasterketa bat. Ea aurreneko postuetan egonda bukatzen dudan denboraldia.

Eta gero zer?

Gero, hilabetez albo batera utziko dut bizikleta eta deskantsatu eta kiloak hartuko ditut. Lagunekin frontenisean ibili, tarteka mendira joan... Aste horietan oporrak hartzen ditut, nolabait esatearren, txirrindularitzan. Eta gero, berriz hasiko naiz eguneroko errutinan, dieta zaindu eta entrenatzen. Hala ere, ia egunero egin, ikusi edo entzuten dut zerbait txirrindularitzari lotuta. Buruan sartuta daukat txirrindularitza. Oso gustuko dudan kirola da.

Hurrengo urtean, beraz, jarraituko duzu txirrindularitzan?

Bai, bai. Txirrindulari profesionala izatea da nire nahia, eta nire aldetik ahal dudan guztia egiteko prest nago horretarako.

Langile bat igerileku gunean lanean, eguazten goizean. ARANTZAZU EZKIBEL

Igerilekuak urte hasierarako zabaltzea aurreikusten dute

Zubikoako obrak amaitu aurretik ireki gura dituzte igerilekuak. Aldagela berriak solairu berean egongo dira

Maialen Santos OÑATI

Zubikoa kiroldegiko lanek aurrera jarraitzen dute, eta igerilekua 2021. urte hasierarako zabaltzea aurreikusten dutela azaldu du Xabier Igartuak, Sozioekonomia zinegotziak: "Kiroldegiko obrak ordurako ez dira bukatuta egongo, baina gurako genuke igerilekua zabaltzea, orain gabe gaudelako". Sauna ere jarriko dute, bestalde.

Aldaketa ugari

Zinegotziak azaldu duenez, kiroldegiko sarrera leku berean egongo da, pasillo bati lotuta. Barruan harreragunea jarriko dute alde batean, eta kantxa berdeko bideak jarraituko du gero. Beste aldetik igerilekura sarrera egongo da. "Aldaketa nabarmenena izango da igerilekua eta aldagelak solairu berean jarriko ditugula", zehaztu du. Izan ere, lehen, "behean aldatu" eta goiko solairura igo behar zen jendea igerilekura joateko.

Igerileku handia bost kale izatetik bederatzi kale izatera pasako da. Sartzeko, gainera, malda bat izango du, eta horren helburua da "irisgarritasuna" hobetzea. Altueraz, baina, lehengoa baino txikiagoa izango da –metro eta erdi izango ditu–, uste dutelako igeri egiteko altuera "nahikoa" dela, eta, era horretan, ura berotzeko "energia gutxiago" erabili beharko dute. Bestetik, igerileku txikia lehen zelaia zegoen tokian kokatuko dute, eta horrek ere malda izango du. Zelaigunearen "zati bat" kenduko dutenez, eraikinaren gainean eguzkia hartzeko "gune bat" egokituko dute. Eta harmailak jarriko dituzte igerilekuan.

Gimnasioaren ondoan hiru fitness gela jarriko dituzte, eta gune horrek bere aldagela propioak izango ditu.

Etxegaraik eta Regueirok Oiarpe hartuko dute gaur

Gipuzkoako Txapelketaren baitan, neurketa jokatuko dute gaur arratsaldean, 19:30ean, Zubikoako pilotalekuan. Neurketa bakarraz gozatzeko aukera izango da gaur. Bigarren mailako gazteak eskuz binaka arituko dira nor baino nor gehiago: Etxegarai eta Regueiro bikote oñatiarra Oiarperen aurka lehiatuko da, hain zuzen.

Elgoibarren hasiko dute denboraldia Aloña Mendikoek

Ohorezko Erregional Mailako futbolariek datorren asteburuan hasiko dute denboraldia. Etxetik kanpo izango dute lehen neurketa, Elgoibarren aurka. Orain arte, lagunarteko ugari jokatu dituzte Endika Ruizen mutilek. Joan den asteburuan, hiruko torneoa jokatu zuten oñatiarrek, Bergararen eta Zarautzen aurka.

Herriko musikari gazteetako batzuk, kantaren grabaketa egiten. ANTIXENEKO GAZTETXEA

Kantuz adierazi dute Antixena sortzen dabilela

'Sortzen dabil Antixena' gaztetxeari eskainitako kanta izan arren, "herritik eta herriarentzat" egin dute musikari gazteek. Abestia ez ezik, bideoklipa ere grabatu dute. Konfinamenduan abian jarritako 'Gazte(ak) etxetik' ekimenetik jaio da proiektua

Maialen Santos OÑATI

Herriko musikari gazte ezberdinek Antixeneko gaztetxeari eskainitako kantua da *Sortzen dabil Antixena*. Abestia ez ezik, bideoklipa ere egin dute, eta horretan ageri dira proiektuan parte hartu duten musikari zein abeslariak. Mikel Garai gaztetxeko asanbladako kideak honela azaldu du: "Gaztetxean egiten den guztia bezala, hau ere elkarlanetik jaiotako proiektua da". Eta gehitu du aurrerantzean "gaztetxearen kantua" izango den arren, herriarentzat egindakoa izan dela.

'Gazte(ak) etxetik'-i jarraiki

Konfinamendu garaian gaztetxeko asanbladako kideei otu zitzaien herriko musikari gazteek "nork bere etxeko baliabideak erabilita" zuzeneko musika emanaldiak egiten hastea, sare sozialen bitartez. Jarraian etorri zen *Gazteak gaztetxetik* ekimena; hots, zuzeneko emanaldi horiek gaztetxean bertan egitea.

Garaik azaldu du etxeko emanaldiek "arrakasta handia" izan zutela, eta 20 edo 30 pertsona inguru animatu zirela euren musika elkarbanatzera. Gauzak horrela, gerora proposatu zieten musikariei gaztetxeko kantua sortzeko, eta haiek proiektua "gustura" hartu zutela dio.

Grabaketa lanak ere gaztetxean

Abestiaren sorkuntzan parte hartu duen musikarietako batek, Aitor Regueirok, azaldu du bideo-dei bitartez hasi zirela abestiaren nondik norakoei buruz hizketan, eta musikari gutxi batzuen artean egin zutela kantaren oinarria. Jarraian, gainontzeko musikarien laguntzarekin melodia eta nota batzuk aldatu zituzten, baina, halere, abestiaren errepika "nahiko argi" ikusi zuten hasieratik. Horren ostean, entseatzeko elkartu ziren. "Gustura geratu ginen emaitzarekin, baina ez genuen akustikoarekin geratu gura eta instrumentu gehiago sartu genituen; hala nola gitarra elektrikoak eta bateria", aitortu du.

MUSIKARI GUTXI BATZUEN ARTEAN EGIN DUTE OINARRIA; BESTEEK MOLDATU EGIN DUTE GERO

Bideoklipa ere Antixenean ekoiztu dutela nabarmendu du Regueirok: "Imanol Astudillo arduratu da audioa grabatu eta hori txukuntzeaz, eta bideoklipa grabatu eta muntatzen ere askok egin dute ekarpena".

Proiektutik ondorioztatu dute gaztetxeak talde txiki zein handien "plaza" diren heinean Euskal Herrian dagoen bakoitzak kanta bat merezi duela. Sorkuntza prozesuan "giro ezin hobea" izan dutela azaldu du musikariak; etorkizunean proiektu gehiago egiteko aukera ez dute baztertzen.

Youtuben dagoeneko ikusgai dago *Sortzen dabil Antixena*.

Ikasle talde bat, akordeoia eta panderoa jotzen. JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

"Gogoz" ekin diote ikasturteari Jose de Azpiazu musika eskolan

Iazko instrumentu eskaintza bera dute aurten ere: 18. Panderoa probatzeko ate irekiak egingo dituzte gaur

M.S. OÑATI

Joan den ikasturtearen ezohiko amaieraren ostean, ikasturte berriari "gogoz" ekin diote Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle zein irakasleek, bertako zuzendari Aitor Madinak azaldu duenez. Irailaren 7an hasi zituzten eskolak, "modu presentzialean". Lengoaia musikala eta instrumentuak ikasteko saioak egiten dihardute, "segurtasun neurri guztiak" hartu badituzte ere. "Taldeka ere ari gara lanean, uste dugulako bakarkako saioetan ikasten dena gero taldean praktikatu daitekeela", aitortu du Madinak. Halere, talde bakoitzeko pertsona kopurua "murriztu" egin dute; esaterako, abesbatzako bi talde zituzten lehen, eta bost dira orain. Era berean, aurten iaz baino ikasle gutxiago arituko dira eskolak jasotzen, 400 ikasle inguru –iaz, 500 pasatxo ziren–. Musika eskolako eskaintza bera da, halere, eta, guztira, hamazortzi instrumentu ezberdin ikasteko aukera dute ikasleek.

Musika eskolak kudeatzen dituen bestelako jarduera batzuk "etenda" daudela adierazi du Madinak: "Esaterako, Pake Lekuko lengoaia musikala eta Aloña abesbatza, euskal dantza saioak eta ikastetxeetan eskaintzen dituzten saioak".

Panderoari "bultzada"

Aurten panderoari bultzada eman gura izan diotela azaldu du Arantzazu Bikuña irakasleak. "Aurten ez dugu izan Herri Egunik, ezta jaialdirik ere. Panderoa beti da poza ematen duten instrumentua", dio. Hori gutxi balitz, "interesa" pizten duen instrumentua da. Hala, panderoa probatzeko ate irekiak egingo dituzte gaur, 17:30-18:00 bitartean. Izena emateko: 943 78 31 74.

Oscar sarietarako hautagai posiblea da 'La trinchera infinita'

93. Oscar sarietarako hautagaia izan daiteke Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren *La trinchera infinita* filma. Pelikula horretaz gain, *El hoyo* eta *O que arde* filmak ere aukeratu dituzte lehen hautaketan; Euskal Herriko, Andaluzia eta Kataluniako, eta Galiziako produkzioak dira horiek, hurrenez hurren. *El hoyo* filmean, gainera, Mikel Sagarzazu aktore oñatiarra ageri da, figurante lanak egin baititu.

Hiru film horietako bat izango da Oscar sarietan nor baino nor gehiago lehiatuko dena, nazioarteko filmik onenaren kategorian. Azaroaren 3an emango dute hautatutako pelikularen berri.

Bestalde, aurten, bi Goya eskuratu ditu *La trinchera infinita* filmak: emakumezko aktore protagonista onenaren saria, batetik, eta soinu onenaren saria, bestetik.

"Kontinuistak garen? Ez, gu ondoren datozen horiek gara"

ADRIAN MERINO 'GIPUZKOA DENON JOKO-ZELAIA PLATAFORMA'-KO BURU

FUTBOLA UDAko presidente ohia da Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente izateko hautagaia; Larrearen taldean egon da, baina proiektu berriaren defentsa egin du

Xabier Urzelai ARRASATE

Adrian Merinok (Aretxabaleta, 1985) pauso bat aurrera ematea erabaki du, eta egungo Gipuzkoako Federazioan batzordekide izatetik hauteskundeetara aurkeztuko den plataforma berria gidatzera pasa da. UDAko presidente ohia da, eta egun, Eibarko enpresa batean dihardu, giza baliabidetako zuzendari. *Gipuzkoa denon joko-zelaia* izena du plataformak, aurki egingo dute aurkezpena, eta *Garai berriak* plataformarekin lehiatuko da. Hain zuzen, bi talde horietako hautagaiak, Manu Diaz eta Adrian Merino, debagoiendarrak dira. Badirudi hauteskunde beroak datozela; izan ere, batekoen eta bestekoen esanekin, eta sare sozialen ekarpenekin, berdegunea lokazten hasi da.

***Gipuzkoa denon joko-zelaia*. Izen integratzailea jarri diozue plataformari.**

Hori da gure asmoa eta gogoa. Gipuzkoako oinarrizko futbola eta amateur mailakoa boluntario askoren batuketa da, eta inor ez dago soberan, denak behar ditugu: jokalariak, epaileak, delegatuak, zuzendariak... Eta, horrekin batera, guretako ez daude klub handi eta klub txikiak, denak dira berdinak. Horregatik uste dugu denon joko-zelaia dela.

Juan Luis Larreak hiru hamarkada egin ditu Federazioan eta azken bi legegintzaldietan haren taldean izan zara. Proiektu horren jarraipena zarete?

Horixe da batzuek aurpegiratzen digutena, baina etiketa horiek ez naute arduratzen. Ni 2012an sartu nintzen Federazioan, orduan Larreak UDArekin konpromiso bat hartu zuelako; alegia, klubeko pertsona bat Federazioan ordezkatuta egotea. Egia da Juan Luisen estiloa nahiko presidentzialista dela eta nire ekarpena ez dela nahiko nukeena besteko handia izan. Hala ere, harro nago haren ondoan azken zortzi urteotan Federazioan egindako lanarekin. Eta egia da urte arraroa izan dela, koronabirusarengatik edo, ahaztu egin da orain arte egin den lana.

Etiketa horretatik aldentzen zarete.

Gu ez gara inoren kontinuistak, gu ondoren datozen horiek gara. Proiektu berritzailea, gaztea baina, aldi berean, esperientziaduna, eta Federazioa ezagutzen dugu. Federazioko batzordea osatzen dute hogei lagunek eta presidenteak, eta bost lagun geratu gara. Hala, orain arte ondo egin dena egiten jarraituko dugu, eta txarto egin dena zuzendu egingo dugu.

Adrian Merino da *Gipuzkoa denon joko-zelaia* taldeko hautagaia. AZK

Gertu dituzue zerrendak?

Bai; aurki egingo dugu aurkezpena. Jende oso prestua batu dugu proiektuaren bueltan, gizonezkoak eta emakumezkoak, eta ilusio galanta dugu.

Aipatu dugu Gipuzkoan futbolak indarrak batzea behar duela.

Zalantza barik. Uste dut bi hautagaiek nahiz eta programa ezberdinak izan funtsean zentzu berbera izan dezaketela, nahiz eta puntu batzuetan aldea nabarmena izan. Aipatu moduan, oinarrizko futbolean eta futbol amateurrean boluntario guztien beharra dugu. Hala ere, zaila da hitzarmenak lortzea hautagaietako batek lana boluntarioki egiteko asmorik ez duenean eta helburu pertsonalak kolektiboarekin nahasten dituenean. Ni neu musu-truk lan egiteko prest nago.

Zeintzuk dira zuen lan-ildoak?

Galdera hau erantzuten asko luzatuko nintzateke, baina, laburbilduz, osasunean, formakuntzan, integrazioan eta talde lanean oinarrituko gara. Denek tokia izango duten GFF independente eta neutral baten alde lan egin gura dugu, Gipuzkoa guztion joko-zelaia izan dadin. *Bultzada* izenburua jarri diogu antolaketa eraginkor baten alde egin gura dugun lanari, baliabideak berrantolatuz, zerbitzuak deslokalizatuz eta tramite administratiboak erraztuz. Eta, esaterako, *Integrazioa* izeneko izenburupean sartu dugu zenbait klubek gizarte ikuspuntutik abiarazi dituzten proiektuak partekatzeko ideia. Hau da, klub batek sekulako lana egin badu, esaterako, drogazaletasuna prebenitzeko, bada, Federazioak bere egin dezake ekimen hori. Adibidez, Hernanin lan ikusgarria egin dute sexu-jazarpenaren gaiarekin, eta uste dugu Federazioak hor ekarpen handia egin dezakeela. Azken puntu moduan *Talde lana* izendatu dugu. Eta hor, Lurralde Taldea sortuko dugu, guztiok ahotsa izan dezagun. Taldeko buru lehendakariorde bat izango da, eta guztiok konektatuko gaitu. Eta, aldi berean, hartutako konpromiso guztiak betetzen direla zorrotz zainduko du Auditoretza eta Gardentasun Batzordeak.

"LURRALDE TALDEA SORTU GURA DUGU, GUZTION AHOTSA KONTUAN IZAN DEZAGUN"

Euskal selekzioaren ofizialtasunaren gaia ere hor dago.

Bai, eta esango nuke gizartearen gehiengoaren nahia eta gogoa dela ofizialtasunarena, baita gurea ere. Baina uste dut aldarrikapen horren bueltan zintzoak izan behar dugula. Euskal Federazioan hiru lurraldeak daude ordezkatuta eta hor Gipuzkoak zeresan txikia du. Bizkaiak du gehiengo osoa. Hain zuzen, azken legegintzaldian, euskal selekzioaren barruan ofizialtasuna eskatu duen lurralde bakarra Gipuzkoa izan da.

Ibarrekoak zarete bi hautagaiak, eta azken asteotan hauteskundeen bueltan giroa nahastu egin da.

Beno, nik ez dut saltsa horietan sartzeko asmorik, nahiz eta iritsi zaizkidan gauzak. Ni Larrearen kontinuista naizela, Manu Athleticekoa dela, presidente moduan kobratu egingo duela... Ez diot garrantzirik ematen horri. Nik 35 urtean ibilbide bat erakutsi dut eta Manuk berea erakutsi du. Nire asmoa da gure proiektua azaltzea, eta, seguru, futbolagatik dugun pasioak denok batzen gaituela.

MU, joan den astean, Easoren kontrako porrotean (62-71); *Arri*-k minutuak banatzeko aprobetxatu zuen partidua. JAGOBA DOMINGO

Santurtziren borrero izaten jarraitu gura dute

SASKIBALOIA Domekan, Zarautzen jokatuko dute MUk eta Santurtzik Euskal Kopako Lauko Finaleko kanporaketa partidua (16:30); talde bizkaitarra da gehien indartu dena, baina azken bi urteotan arrasatearrak gailendu dira torneo horretan

X.U. ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak, Santurtzik, Easo Bodegas Mugak eta Ulacia Zarautzek jokatuko dute oraingo asteburuan EBA kategoriako Lauko Finala; torneoa Zarautzen jokatuko dute, domekan eta astelehenean.

Kanporaketa faseari begiratuz gero, arrasatearrek aurreko bi urteotan Euskal Kopa irabazi izanagatik zuten faborito txartela galdu egin dute, zuri-moreak ez dira-eta fasera lider moduan sailkatu. "Presio gutxiago dugu horrela", dio Iñaki Ogara *Arri*-k. Izan ere, Santurtzi eta Easo dira bi partiduak irabazi dituztenak, eta kontuan izan behar da Zarautzek etxean jokatuko duela fase erabakigarria, baina MU ez da iazkoa baino talde makalagoa, inondik inora.

Santurtzi, kanporaketa zaila

Hala, asteleheneko norgehiagoka erabakigarrira iritsi aurretik, MUk Santurtziren kontra jokatu beharko du domekan (16:30), eta ikusteko dago Easoren eta Zarautzen artean nork egiten duen aurrera. Harmailetan 70 lagunendako tokia egongo da.

GOIENA

"Aurreko porrotak ez du eraginik izango"

IÑAKI OGARA MU-KO ENTRENATZAILEA

Joan den astean Easoren kontra galdu izanari ez dio garrantzirik ematen *Arri*-k, Lauko Finalerako sailkatuta zeudelako.

Zelan dago taldea?

Ondo; sasoi puntua hartzen gabiltzala esango nuke, eta gaur egun ere kontuan izan behar den beste kontu bat da ez dugula ez positiborik, ezta inor etxean bakartuta ere.

Easoren kontra galdu izanak eragina izango du?

Ez; partidu hura jokalarien artean minutuak banatzeko eta gauza berriak probatzeko erabili genuelako. Ondo ikusten dut taldea eta, gainera, presioa barik joango gara.

Santurtzi izango duzue lehen kontrarioa.

Eurak dira ondoen indartu direnak, jokalari onak fitxatu dituzte. Baina azken urteotan euren borreroak izan gara. Zarautzek ere etxean jokatzen du, eta euren alde dago hori.

Arraten zalerik ez, baina Kanpanzarren eta Elgetan bai

ZIKLISMOA Vueltako lehen etapan Eibarko mendatean zalerik ez batzea adostu dute Jaurlaritzak eta Vueltak berak

X.U. ARRASATE

Datorren urriaren 20an, martitzena, hasiko dute Espainiako Vuelta, eta, hain zuzen, lehenengo etapak zeresana eman du. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako eta Vueltako ordezkariek erabaki dute etapa horretako azken mendatean, Arraten, segurtasun neurriengatik publikorik ez egotea. Eibarrera iritsi aurretik, baina, lasterketa Debagoieneko errepideetatik pasako da. Oñatitik, Udanako mendatetik sartuko dira ziklistak Debagoienera, eta Elgetatik birritan igaroko dira, lehenengoan Kanpanzartik igoko dira eta ondoren Asentziotik.

Ibilbideko tarte horietarako, baina, antolatzaileek ez dute Arraterako besteko neurri zorrotzik hartu: "Mendate horren ezaugarri orografikoek baldintzatutako erabakia izan da, etapa amaiera izango da eta ezinezkoa da hor sortu daitezkeen jende pilaketen aurrean segurtasun neurriak bermatzea", adierazi du Jaurlaritzak. Gerta daitekeena da Arraten beharrean ziklismo gosez direnak beste mendateetan pilatzea.

Vuelta Kanpanzartik 2012an. GOIENA

Eskoriatzak Lauko Finala ekarriko du Manuel Muñozera

ARETO FUTBOLA Otxartabe, Zierbena, Afantxo eta Sasikoa taldeek jokatuko dute Euskal Kopa asteburuan

X.U ARRASATE

Euskal Federazioarekin elkarlanean Euskal Kopako fase erabakigarria ekarriko du asteburuan Eskoriatzak Manuel Muñoz kiroldegira. Oraingoan ez da etxeko ordezkaririk egongo, Donibane Pasaiako Afantxo delako ordezkari gipuzkoar bakarra, baina harmailetan ez da emoziorik faltako. Gainera, segurtasun neurriak zainduta ikusleak harmailetan egon ahal izango dira.

Zapatuan finalerdiak

Zapatuan 16:30ean jokatuko dute Sasikoak eta Zierbenak lehen finalerdia, eta 19:00etan Otxartabek eta Afantxok. Finala domekan jokatuko dute (18:00), baina lehenago, motorrak berotze aldera, lagunarteko partidua jokatuko dute, 11:00etan, Eskoriatzak eta Narciso Pavok zuzentzen duen Laskorainek; Bigarren Nazional Mailako taldea da hori. Bestalde, harmailetan eserlekuak mugatuta egongo direnez, areto futboleko zaleek Eskoriatzak Youtuben duen kanalean jarraitu ahal izango dituzte partiduak.

Atera jaurtiketa. GOIENA

"Maskulinitatea du ardatz, estilo makarragoarekin"

KEPA ERRASTI AKTOREA

Aretxabaletarrak sortutako Xake konpainiaren 'Fadoak entzuten zituen gizona' lana Bergaran eskainiko dute bihar, eta datorren astean Aretxabaletan eta Arrasaten

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Tolosan "arrakastaz" estreinatu zuten irailaren 18an, eta bihar, zapatua, egingo dute laugarrena, Bergarako Seminarixoan, 19:00etan. Leihatilan –emanaldia baino ordubete lehenago– eta *Tickets.kutxabank.es* atarian eros daitezke sarrerak.

Zelakoa da zuen konpainiak sortutako hirugarren antzezlana?

Gizontasuna da gai nagusia, baina horren bueltan mezu potente asko dauzkala esango nuke. Aurreko lanetan markatu dugun estilotik aldendu gara, estilo makarratxoagoa jarri diogu obra honi. Umore sarkastiko eta ganberro batetik kontatuta dago. Publiko helduarentzako da eta euskarazko bertsioa bakarrik egin dugu. Nire ideia edo istorio batetik abiatuta, Txarli Andradek idatzi du eta Getari Etxegaraik zuzendu.

Zer kontatzen du?

Oinarrian, bi lagun zaharrek ezustean egiten duten bidaia bat da. Mario (Iñigo Aranbarri) eta Ander (Kepa Errasti) umetako lagunak dira, baina urteak dira ez dutela elkar ikusi, Mario herriz aldatu zelako. Halako batean, ezustean topo egingo dute, Burgosko autobide batean; izan ere, Mario kamioilaria da, eta, autostopean, Ayamonterako (Huelva) bidean fado lehiaketa baten parte hartzera doan Ander jasoko du. Lagunak berriz banatu bitarteko bidaia hori da istorioa, eta Maskuk (Ane Gabarain), hirugarren pertsonaiak, darama haria.

Kepa Errasti, Goienako egoitzan. GOIENA

"UMORE SARKASTIKO ETA GANBERROTIK, BI LAGUN ZAHARREN EZUSTEKO BIDAIA KONTATZEN DUGU"

Ze harrera izan du?

Egia da ikusteko zailagoa izan daitekeela, edo hori da nik daukadan sentsazioa, baina feedback ona jaso dugu; ikusleek ondo pasatu dute, gustura egin dute barre, eta zer pentsatua ere eman diela esan digute.

Zelan ari da aretoetako programazioetan sartzen?

Oso pozik gaude zentzu horretan ere. Udazkena topera dator, urria eta azaroa beteta ditugu; Euskal Herrian zehar ibiliko gara, eta hogeitik gora emanaldi ditugu dagoeneko lotuta.

Debagoienean, momentuz, hiru herritan izango zarete.

Bai; bihar, zapatua, Bergarako Seminarixoan izango gara; datorren egubakoitzean eta zapatuan, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean eskainiko dugu; eta domekan, Arrasateko Amaia antzokian.

Aldi berean *Sisiforen paperak* antzezlana prestatzen ari zarete. Zer aurreratu dezakezu?

Egunkaria-ren auziari buruzko obra fikzionatu bat da eta EAEko hiru antzokik –Bilboko Arriaga, Donostiako Victoria Eugenia eta Gasteizko Printzipal– Centro Dramatico Nacional-ekin elkarlanean ekoiztu dute. Bi bertsio daude: euskarazkoa –une batzuetan elebiduna da– eta gaztelerazkoa.

Ibilbide luzeko artistak dituzu taldekide oraingoan ere.

Hala da, bai; Fernado Bernues da zuzendaria eta Harkaitz Canok idatzi du gidoia; eta aktore lanetan artista handiak daude: Mireia Gabilondo, Aizpea Goenaga, Dorleta Urretabizkaia, Mikel Losada, Anjel Alkain, Asier Hernandez, Iñaki Rikarte, Asier Hormaza... Horiek batzuk.

Ze paperetan eta noiz ikusiko zaitugu antzezlan honekin?

Egunkaria-ko zuzendaria naiz, baina, egiatik asko duen arren, ez ahaztu fikzioa dela. Azaro amaieran estreinatuko dugu; hasteko, hiru antzokitan egongo gara, eta apirilean, Madrilen eskainiko dugu.

Egoera dagoen moduan, zorionez, lanik ez zaizu falta.

Egia da, bai; pandemia garaian lanean egon naiz, telebistan atera zait lana: gidoilari jardun nuen *Etxekoak* telesailean, eta gero, *Barre librea* etorri zen, eta bertan jarraitzen dut. Zorionekoa naiz.

Bertso-trama egingo dute Arrasateko gaztetxean gaur

19:30ean izango da emakume bertsolarien saioa; ordu erdi lehenago zabalduko dute leihatila

A. Aranburuzabala ARRASATE

Azkenaldian plaza gutxi eginda, Arrasateko Ane Zuazubiskar, Oñatiko Maider Arregi eta Eskoriatzako Haizea eta Oihana Arana bertsolariak "gogotsu eta ilusioz" daude Arrasateko gaztetxeko oholtza gainera igotzeko. Honela dio Arrasatekoak: "Udako bertso saio ia guztiak bertan behera geratu ziren, eta pozik gaude udazkenerako aurreikuspenak hobeak direla sumatzen delako. Gaur egun Debagoienean dagoen bertsolaritzaren harrobiaren lagin baten erakusle da gaurko saioa".

Maria Oses Arrasateko idazle gazteak proposatutako gaien bueltan bertso-trama sortuko dute lau bertsolariek. "Ilusio berezia egiten dit Mariak gidatzeak; oso gustuko dut blogean idazten dituenak irakurtzea. Ez digu saioaren pista handitik eman, baina lasai gaude, konfiantza osoa dugu harengan, eta, gainera, saioak bat-batekotasunik galdu ez dezan, aurrez zenbat eta gutxiago jakin, hobeto!".

19:30ean hasiko da saioa, eta leihatila ordu erdi lehenago zabalduko dute; sarrera-txartelak ez du prezio zehatzik izango, borondatearen truke izango da. Edukiera mugatua izango da.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, ALKATEEKIN ELKARRIZKETA SAIOA

URRIAREN 13AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

MARIA UBARRETXENA, ARRASATEKO ALKATEA

BIDALI GALDERA:

POSTA ELEKTRONIKOA: BERRIAK@GOIERNA.EUS

WHATSAPP EDO TELEGRAM: 688 69 00 07

goiena 20 URTE ZUEKIN.

Atzo, eguena, Plateruena antzokian aurkeztu zituzten aurtengo Durangoko Azokako berritasunak. MIREN SOLOZABAL

Kulturaren plaza, osasun protokolora moldatuta

Abenduaren 4tik 8ra bitartean egingo duten Durangoko 55. Azoka aldaketekin dator; besteak beste, ez dela standik egongo Landakon –online denda egongo da– eta 'streaming' bidez eta Landakon eta Plateruenan izango direla aurkezpen guztiak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Azokako antolakuntzak, kulturaren plaza osatzen duten erakunde eta eragileen ordezkaritza zabalarekin, aurtengo edizioaren ezaugarriak aurkeztu zituen atzo, eguena, Plateruena Kafe Antzokian egin zuten agerraldian. Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujikak azpimarratu zuen "guztiontzako segurua den Azoka" antolatzea izan dela helburua, eta, hamaika egoera posible aurreikusi eta baloratu ostean –horien artean, aurtengoa bertan behera uztea–, abiatzearen aldeko apustua egin dutela. "Uste dugu kulturak inoiz baino gehiago behar duela Azoka; sortzaileek behar dutela plaza; argitaletxe eta diskoetxeek, erakusleihoa; eta jendeak, zuzenekoak bizitzea eta nobedadeez gozatzea".

Kultura arloko profesionalek "eskertu" egin dute antolatzaileen erabakia. Honela dio Elkar argitaletxeko Olatz Osa oñatiarrak: "Azokak sortzaile, kulturgile eta kulturazaleak biltzeko plaza eskaintzen digu, eta baita merkatua eta ikusgarritasuna ere. Ahal den neurrian, hiru zutabe horiei eustea funtsezkoa iruditzen zaigu, eta Gerediaga ahalegina egiten ari da horri eusteko". Ruper Ordorikak ere bat egin du Gerediagakoen erabakiarekin. "Ezer egitea baino hobeto iruditzen zait, mugekin bada ere; edozelan ere, guztion buruan dago saltokia baino gehiago dela Azoka, topagune erraldoia da".

Online dendarako eskaerak

Landako gunean ez da standik egongo eta *Durangokoazoka.eus* atarian erosi ahal izango dira produktu guztiak, abenduaren 4tik 8ra bitartean. Azokaren atarian egin daitezke, urriaren 8ra arte, denda birtualerako eskaerak. Izen-ematea doakoa da. Salmenten %12 jasoko du Azokak, kudeaketa eta logistika gastuei aurre egin ahal izateko.

LANDAKO GUNEAN ETA PLATERUENAN DIRA AURKEZPENAK; AZAROAN SALDUKO DITUZTE SARRERAK

Online salmenten aukera eskaintzea ondo iruditzen zaiela dio Osak: "Saldu eta erosteko ez ezik, ikusgarritasuna emateko baliagarria izango da, baina ezin ahaztu urte osoan zehar kultur ekoizpena zaindu eta defendatzen duten tokian tokiko liburu-dendak". Ordorikak ez du aurten lanik kaleratuko: "Lan berriarekin ari naiz, baina datorren urterako utziko dugu, azkenean".

Kartela, Ane Pikazarena

Ilustratzaile eta aktore bilbotarrak egin du, eta kolorez jositako bihotz bat irudikatu du paisaia grisaren gainean, *TaupaDA!* leloa jarraituz: "Kultura mugimenduan dagoela azaleratu nahi nuen, egoera latzenetan ere kolore biziz loratzen dena, eta etengabeko sorkuntzan dagoen bihotza garela erakutsi".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!

Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ oñatiko kobak

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
ITURRIETA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko Otordu(on atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Urrieren 13ra arte
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

ESKAINTZA BEREZIA!!
Urritik abendura bazkidetza: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza saltzen da, 55 metro koadroko duplexa, Arruriaga kalean; erdigunean hain zuzen ere. Igogailua dauka eta altzariak ere bai. Zalantzak edo interesa edukiz gero deitu zenbaki honetara: 600 36 81 37 (Lourdes)

102. EROSI

Baserria. Oñatiko bikote bat gara baserri bat erosteko interesarekin. Zerbait jakin edo saldu nahiz izanez gero, jarri harremanetan: 600 34 87 13

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxebizitza behar dugu errentan, hiru logelakoa. Telefonoa: 638 85 43 36

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 640 71 78 55

Bergara edo inguruan. Pertsona bakarrarentzat etxebizitza hartuko nuke errentan. Maskotarik gabe. 660 92 64 16

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan, bi edo hiru logelakoa. Berdin da altzaririk gabe badago ere. 645 72 92 87

Etxebizitza errentan hartu. Kaixo! Arrasateko lau kideko familia gara eta erdialdean edo inguruan errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza. Eskerrik asko. 600 86 01 69

105. ETXEAK OSATU

Etxebizitza edo logela bila. Etxebizitza txiki bat edo logela bat errentan hartuko nuke Arrasaten, Eskoriatzan edo inguruko herriren baten. Garraio publikoa erabili beharra daukat. 51 urteko gizon arduratsua naiz, Indiakoa, ez erretzailea. Telefonoa: 722 27 88 89

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Pertsona nagusien zaintzan eskarmentu handia duen emakumea naiz eta lan egiteko prest nago. 632 74 97 38

Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Dokumentuak egunean dauzkat. 631 54 60 99

Bergara. 23 urteko mutil euskalduna, pedagogian diplomatua eta umeak zaintzen esperientzia duena, irailetik martxora bitartean, goizez, umeak zaintzeko gertu. Telefonoa: 689 24 85 89 (Jokin)

Bergarago neska euskaldun bat naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntzako modulua dut eta haur hezkuntzako gradua egiten ari naiz. Astelehen, asteazkenean eta ostiral arratsaldeetan. Telefonoa: 634 42 85 11

Debagoiena. Albaitaritza laguntzailea maskoten zaintzan, ile-apaintzaile bezala. Ian egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen ere lan egingo nuke. 722 45 58 35

Debagoiena. Arratsaldetan, asteburuetan eta baita jai egunetan ere, nagusiak zaintzen eta ile-apaintzaile eta estetika lanetan aritzeko gertu nago. Titulazioak eta autoa dauzkat. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Barazki eta frutak jasotzen edota pakete eta janari banatzaile lanetan aritzeko gertu nago. Autoa daukat. 644 84 12 61

Debagoiena. Beharrezko agiriak eta esperientzia dituen emakumezkoa, orduka, astelehenetik ostiralera, pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. 627 03 16 40

Debagoiena. Egunean zehar nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Legezko agiriak dauzkat. Telefonoa: 642 41 72 62

Debagoiena. Emakume arduratsua orduka edo egunka garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egiteko gertu. Erreferentzia onak eta hiru urteko esperientzia dauzkat. Telefonoa: 631 86 83 69

Debagoiena. Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko eta denetariko garbiketak egiteko gertu. 620 23 58 15

Debagoiena. Etxeko lanetan eta pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Esperientzia daukat erizain laguntzaile arloan. 747 40 45 49

Debagoiena. Etxeko langile moduan, nagusi eta umeak ezintzen, zein garbiketan lan egingo nuke. 722 45 58 75

Debagoiena. Gauez eta egunean zehar orduka, adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Gizona gertu denetariko garbiketak egiteko edota nagusiei medikutara, kalera eta abarretara laguntzeko prest. Autoa daukat. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Mutila gertu gauez zaintza lanak egiteko. 659 90 85 13

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketan jarduteko gertu nago. Soziosanitario titulazioa eta erreferentziak dauzkat. 653 36 85 80

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen, denetariko garbiketak egiteko zein baserriko lanetan jarduteko gertu nago. 643 47 42 33 (Nancy)

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen, denetariko garbiketak egiteko zein baserriko lanetan jarduteko gertu nago. 643 47 39 37 (Yesid)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago. 631 36 06 44

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketak egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 640 70 57 97

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko edota garbiketak egiteko gertu nago. 632 33 19 27

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 612 41 02 49

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka zein etxean bertan 635 36 96 21

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko prest nago. 631 93 11 90

Debagoiena. Neska arduratsua gertu etxean bertan bizi izaten, gauetan, orduka zein asteburuetan lan egiteko. 637 12 15 95 edo 688 88 69 02

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: umeak eta nagusiak zaintzen, orduka, egunez edo asteburuetan. Baita denetariko garbiketak egiten ere. 604 37 79 34

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: atari, elkarte eta etxeak garbitzen, edo nagusiak zaintzen. Gomendio agiriekin eta soziosanitario tituluarekin. Autoa daukat. 603 64 98 53

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Telefonoa: 632 33 19 27

Debagoiena. Orduka nagusiak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. 622 24 86 64

Debagoiena. Titulazioa eta legezko agiriak dauzkan neska egunean zehar nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Zaintzan eta garbiketan lan egingo nuke. 643 73 62 36

Debagoiena. Zortzi urte baino gehiagoko eskarmentua eta soziosanitario titulazioa dituen neska, nagusiak zaintzeko gertu. 696 84 19 51

Oñati. Neska gazte eta euskalduna haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako ikasketekin eta esperientziaduna. Telefonoa: 608 58 21 84

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Bergara eta inguruetan. Neska euskalduna ingeleseko eskola partikularrak emateko prest. Beste arloetan ere laguntzeko aukera. Baita umeak zaintzeko ere. Esperientzia handiduna. Telefonoa: 656 70 13 72

Debagoiena. Arrasateko neska euskalduna LH eta DBH-ko eskola partikularrak emateko prest. Haurrak ere zainduko nituzke. Esperientziaduna eta lan egiteko gogoa duena. Telefonoa: 619 18 09 20

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen. 623 17 95 37

8. DENETARIK

806. GALDU

Klarinetea Arrasaten. Urriaren 1ean, osteguna, Jose Luis Iñarra kalean ahaztu zitzaidan klarinete bat, "Buffet Crampon E11". Hartu duenari nirekin hitz egiteko eskatzen diot. Itzuliz gero, sarituko da. 686 40 89 61

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Donostia autoz. Goizetan Donostiara joan behar dut ikastera eta 8:00ak baino lehentxeago bertan izatea komeni zait. Norbait autoz ordu horretarako joaten bada, gastuak partekatuko genituzke. Telefonoa: 668 61 15 37

Lursaila Bergaran. Landatzeko prest dagoen lursaila daukagu eta bertan ortua jarri gura duenari lagako genioke. Telefonoa: 747 40 38 21

Korosti INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Mesterenka, 75 m², 3 logela, komposko patioarekin. 120.000 €.
- Telesforo Aranzadi, 58 m², logela 1, berrituta, biziterra sartzeko. 150.000 €.
- Ibarra, 111 m², 4 logela, igogailua, biziterra sartzeko. 185.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Barrenkale, 85 m², 2 logela, berrituta, biziterra sartzeko. 120.000 €.
- Ozaeta, 66 m², 3 logela, igogailua, trastelekua eta garaje. Biziterra sartzeko. 165.000 €.
- Billa, 103 m², 3 logela, igogailua, trastelekua, 81 garaje, biziterra sartzeko. 340.000 €.
- Sanentenabat, 75 m², 2 logela, parkinga, teilatua, biziterra sartzeko. 175.000 €.
- Zubiaurre, 63 m², 2 logela, trastelekua, igogailua, biziterra sartzeko. 95.000 €.
- Oiantxu, 72 m², 3 logela, berritzeko, biziterra sartzeko. 100.000 €.
- Lizarra, (San Lorenzo), 63 m², 2 logela, trastelekua. 151.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- A. Fleming, (poligonoan) 60 m², 2 logela, trastelekua egokituta 30,70m2. 160.000 €.
- Ahamstegi Etxea, 360 m², tripleua, berotza, garajea. Biziterra sartzeko. 350.000 €.
- Besarte, 70 m², 3 logela, biziterra sartzeko. Garaje aukeran. 129.500 €.
- Zubiete, 70 m², 2 logela, berritzeke, berotzarekin, biziterra sartzeko. 150.253 €.
- Billa, 65 m², trastelekua, igogailua, biziterra sartzeko. 139.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- San Antonio, 76 m², berritzeke, igogailua jabearen kontura. 99.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Iztar Pasealekua, 93 m², igogailua, terrazarekin, berritzeko.160.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Mesterenka, 75 m², 2 logela, biziterra sartzeko. 149.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Martinka, 60 m², 2 logela, igogailua, biziterra sartzeko. 130.000 €.
- Ibargarai, 54 m², 2 logela, igogailua, biziterra sartzeko. Garaje 2 aukeran. 216.000 €.
- Askorrantz, 60 m², 2 logela, trastelekua, biziterra sartzeko. 100.000 €.
- Zubiete, 70 m², 3 logela, biziterra sartzeko, egokituta. 114.192 €.
- Zubiketagi, 54 m², 3 logela, 2 trastelekua, biziterra sartzeko. 90.000 €.
- Oiantxu, 79 m², 3 logela, igogailuarekin. Aukera ona. 70.000 €.
- Oiantxu, 75 m², 3 logela, trastelekua berotzarekin. 63.000 €. Aukera ona.
- Martinetagi, 96 m², 4 logela, terrazarekin, igogailua. 139.500€. PREZIO JEITSIERA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 logela, igogailua, trastelekua. 270.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Mesterenka, 80 m², Berritzeke, eukaera ona. 50.000€ PREZIO JEITSIERA
- Askorrantz, 60 m², 2 logela, trastelekua, berritzeko. 45.000€
- Oiantxu, 64 m², 2 logela, trastelekua, igogailua. Biziterra sartzeko. 78.000€.

UBERA:
- Baserria eta 15 laborantzako lurzoia (pinuak, zeloak) 340.000 €. PREZIO JEITSIERA

ANTZUOLA:
- Beheko auzoa, 54 m², 2 logela. Berritzeko. 80.000 €.
- Berna, 77 m², 2 logela, igogailua, trastelekua. Biziterra sartzeko. 115.000 €.
- Ermikalde, 90 m², 3 logela, igogailua, biziterra sartzeko 135.000 €. PREZIO JEITSIERA
- Beheko auzoa, 60 m², 2 logela. Berritzeko. Biziterra sartzeko. 120.000 €.
- Ermikalde, 70 m², 2-3 logela, igogailua, biziterra sartzeko. 125.000 €.
- Kalebarren, 79 m² – 77m2. Berritzeko. 61.000 €. - 51.000 €.
- Kalegoi, 80 m², 1go pisua-60.000€ - 2.pisua + garbera 70.000€. Berritzeko
- Ermikalde, 61 m², 3 logela, igogailua, berogailua. 105.000 €.
-

ELGETA:
- San Roke, dupleua, 83 m², berritzeke, biziterra sartzeko. 190.000 €.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

UNIBERTSITATEEI BURUZKO ERREPORTAJEA

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' *Egubakoitza 21:30 eta 23:30*



GOIENA

MARIA UBARRETXENARI ELKARRIZKETA

'Harira' *Martitzena 21:30 eta 23:30*

EGUBAKOITZA, 9

09:00 Kantari Aretxabaleta 2
09:30 Kantari Aretxabaleta 4
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Eskulanak etxetik
11:30 Erreportajea: Goierri ezagutuz
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Euskaraldia ekitaldia
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Euskaraldia 5
16:00 Albisteak
16:30 Elkarrizkettap: Mikel Reparaz
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 9
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Erreportajea: Turismoa
19:30 Euskaraldia 5
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Elkarrizkettap: Mikel Reparaz
21:30 Erreportajea: Unibertsitateak
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Euskaraldia 5
23:30 Erreportajea: Unibertsitateak

ZAPATUA, 10

09:00 Kantari Aretxabaleta 5
09:30 Kantari Aretxabaleta 4
10:00 Kantari Aretxabaleta 6
10:30 Erreportajea: Unibertsitateak
11:00 Euskaraldia ekitaldia
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Osoko bilkura: Arrasate
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Astearen errepasoa
15:30 Euskaraldia ekitaldia
16:30 Hemen Debagoiena
17:30 Elkarrizkettap: Mikel Reparaz
18:00 Osoko bilkura: Arrasate
19:00 Kantari Aretxabaleta 4
19:30 Maritxu Kajoi
20:00 Erreportajea: Unibertsitateak
20:30 Euskaraldia ekitaldia
21:30 Astearen errepasoa
22:30 Hemen Debagoiena
23:30 Lehen lerroan: Maddi

DOMEKA, 11

08:00 Erreportajea: Unibertsitateak
08:30 Euskaraldia ekitaldia
09:30 Kantari Aretxabaleta 4
10:00 Kantari Aretxabaleta 5
10:30 Kantari Aretxabaleta 6
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Osoko bilkura: Arrasate
13:00 Euskaraldia 5
13:30 Erreportajea: Unibertsitateak
14:00 Elkarrizkettap: Mikel Reparaz
14:30 Astearen errepasoa
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kantari Aretxabaleta 5
16:30 Kantari Aretxabaleta 6
17:00 Lehen lerroan: Maddi
18:00 Osoko bilkura: Arrasate
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Lehen lerroan: Maddi
21:00 Erreportajea: Unibertsitateak
21:30 Astearen errepasoa
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Elkarrizkettap: Mikel Reparaz

EGUNERO

ADINDUENDAKO ARIKETA FISIKOAK

'Adinberri'

17:30

MARTITZENA, 13

KEPA ERRASTIREN LAN BERRIA

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista*** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 14



GOIENA

ANE PIKAZARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21.30/23:30

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Albistegia'

15:00/16:00/17:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA

Sabino Ayastuy Ayastuy

2020ko urriaren 1ean hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2020ko urriaren 9an.

ESKER ONA

Maria Aranzazu Igartua Arana

Gines Maciasen alarguna

2020ko irailaren 29an hil zen, 94 urte zituela.

Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2020ko urriaren 9an.

ESKER ONA

Arantza Arana Ormaetxea

Jose Mari Larrearen alarguna

2020ko urriaren 6an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko urriaren 9an.

ESKER ONA

Isidora Barbero De la Torre

2020ko urriaren 3an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko Aretxabaletako Osasun Zentroko eta Debagoieneko Ospitaleko profesionalei eta dolu lagunari, gure amarekiko izan duzuen gertutasun eta dedikazio paregabeagatik.
—
Eskerrik asko, ama maitea, zure eskuzabaltasun mugagabeagatik.
Zure maitasuna eta kemena beti izango dira gurekin.

Aretxabaletan, 2020ko urriaren 9an.

ESKER ONA

Amaia Arregi Liziaga

2020ko irailaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko urriaren 9an.

ESKER ONA

Maria de los Angeles Iglesias Quintela

'Maruja'

2020ko urriaren 7an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko urriaren 9an.

OROIGARRIA

Tomas Hernandez Juaristi

Beti disfrutatzen!

Tripazaiko lagunak.
Bergaran, 2020ko urriaren 9an.

OROIGARRIA

Josetxo Aranzabal Loiti

Goienako langile ohia

2020ko urriaren 5ean hil zen, 49 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.
Elgetan, 2020ko urriaren 9an.

OROIGARRIA

Josetxo Aranzabal Loiti

2020ko urriaren 5ean hil zen, 49 urte zituela.

Beti akordauko gaittuk hirekin.

Elgetako lagunak.
Elgetan, 2020ko urriaren 9an.

URTEURRENA

Mari Tere Basabe Gorrotxategi

2018ko urriaren 10ean hil zen, 75 urte zituela.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 11n, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
—
Erakutsi zenigun ausardia eta kemena,
motz gelditu zaigu zure ondoan behar genuena,
zure maitasuna, gure oroitzapen hoberena,
bizirik iraungo duzu, gure bihotzean barrena.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2020ko urriaren 9an.

URTEURRENA

Jose Mari Laskurain Loidi

M. Begoña Urkidi Ansolaren alarguna

2019ko urriaren 15ean hil zen, Bilbon, 73 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.
—
Beti gure bihotzean izango zara.
Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko urriaren 9an.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1. Sorginak taldea
Arrasateko Hauspo Egunari hasiera eman zion Sorginak taldeak aurreko zapatuan. Kepa Junkeraren ikasle izandakoak oholtza gainean izan ziren, eta, trikitiekin, gitarrarekin, kaxoiarekin eta ahotsarekin, Herriko Plazan zeudenak kantuan ipini zituzten.

2. Artisauen topaketa
Aretxabaletako artisauek topaketa egin zuten aurreko zapatuan. Herriko bederatzi artisau elkartu ziren Durana kalean euren produktuak erakusteko eta saltzeko. Bitxiak, apaingarriak, baserritar jantziak, eztiak... eta beste hainbat produktu ipini zituzten.

3. Harri-jasotzaile gazteak ezagutzen
Herri kirolen erakustaldi aparta egin zuten aurreko zapatuan Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Eneko Azurmendi, Ugaitz Mugertza, Irati Astondoa eta Maika Aristegi aizkolariak egon ziren. Baina baita ere etorkizuneko harri-jasotzaileak. Adibidez, irudian dagoen Udane Ostolaza.

4. 50 urte ezkonduta
Jose Luis Azkarate Zabarte eta Milagros Beitia Leon arrasatearrak orain dela 50 urte ezkondu ziren, urriaren 10ean. Horrenbestez, urrezko ezteiak bete dituzte. "Zorionak eta urte askotarako, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".

5. Leintz Eskola kirola martxan da
Aurreko zapatuan hasi zituzten ekintzak Aramaioko San Martin eskolako ikasleek. Errugbiaz gozatzen egon ziren. Haien atzetik, beste ikasle guztiak hasiko dira eskola kirolaz gozatzen. LEKen ekintza guztietan zorrotz beteko dute segurtasun eta higiene protokoloa.

6. Urrezko ezteiak
"Ama, aitta, zorionak! 50 urte ez da zenbaki makala gero! Hiru alaba, hiru suhi eta sei biloba eder! Ezin da gehiago eskatu. Egun ederra pasatuko dogu zapatuen danok batera! Beste urte pillue osasuntsu pasau deizuela. Zorionak, guztion partetik! Asko maitte zaittuegu".

7. Ezkondu zirela 50 urte bete dira
Luis Martinez eta Rosario Luque bergararrak ospakizunetan daude. Ezkondu zirela 50 urte bete dira, eta urrezko ezteiak etxekoekin ospatuko dituzte. "Zorionak, zuen 50. urteurrenean! Familiako kide guztion partetik! Musu handi bat eta ondo pasa eguna!".

ZORION AGURRAK



ELGETA
Lili Arantzabal Larrañaga
Urriaren 15ean, 8 urte. Familia osoaren partetik, zorionak eta urte askotarako!

ESKORIATZA
Intza Kortazar Errasti
Urriaren 13an, 7 urte. Zorionak politx hori! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Patxo handi bat, danon partetik.

OÑATI
Urko Urtaza
Urriaren 12an, 4 urte. Zorionak, txapeldun, etxeko guztien partetik! Ondo pasatu eta patxo handi bat!



OÑATI
Beñat Arregui Unamuno
Urriaren 11n, 9 urte. Zorionak, Beñat! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko guztion partetik! Maite zaitugu, txapeldun.

ARRASATE
Aimar Egizabal Gandarias
Urriaren 11n, 5 urte. Zorionak, txapeldun; bost urte jada! Egun ederra pasatu politx hori! Muxu handi bat, etxekoen partetik. Asko maite zaitugu!

BERGARA
Udane Unamuno Unamuno
Urriaren 11n, 9 urte. Urte askotarako, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna, Udane. Patxo pila bat, zure familixa danaren partetik.

ARRASATE
Aratz Garcia del Fresno
Urriaren 11n, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Egun polita pasatu eta muxu pilo bat familia osoaren partetik!

BERGARA
Izaro Esnaola Tello
Urriaren 10ean, 7 urte. Zorionak, polit hori! Egun bikaina pasa dezazula etxeko guztien partetik. Zazpi belarri tirakada eta beste hainbeste muxutxo.

BERGARA
Hodei Maiztegi Uribesalgo
Urriaren 10ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna.

ARAMAIO
Hegoi Azkarate Arriolabengoa
Urriaren 10ean, 12 urte. Zorionak, laztana! Ondo pasatu eguna! Amamak, aitaitak, amatxo, aitatxo, osaba-izebak, Oihan, Lide eta Garazi.

BERGARA
Haizea Ayastuy Markina
Urriaren 9an, 11 urte. Zorionak, politt hori, familixa osoaren partetik. Disfrutatu topera zure eguna!

ESKORIATZA
Oihana Aramendi Kortazar
Urriaren 9an, 45 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu egun berezi hau. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
Iraide Zumalde Irazabal
Urriaren 8an, 6 urte. Zorionak, potxola! Sei muxukada, familixako danon partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OÑATI
Arhane Katarain Leibar
Urriaren 7an, 6 urte. Zorionak, maitte! Jarraittu zaren bezelakua izaten. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Etxeko danon partetik.

ARRASATE
Julen Del Palacio Orellana
Urriaren 7an, 5 urte. Zorionak, Julen! Familia osoaren partetik, egun ederra izan!

ARRASATE
Araitz Guirado Rodriguez
Urriaren 7an, 16 urte. Zorionak, *Potxin*! Lagun guztien partetik, ederto pasatu zure egunian! Topera disfrutatu!

ANTZUOLA
Uzuri Aranzabal Fernandez
Urriaren 6an, 11 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.

ARRASATE
Amets Merino Oribe
Urriaren 6an, 4 urte. Zorionak, txapelduna! Lau urte zurekin gozatzen! Maite zaitugu!

ARETXABALETA
Julen Garcia Sanchez
Urriaren 5ean, 11 urte. Zorionak, Julen! Heldu da zure eguna! Asko disfrutatu. Muxu handi bat aitatxoren, amatxoren eta, bereziki, Izaroren partetik.

ARETXABALETA
Maddi Kortazar Lasagabaster
Urriaren 5ean, 9 urte. Zorionak, sorgintxo. Patxo bat etxeko danon partetik!

ARETXABALETA
Haizea Pagalday Garro
Urriaren 4an, 7 urte. Zorionak, Haizea! Zazpi urtiak abenturaz beteta etor daittezela. Patxo pila bat etxekuen partetik.

BERGARA
Jennifer Caballero Garcia
Urriaren 4an, 19 urte. Zu bezelako alaba zeruko oparia da, egunero esnatzen naizenean estimatzen dudana.

OÑATI
Igor Varela
Urriaren 3an, 13 urte. Zorionak, Igor, familia osoaren partetik. Ondo pasatu eguna. Muxu bat.

OÑATI
Sara Arenaza Barriola
Urriaren 3an, 8 urte. Gure etxeko saltserak zortzi urte jada! Maite zaitugun denen partetik, ondo-ondo ospatu zure eguna.

OÑATI
Libe Idigoras Garcia
Urriaren 3an, 8 urte. Zorionak, politt hori! Primeran pasatu zuretzat hain berezia den egun honetan. Guztiok batera, ederki ospatuko dugu. Muxu pila bat, etxekuen partetik!

ARRASATE
Ane Miren Gallastegui Uribesalgo
Urriaren 10ean, urtebetetzea.
Zorionak, amama! Oso ondo pasatu! Asko maite zaitugu! Xuban, Uhaitz, Paule eta Xabat.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 9

ARRASATE 'Zaindu eta maitatu zure gorputza' ikastaroa
Jabetze Eskolen baitan. Arnasketa ariketak, meditazioa, luzaketak eta bestelako ariketak egingo dira yoga eta feldenkrais tekniken bidez.
Emakume Txokoan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Pasaian margotzen' erakusketa
Matilde Sainz Osinagaren akuarela lanek eta Arantza Ozaetaren testuek bat egiten duten bilduma ikusgai, hilaren 30era arte.
Arkupen, 11:00etan.

ESKORIATZA Ate irekiak ludotekan
Bi txandatan egongo dira: 16:45ean bata eta 18:15ean bigarrena. Txanda bakoitzean, gehienez, hamalau ume sartuko dira.
Tortolis ludotekan.

OÑATI Panderoa jotzen ikasteko ate irekiak
6 urtetik gorako herritarrendako. Aurrez eman behar da izena: 943-78 31 74 edo *idazkaritza@jazpiagumusikaeskola-com*.
Musika eskolan, 17:30ean.

BERGARA '60' erakusketaren inaugurazioa
Bilduma horretan, 1960ko hamarkadako Bergara irudikatu dute Udal Artxiboko argazkiekin: aisialdia, kirol-ikuskizunak, aldaketa urbanistikoak, erlijioa eta hezkuntza, besteak beste. Ikusgai egongo da hilaren 25era arte.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARRASATE Ate irekiak erdiguneko gaztegunean
Gunea ezagutzeko aukera.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

OÑATI 'Oñatiko errekak bizirik!" erakusketa: etzi azken eguna
Oñati errekako ekosistemari buruzko informazio jasotzen duten hamar informazio-panel ipini dituzte, Ultzegin kaletik Otadui zuhaiztiraino. .
Oñati errekaren pasealekuan.

ARRASATE 'Bertso-trama' lau emakume bertsolarirekin
Oihana Arana, Maider Arregi, Haizea Arana eta Ane Zuazubiskar bertsotan. Gidaria Maria Oses izango da.
Gaztetxean, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Con faldas y a lo loco' antzezlana
Tdiferencia taldearen lana, helduendako eta gazteleraz. Sarrerak, lau euro.
Zaraia aretoan, 22:00etan

ARRASATE Laburbira
Bederatzi film labur emango dituzte. Horietatik sei emakume zuzendariek egindakoak dira.
Kulturaten, 19:00etan.

ZAPATUA 10

ESKORIATZA Areto futboleko Euskal Kopa: finalerdiak
16:30ean, Sasikoa-Zierbena partidua, eta 19:00etan, Otzartabe-Antxo.
Manuel Muñoz kiroldegian, 16:30ean.

ARRASATE Ate irekiak erdiguneko gaztegunean
Gunea ezagutzeko aukera.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ARAMAIO Animaziozko filmak umeendako
Besteak beste, *stop motion* animazioa, 3Dko marrazki bizidunak, film labur irudiztatuak... Publikoa epaimahai bihurtuko da.
Kultura etxean, 18:30ean.

BERGARA 'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlana
Xake Produkzioak taldearen lana, euskaraz. Kepa Errastiren antzezlan berriena. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 19:00etan

BERGARA Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa
Mikel Ansola organistarekin eta Akelarre Abesbatzarekin. Sarrera debalde, edukiera bete arte.
Santa Marina parrokian, 20:00etan.

OÑATI Hutsun eta Ortzi taldeak
Urbasa ikuskizuna egingo dute, Mikel Urrutiaren eta Anai Gambaren txalapartekin eta Ortzi Acostaren akrobaziekin.
Plazako karpan, 20:00etan.

DOMEKA 11

BERGARA 'Taula periodikoa: unibertsoa osatzen duten elementuak' erakusketa
Gaur eta bihar dira erakusketa ikusteko azken bi egunak. Taula periodikoaren garrantzia azpimarratzen duen bilduma.
Laboratoriumen, 10:00etan.

OÑATI Artisau azoka
Herriko artisauen produktuak erosteko aukera.
Foruen plazan, 10:30ean.

OÑATI 'Altxorraren bila'
Familiendako orientazio jolasa ibilbide irisgarrian gordeta dauden zazpi pistak topatzeko. Izena emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
Parketxean, 11:00etan.

ESKORIATZA Areto futboleko Euskal Kopa: lagunartekoa
Eskoriatza eta Laskorain taldeen artean.
Manuel Muñoz kiroldegian, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA Gatz Museoan bisita
11:30ean euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com*.
Gatz Museoan.

OÑATI 'Auskalo zeinek jarriak' bertso jarri musikatuak
Unai eta Eñaut Agirre eta Imanol Kamio bertsolariekin. Debalde, baina edukiera mugatuarekin. Sarrerak, udal webgunean eta Txokolateixan.
Plazako karpan, 12:30ean.

ARRASATE Ate irekiak erdiguneko gaztegunean
Gunea ezagutzeko aukera.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ZURRUNKA TEATROA

ARETXABALETA 'Aioko' antzezlana
Zurrunka Teatroa taldearen lana, 8 urtetik gorakoendako. Itzalekin eta txotxongiloekin egindako antzezlana. Emanaldi bikoitza egingo dute: 16:30ean eta 18:00etan. Sarrerak, hiru euro.
Astelehenean, Zaraia aretoan, 16:30ean eta 18:00etan.

ESKORIATZA Areto futboleko Euskal Kopa: finala
Finalerdietako bi irabazleen artean erabakiko da txapelduna.
Manuel Muñoz kiroldegian, 18:00etan.

ASTELEHENA 12

ELGETA Auzolana Egoarbitzan
Herri basoa auzolanean garbitzeko elkartuko dira. Erreminta norberak eramatea eskatu dute.
Mendizaleen plazan, 08:30ean.

ARRASATE Ate irekiak ludotekan
Gaurtik aurrera gunea ezagutzeko aukera, astelehenetik egubakoitzera.
Ludotekan, 17:00etan.

MARTITZENA 13

ARRASATE Ate irekiak ludotekan
Gunea ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Galder Regueraren *Libro de familia* liburuaren gaineko saioa, Ivan Repilak gidatuta. Egilea bera solasaldian egongo da.
Liburutegian, 18:30ean.

OÑATI 'Yogako: plenitud de vida' hitzaldia hitzaldia
Manuel Paz Macazagak egingo du berba, Oñatiko Sanatana Dharma eskolak gonbidatuta. Debalde, baina edukiera mugatuarekin.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA Emakumeen Bergara Hiria pilota txapelketa
Finalak. Promes mailan: Barrocal-Gaminde eta Salsamendi-Mendiburu. Nagusietan: Agirre-Ruiz de Larramendi eta Ruiz de Infante-Ruiz de Larramendi.
Udal pilotalekuan, 19:30ean.

ARRASATE 'Papicha: sueños de libertad' pelikula
Mounia Meddourren pelikula emango dute, zineklubean.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 14

BERGARA Adimen artifizialari buruzko hitzaldia
Energia e inteligencia artificial: evolución y futuro delako berbaldia egingo du Javier Tejadak, gazteleraz. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan.
Seminarixoan, 10:00etan.

ESKORIATZA Nekazaritzako ibilgailuen aldizkako ikuskapenak
Pandemiaren ondorioz atzeratutako kanpaina gaur hasiko dute.
Estazioan, 12:00etan.

ARRASATE Ate irekiak ludotekan
Gunea ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ELGETA 'La reina tortuguera' liburuaren aurkezpena
Carlota Alfaro Ortega egilea egongo da ekitaldian.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE 'Frankenstein berpiztuko balitz' ipuin kontaketa
Bibliotekaren Egunaren baitan, Ana Galarragarekin. Ipuin kontaketa, zientzia esperimentuekin, 6 urtetik gorakoendako.
Santa Marinako ludotekan, 19:00etan.

ARRASATE Laburbira
Gau beltza, *Urak dakarrena*, *Anti*, *Tigre bat*, *Pil pil*, *Mamarro*, *Kateak*, *Jauzi bat eta prixt* eta *Harria herria* emango dituzte. Bederatzi film laburretatik sei emakumeek zuzendutako lanak dira.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUENA 15

ARRASATE Sasoibide irteera
Etxezarretaraino joan-etorria egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARRASATE Ate irekiak ludotekan
Gunea ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

ARRASATE 'Malen Etxea. Zaintzaren esklabotza' dokumentala
Ostean, XXI. mendeko esklabotzaz egingo du berba Silvia Carrizok, gaztelaniaz.
Kulturaten, 18:30ean

OÑATI 'Los informes de Sarah y Saleem' filma
Muayad Alayan zuzendariaren lana, benetako gertaeran oinarritutakoa. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Victimas Club taldea
Talde gasteiztarra Sumision City Blues taldearen errautsetatik jaio da. Jon Zubiaga *Osoron* musikari arrasatearrarekin eta Julen Postigorekin batera, Joseba B. Lenoirrek, Iñaki Urbizu *Pela*-k eta Dabid Marinek osatzen dute taldea. Emanaldia egingo dute Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 16

ESKORIATZA 'Udazkena ludotekan'
Hostoak, makilak eta landareak jasotzeko irteerak, ostean eskulanak egiteko. Bi talde: 16:45ean eta 18:15ean.
Tortolis ludotekan.

ESKORIATZA 'Gaba baltzaren astea'
Ipuin beldurgarriak, eskulanak eta *scape room*-ak, egunero. Bi talde: 16:45ean eta 18:15ean.
Tortolis ludotekan.

ARRASATE Ate irekiak ludotekan
Gunea ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

ARRASATE 'Uribarri auzoa ezagutzen' bisita gidatua: izen-ematea zabalik
Telleria labea eta Barrenatxo ezagutzeko aukera egongo da bihar. Izena, aurrez: *kultura@arrasate.eus* edo 943-25 20 20.
Arimazubi plazan.

ARRASATE 'EZ BULTZA EGIN' ERAKUSKETA
Euskal arte garaikideari buruzko bilduma ikusgai, hilaren 24ra arte.
Kulturaten, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Elikadura subiranotasuna eta feminismoak' topaketa
Etxaldeko Emakumeak elkarteko Izaskun Urbanetak bideratuko du.
Arkupen, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlana
Xake Produkzioak taldearen lana, euskaraz. Kepa Errastiren antzezlan berriena. Sarrerak, lau euro.
Zaraia aretoan, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La boda de Rosa
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 20.30.

Bonnie bear
Zapatua eta domeka: 16:30.

BERGARA

SEMINARIXOAN

La boda de Rosa
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Uno para todos
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Scooby
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Akelarre
Zapatua: 16:00.

Rifkin's Festival
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20.15.
Astelehena: 20:30.

Explota, explota
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:15.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Akelarre
Zapatua: 22:00.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20.30.

Vicky el vikingo
Domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

Como perros y gatos
Zapatua eta domeka: 17:15, 18:15.
Egunero: 19:25.

Eso que tú me das
Zapatua eta domeka: 17:10.

El arco mágico
Zapatua eta domeka: 17:10.
Egunero: 19.10.

Arzak, since 1897
Egubakoitza eta zapatua: 21:45.

Nacion cautiva
Egubakoitzetik astelehenera: 19:45, 22:15.
Martitzena: 22:15.
Eguaztena eta eguena: 17:15, 19:45, 22:15.

Pinocho
Zapatua eta domeka: 17:20.
Egunero: 20:10, 18:45.

Akelarre
Zapatua eta domeka:17:10.
Egunero: 19.20, 20:20.
Egubakoitza eta zapatua: 21:30, 22:30.

Greenland
Zapatua eta domeka:17:00.
Egunero: 19:40.
Egubakoitza eta zapatua: 22:05, 21:15.

Explota, explota
Zapatua eta domeka: 17:00.
Egunero: 19:35.
Egubakoitza eta zapatua: 22.10.

Rifkin's Festival
Egunero, martitzena izan ezik: 17:50, 20:00.
Martitzena: 17:50.

After
Egubakoitza eta zapatua: 22:20.

Padre no hay mas que uno 2
Zapatua eta domeka: 17:30.
Egunero: 19.50.
Egubakoitza eta zapatua: 22:25.

GORBEIA

Padre no hay mas que uno 2
Egubakoitza eta zapatua: 19:30.
Domeka eta astelehena: 12:00, 19:30.
Martitzenetik eguenera: 17.30.

Trasto
Egubakoitza eta zapatua: 16:35.
Domeka eta astelehena: 12:00, 16:35.

Tenet
Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Astelehena: 20:00.
Martitzenetik eguenera: 19:30

Pinocho
Egubakoitza eta zapatu:17:15, 19.50, 22:25.
Domeka: 12:00, 17.15, 19:50, 22:25.
Astelehena: 12:00, 17.15, 19:50.
Martitzenetik eguenera: 17:45.

Greenland
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 12:00, 17:30, 20:00.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Eso que tú me das
Egubakoitza eta zapatua: 18.35, 20.10, 22:30.
Domeka: 12:00, 18:35, 20:10, 21:45.
Astelehena: 12:00, 18:35, 20:10.
Martitzenetik eguenera: 17.30, 20:00.

Akelarre
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18.30, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16.30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 12:00, 16.30, 18:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:15.

Rifkin`s Festival
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:35.
Domeka eta astelehena: 12:00, 16:30, 20:35.
Martitzenetik eguenera: 20:05.

Explota, explota
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 12:00, 17:30, 20:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

La habitacion
Egubakoitzetik domekara: 18:25, 22:30.
Astelehena: 18:25.
Martitzenetik eguenera: 20:00.

Como perros y gatos
Egubakoitzetik astelehenera: 17:30.

Nacion cautiva
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:10, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:10.

The vigil
Egubakoitzetik domekara: 18:35, 20:35, 22:30.
Astelehena: 18:35, 20:35.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El argo magico
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka eta astelehena: 12:00, 16:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30.

Como perros y gatos
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 18:30, 20:20, 22:05.
Domeka: 12:00, 16.45, 18.30, 20:20, 22:05.
Astelehena: 12:00, 16.45, 18:30, 20:20.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

FLORIDA

Eso que tú me das
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:45, 22:35.
Astelehena: 16:30, 20:45.
Martitzena eta eguaztena: 20.15.

Akelarre
Egubakoitza: 16.30, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16.30, 18:30, 20:30.
Astelehena: 12:00, 16.30, 18:30.
Martitzenetik eguenera: 20:30.

Una ventana al mar
Egubakoitzetik astelehenera: 20:15.
Martitzenetik eguenera: 17:30.

Como perros y gatos
Egubakoitza: 16:30, 18:15, 20.10.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16.30, 18.15, 20:10.

KRITIKA

Rifkin's Festival ★★☆☆☆
Zuz.: Woody Allen. **Herr.:**AEB (2020). **Aktoreak:** Wallace Shaw, Gina Gerson, Elena Anaya. **Iraupena:** 92 minutu.

Gatzik gabeko filma

ANTONIO ZABALA

Pertsonaia hipokondriako bat medikuarengana joaten da, bizitzako zailtasunak somatizatu egiten dituelako. Horrek arazo psikologikoak eta fisikoak sortzen dizkio. Pertsonaiaren krisialdi existentziala: bizitzari zentzua aurkitzeko ahaleginak, bizitzak zentzurik ez duenean. Amodiozko sentimenduak aldakorrak eta kontrolaezinak dira berarendako. Horren ondorioz, bikoteen artean nahasteak, mesfidantzak eta gatazkak sortzen dira… Lerro hauek irakurrita, segituan, buruak esaten digu Woody Allenen film baten aurrean gaudela. Ideia hauek zuzendariaren pelikula askotan agertu dira eta maisulan zoragarriak egiteko balio izan diote. *Rifkin's Festival*-en ideia horiek agertzen badira ere, emaitza nahiko urrun geratzen da. Zuzendariak uste du bere zinemari komunak diren egoerak edo ideiak sartuta –Bergman, Godard, Truffaut edo Buñuel zuzendarien film handien eszenak berregiten ditu–, ametsetan eta burutazioetan oinarrituta eta Zinemaldietan biltzen den jendearen parodia egiten –kazetariak, artista handiak direla pentsatzen duten zuzendariak– nahikoa dela film ona egiteko, baina ez, ez da horrela.

Rifkin's Festival ikusteko moduko pelikula da, baina gatz bako filma dela esan daiteke. Parodia eta komedia bezala grazia falta zaio. Filmean garatzen diren ideiak oso sakabanatuta daude, eta ez diote osotasunik ematen pelikulari.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude. goiena

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Euskararen galera

COVIDa dela-eta gauza gehiegi galtzen ari garen iritzikoa naiz. Baina gai honek 1.000 karaktere baino askoz gehiago eskatzen ditu. Hurrengo baterako gai hau.

Hala ere, galeren artean euskararena dago. Gazteen artean aurten egin duten ikerketa baten emaitzak argitaratu berri dira eta beldurgarriak dira, benetan. Eskoletan nabarinabaria da gure ikasleek etxealdiaren ondorioz izan duten galera, bereziki, zona ez euskaldunetan.

Nik Gasteizko Ikastolan egiten dut lan eta ederki nabaritu dugu etxean euskararekin harreman gutxi edo ezer ez daukaten ikasleek nola galdu duten euskaraz aritzeko abilezia. Txikienetatik hasi eta nerabeenganaino. Euskaraz galdetu eta gaztelaniaz erantzun. Txikienek ulertzeko ere arazoak dituzte.

Gaiari premiaz heldu behar zaio. Lehendik ere bultzada behar zuen euskarak normalizaziora hurbiltzeko eta egin duen atzerapausoa itzela izan da. Uste dut urteroko jarduera-planek ez dutela oraingoan balio. Ekintza berriak behar ditugu eta ez dago galtzeko denborarik.

BUKATZEKO

Urtzi Etxeberria, Gomiztegiko Artzain Eskolako atean. URTZI ETXEBERRIA

Artzain Eskolan ikasten, ogibide berri baten bila

Gomiztegiko Artzain Eskolako hamalau ikasleetako bat da Urtzi Etxeberria oñatiarra. Fabriketan lanean aritu ostean, landa eremuan zer aukera izan dezakeen ikusteko eman du izena joan den astean hasi eta martxoan amaituko dituen ikasketetan

Karmele Uribesalgo OÑATI

Artzaintzarekin harreman zuzenik izan ez duen arren, Gomiztegiko Artzain Eskolan sartu berri da Urtzi Etxeberria oñatiarra. Betidanik izan du gustuko mundu hori, baina familia kaletarra du, eta ez dauka ez sailik ezta baserririk ere. Are gehiago, azken urteetan fabrikaz fabrika aritu da lanean, baina, lan ezegonkorra zenez, beste bide bat probatzea erabaki, eta Artzain Eskolan sartu da. Aurtengo ikasturtean hamalau ikasle izango dira, eta Etxeberria da Debagoienekoa den bakarra.

Zortzi urtez lantegietan aritu ostean erabaki du Gomiztegira joatea 42 urteko oñatiarrak. Aldi baterako kontratuekin aritu da han-hemenka, eta bere buruari beste aukera bat emateko momentua zela pentsatu zuen. "Sei hilabetez ikasten egoteko moduan nengoela ikusita, erabaki nuen neure buruari luxu hori ematea", azaldu du. Aurretik ere aritu zen abeltzaintza ikasketak egiten, Zizurkilgo Fraisoro Nekazaritza Eskolan, baina, behin hori amaituta, industrian sartu zen, eta peoi lanak egiten aritu da harrezkero. "Aldi baterako kontratuekin egon naiz, eta horrek ez dit segurtasunik ematen", adierazi du.

Naturak sorrarazi dion kuriositateak eraman du, besteak beste, Gomiztegira, eta inguru horrekin harremana garatzeko modu bat dela uste du. "Beste bide bat da hau, eta ikusi nahi dut zer aukera dagoen, ez baitaukat oso argi zer egin nahi dudan", azaldu du. Hala ere, aitortu du entzun duenagatik ez duela samur ikusten lanbide horretatik bizi ahal izatea. "Beste edozein arlotan ere zail dago kontua", gaineratu du.

Ustiategi batekin amesten

Etxeberriaren lan "ideala" ustiategi propioa edukitzea izango litzateke; ahal dela, beste bazkide batekin. Hala eta guztiz ere, ez du baztertzen beste batzuentzat lan egitea: "Agian, hasteko bidea hori da, bide hau ere ez baita egun batetik bestera egiten". Jakin badaki lan sakrifikatua dela, eta alde "negatiboak" ere badituela: "Ustiategi bat izatean sartu behar diren orduek bakarrik jende asko atzera botatzen dute". Gauzak horrela, onartu du fabrikako bidea ez duela ahaztu.

Zailtasunak zailtasun, "kuriositate minimo bat" duen edonor animatuko luke Etxeberriak ikasketa horiek egitera. Klasean "oso giro ona" dutela azaldu du. Etxeberriak azaldu duenez, egoera ezberdinetatik iritsi dira ikasleak; batzuek ustiategiak "erdi martxan" dituzte; beste batzuk, ordea, ikastera doaz. Etxeberriaren asmoa da ikustea bide horretatik zer aukera izan ditzakeen.

GOIENA 20 URTE ALBISTE
UNIBERTSITATEAK: ETORKIZUNEKO IKUSPEGIZ, HAZTEN
'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
GOIENA TELEBISTA
URRIAREN 9AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
goiena 20 URTE ZUEKIN.